


# NOLAKO UMOREA EGIN NAHI DUGU EMAKUMEOK ARTE ESZENIKOETAN?



## EMAKUMEAK, OHOLTZA ETA UMOREA

Egilea: Leire Iburguren Agirre  
Tutorea: Jone Miren Hernandez  
2009/2010 Feminismo eta Genero ikasketak



**NOLAKO UMOREA EGIN NAHI DUGU EMAKUMEOK ARTE  
ESZENIKOETAN?**

**EMAKUMEAK, OHOLTZA ETA UMOREA**

**AURKIBIDEA:**

0.SARRERA .....	5
0.1. Zer dela eta umorea aztergai?.....	5
0.2. Metodologia.....	7
1. UMOREA.....	9
1.1. Zein baldintzetan sortzen da umorea?.....	11
1.1.1. Harridura barrearen aurretik.....	12
1.1.2. Erreferente ezagunen distortsio edo handizkatzea.....	13
1.1.3. Umorigilearen jarrera egiten duenarekiko.....	13
1.1.4. Zertan oinarritzen da umorea. Gaiak, teknikak,.....	14
1.1.5. Barrea testuinguru desberdinetan.....	16
1.2.Umoreak betetzen dituen paper desberdinak.....	17
1.2.1.Umorea eta agresibitatea.....	17
1.2.2.Umorea, sexualitatea eta beldurrak .....	19
1.2.3.Umorea eta ezarritako jendarte arauak.....	21
1.2.4. Umorea pertsonen arteko harremanetan. ....	23
1.2.5.Umorea norbere burua defendatzeko. ....	24
1.2.6.Logikaren arauak apurtzen dituen umorea .....	26
1.3. Barre mota desberdinak .....	27
1.3.1.Buruarekin egiten den barrea: .....	28
1.3.2.Tripekin egiten den barrea: .....	28
1.3.3.Bihotzarekin egiten den barrea: .....	28
2. EMAKUMEAK OHOLTZA ETA UMOREA .....	29
2.1. Emakumeak umore objektu bezela .....	29
2.2. Emakumea umore kontsumitzaile bezela .....	31
2.3. Emakumeak umore subjektu bezala .....	35
3.EMAKUMEAK OHOLTZA GAINEAN:BERTSOLARITZA, ANTZERKIA.....	39
3.1.sarrera... ..	39
3.2. Emakumeak bertsolaritzan. ....	42
3.2.1. Emakume bertsolarien ibilbidea.....	42

3.2.2. Emakume bertsolariak oholtza gainean .....	48
3.3. Emakumeak antzerkian. ....	64
3.3.1. Emakumeen ibilbidea antzerkigintzan. ....	64
3.3.3. Emakume aktoreak oholtza gainean .....	68
4. ONDORIOAK .....	79
5. BUKATZEKO... ..	84
6. BIBLIOGRAFIA... ..	87

## EMAKUMEAK, OHOLTZA ETA UMOREA

### 0.SARRERA

#### 0.1. Zer dela eta umorea aztergai?

Umorea gizaki guztiok geure erara bizi dugun komunikazio bide kurioso bat dela iruditzen zait eta gure pentsakera, itxura, sentimendu eta sentsazio gehienak bezala jendarteko elementu desberdinek umorea nola bizi baldintzatzen digutelakoan nago. Virginia Imaz-ek Azpeitian egin zuen “Generoa eta umorea” hitzaldian galdera desberdinak sortu zitzaizkidan. Emakumeok umorea bizitzeko eta gozatzeko ditugun arazo edo oztopoetaz aritu zen eta nere bizitzaren errepasso bat eginda berak aipatzen zituen hainbat kontu identifikatu ahal izan nituen. Nire barrea entzutea gustatzen ez zitzaidan garaiaz gogoratu nintzen, baita eskuarekin ahoa tapatuz barre egiten zuen lagunaz ere. Kide batek zirikatzen baninduen nola mintzen nintzen eta beste batek egin ezkerro berriz nola barre egiten nuen, txiste berdina emakume baten ahoan edo gizon baten ahoan zein desberdin entzuten nuen, eta ulertu ezin nituen arrazoiengatik zergatik egiten zidaten grazia gauza batzuk eta beste batzuk ez. Neure burua zenbat aldiz behartu dudan irribarre egitera atsegina izatearren eta nola sentitu izan naizen lagunarte batetik kanpo niri graziaz egiten ez zidan zerbaitekin denak barrez ari zirelako. Lagunen artean barre egiteko ditugun kodigoetan pentsatzen jarri nintzen, elkarri begiratzearekin bakarrik nola jakiten dugun askotan zertaz ari garen barrez,... eta honek sortzen duen konplizitatean.

Nire bizipenetan pentsatzen jarrita iruditu zitzaidan emakumeok umore asko egiten dugula geure artean, intimitatean, eremu pribatuan. Baina jendaurrean, beste gauza askorekin bezela ixilik geratzen garelakoan nago. Ikastolako garaietara begirata urtero klaseko grazioso mutil bat izaten zela gogoratzen dut. Udalekutan haur bezela ibili nitzen garaietan barre eginarazten ziguten begiraleak ia beti gizonaek ziren eta gero geu begirale ginen garaietan ere umeei adarra jo eta grazia gehien egiten zutenak gizonak izaten ziren. Baina gogoratzen dut bileren ondorengo egonaldietan lagun neska batekin egiten nuela barrerik gehien, bera iruditzen zitzaidan abilena umeekin gertatzen ziren kontuen artean anekdota graziosoak aurkitu eta kontatzen. Ironia sutila erabiltzen zuen baina azkarra eta okurrentea. Hala ere besteak baino gutxiagotan hartzen zuen paper hori umeen aurrean. Nahiz eta intimitatean emakumeok umore asko egiten dugunaren sentsazioa dudan jendaurrean halakorik ez egitean pentsatzen jarri nitzen eta ohartu nintzen telebistan txiste kontalari ia guztiak gizonak direla, umoregile moduan

izendatzen diren artista gehienak gizonak direla, barre egin eta adarra jotzeko programa gehienetako protagonistak gizonak direla, baita txikitan ikusten genituen pailazoak, biñetak egiten dituzte egunkarietako diseinatzaileak, edo bertsolari graziosoaren esterotipoa bete izan dutenak ere.... Emakumeen presentzia hain murrizta zergatik izan zitekeen galdezka hasi nitzen nire buruari... Eta internet-eko hainbat blog,etara jo nuen... Emakumeek ez dutela graziarik irakurri nuen behin baino gehiagotan, nahiz eta gaur egun badauden emakume umoregile batzuk, ezin dela konparatu hauek duten grazia beste umoregile gizon batzuek dutenarekin... Eta azkenik lagun mutil batek bere zintzotasun guztiarekin aitortu zidan berari emakumeek ez diotela graziarik egiten, nahiz eta saiatu izan den grazia hori topatzen, ez diotela irribarre nimiño bat ere eragiten... Esanguratsua iruditu zitzaidan emakumeekin barrerik egin ezin duten gizon hauen kasua, bereziki urteetan zehar hainbeste barre egin denean emakumeetaz.

Umoreak, gure harremanetan, osasunean, komunikatzeko moduan, egoera desberdinei aurre egiteko orduan eta norbanakoaren ongizatean garrantzi handia duela uste dut. Oso modu sutilean bada ere, jendartean paper inportanteak betetzen dituela iruditzen zait. Hainbat balore indartzeko eta beste hainbat ahultzeko edo deseraikitzeke tresna bat ere badelakoan nago, eta zentzu horretan borrokarako eta gaur egungo jendarte egitura zalantzan jartzeko tresna inportantea izan daitekeela uste dut. Honengatik guztiagatik eta gaur egungo ekarpen kulturaletan emakume umoregile gutxi daudela ikusirik emakumeek umorea nola erabiltzen dugun eta horretarako zein zailtasun ditugun jakin nahi nuke. Guzti honen atzean, sexu genero sistemak jendartean duen eragina agerikoa dela iruditzen zait eta lan honetan nolabait hori da aztertu eta azaleratu nahi nukeena.

Nire ikerketa objektua Euskal Herriko emakumeek oholtza gaineko ekarpen kulturaletan egiten duten umorea izango da.

Eta ikerketa lanaren helburu nagusiak hiru kontu argitzea izango dira.

1. Alde batetik umorea nola sortzen den eta umoreak, komunikazio tresna bezela, jendartean betetzen dituen paper desberdinak aztertuko ditut.
2. Bestalde, emakumeek umorearekin dugun harremanean, subjektu bezela, (umore sortzaile bezela), objektu bezela, eta umore kontsumitzaile bezela betetzen dugun papera gaur egungo sexu genero sistemak nola baldintzatzen duen ikusten saiaturiko naiz.

3. Eta azkenik arte eszenikoetan egiten diren ekarpen kulturaletan emakumeek parte hartu eta umorea egiterakoan zein errealitatekin aurkitzen diren eta emakumeek egindako umoreak ezaugarri berezirik baduen aztertuko dut.

Nire azterketa lanean zehar aipatuko dudana bezela umorea desberdina da herrialde eta kultura desberdinetan. Nire lan honetan erabiliko dudana bibliografia eta materiala kontuan hartuta azterketa guztia mendebaldeko ikuspegitik egindakoa izango da. Beraz umorea aztertu eta ulertzeko dauden modu desberdin guztietatik nik egindako lanean agertzen dena mendebaldeko jendartearen dagoen ikuspegietako bat da.

Bestalde lan honetan zehar “emakume” eta “gizon” terminoak etengabe erabiltzen ditut, badakit honela bi sexu edo genero identitate zurrun eta aldaezinetan oinarritzen den jendarte eredu dikotomikoa indartzen dudala baina ez naiz bestelako hiztegi batean oinarrituta lan hau egiteko gai izan.

Liburu desberdinak irakurri, hitzaldi, bideo eta elkarrizketak aztertuz aterako ditugun elementuak kontuan hartuta ikusiko dugu zein ondoriotara iristen garen.

## **0.2. Metodologia.**

Ikerketa lan hau egiterakoan lehendabiziko zatian umorea bera aztertu eta ezaugarritzen saiatu naiz. Horretarako bibliografian agertzen diren liburuak irakurri, azpimarratu, garrantzitsuak iruditzen zitzaizkidan ekarpenak bildu eta nere lanaren marko teorikoari dagokion zatia osatu dut. Virginia Imaz-ek emandako hainbat hitzaldi eta artikuluetatik elementu garrantzitsuak atera ditut marko teoriko hau osatzerako orduan. Berak zuzendutako “barreterapia” ikastaro bat ere egin dut hilabete hauetan zehar eta hemen egindako behaketa lanetik hausnarketa desberdinak atera ditut.

Ikerketa lana egiterakoan Euskal Herrian oholtza gainean egiten diren ekarpen kulturei begira jarri naiz. Alde batetik Euskal Herrian pixkanaka gora doan fenomeno kultural bat hartu dut kontuan, bertsolaritza. Bertan, emakumeen presentzia oso murrizta izan da azken hamarkadetan... Ez ginateke gai izango historian zehar jendaurrean bertsotan aritu diren 4 emakume baino gehiagoren izenak esateko bat-batean. Gaur egun zorionez eta bereziki bertan dabiltzan hainbat emakumeri esker, euren jardunean erreferentzi berriak sortzen egin duten lanari esker, bertsotan aritzen den emakume

kopurua igo egin da. Hala ere ez da berdina oholtzara iristeko emakumeek eta gizonen egiten duten ibilbidea eta behin oholtzara iritsitakoan ere errealitate desberdinekin topatzen direla esango nuke. Euren egunerokotasunarekin lotuta dagoen umorea jendaurrean egiteko zailtasun desberdinak dituztela eta publikotasun honek beren jarrera eta jarduna asko mugatzen duela iruditzen zait. Guzti hau aztertzeko emakume bertsolari desberdinek egindako hitzaldiak entzun eta aztertu ditut; Arrasateko emakumeen txokoak 2010eko Martxoaren 3an antolatu zuena alde batetik, Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegik eta Uxue Alberdik emandakoa. 2007ko Maiatzaren 15ean Oreretan Maialen Lujanbiok “Bertsolaritza emakumeen ikuspuntutik” izenburupean eman zuenaren transkripzioa eta 2007ko uztailaren 18an Eibarren “Bertsolaritza eta generoa” izenburupean Judith Montero eta Maialen Lujanbio emandakoaren transkripzioa. Hauetaz gain Ainhoa Agirreazaldegik emakumeak eta bertsolaritzaren inguruan egindako hainbat hausnarketa biltzen dituzten dokumentu desberdinak helarazi dizkit. Carmen Larrañagaren artikulu batzuk pasatu zizkidan eta azterketarekin aurrera egiteko erreferentzia desberdinak eman dizkit. Bere laguntza garrantzitsua izan da lan hau egiterako orduan.

Nire lanaren oinarria ordea gaur egun plazetan kantari dabiltzan lau emakume bertsolariri egindako elkarrizketak dira. Guztiengandik ekarpen interesgarri eta kurisoak jaso ditut eta oso baliagarriak izan dira nire ikerketa lanerako.

Antzerkiari dagokion zatia egiteko Virginia Imazen artikulu eta elkarrizketez gain, arte eszenikoetan lan egiten duten emakumeen topaketa desberdinetako hausnarketak biltzen dituzten liburuak hartu ditut oinarritzat. Hortaz gain Euskal Herrian gerra aurretik eta gerraostean zeuden emakume antzerki idazleei buruz Ahizpea Goenagak idatzitako liburu batean ere oinarritu naiz eta bibliografian agertzen diren beste hainbat liburu eta artikulutatik ere atera ditut zati hau osatzeko behar izan ditudan elementuak. Kasu honetan ere lau aktoreri egindako elkarrizketetaz baliatu naiz, eta hauen ekarpenak ere ezinbestekoak izan dira nire ikerketa lana aurrera ateratzeko eta iritsi naizen ondorioetara iristeko.



Elkarrizketak egiterakoan jarraitu dudan gidoia desberdina izan da bertsolari eta aktoreen kasuan. Elkarrizketatuei zuzendutako galderen gidoiak eranskinean gehituta daude. Hala ere esan beharra daukat gidoi horietan oinarritu naizen arren hainbatetan beste galdera batzuk gehitu ditudala edo hor zauden galdera batzuk saltatu egin ditudala, elkarrizketaren nondik norakoaren arabera.

Bestalde lan hau egiten egon naizen hilabeetan zehar nire egunerokotasunean ere oharkabean arreta berezia jarri dut neure umorean eta baita jendeak berau erabili eta bizitzeko duen moduan ere. Guzti honekin egindako nahaste handi batetik ateratako lana hurrengo orrietan irakurriko duzuen da.

## **1. UMOREA.**

Umorea barrearen kausa da. Barrea hemen eta orain gertatzen den zerbait da, orainaldia bizitzeko modu bat, une hortara ekartzen zaituen zerbait, edo une hori bizitzen ari zarela ziurtatzen duen zerbait. Zure pentsamendua beste kezka edo arazoren batean trabatuta dagoenean ezin da barrerik egin une horretan gertatzen ari den zerbaitetaz. Besteak beste txisteeak, hitz jokuek, anekdotek, imitazioek, exajerazioek etab.-ek irekitzen diote bidea barreari.

Umorea ez da gehiegi aztertu, orohar ez baita ikuspegi zientifiko batetik zerbait garrantzitsua kontsideratu. Hala ere umorearen inguruan egin diren zenbait hausnarketa irakurrita hau ulertzeko eta erabiltzeko modu desberdinak daudela eta modu sutilean bada ere jendartean eragin garrantzitsua duela ondorioztatu dezakegu.

Gizakia da barre egiten duen animalia bakarra eta Sigmund Freud eta Henri Bergsonen ustez, barrea, gizakiak bere frustrazioak ezkutatu eta beste izaki bizidunekiko nagusitasuna erakusteko erabiltzen duen zerbait da<sup>1</sup>. Bergsonen iritziz gizatiarra ez dena gizatiar moduan aurkeztean sortzen da barrea. Paisaia bat ederra, tristea edo alaia izatea posible da baina grazioso edo erridikulua ez da inoiz izango. Bestalde hitzegiten duen animalia batek barrea eragiten du, izan ere ezinezkoa da animalia batek hitzegitea eta gizakiaren nagusitasunera hurbiltzeko egiten duen saiakera

---

<sup>1</sup>ZIM, A; DIEM, J.M. (1989). **El sentido del humor**. Bilbao. Ed. Deusto.

antzu horregatik, egoera hori erridikulua bihurtzen da, eta horrek barrea eragiten du<sup>2</sup>. Beste adibide ohiko bat aipatzekotan paiasoek modu baldarrean mugitu eta bertikalidadea galtzeko itxurak egiten dituztenean sortzen den egoera erridikulua da. Gizakiaren duintasun eta nagusitasun irudi hori galtzen dute eta horrek barrea eragiten du.

Barrea eta umorearen ikuspuntu hau oso ierarkikoa (bata bestearen gainetik jartzen duena) dela esan dezakegu, barre egiten duena barre objektuarean gainetik jartzen baitu. Ezin da ukatu gaur egun egiten den umoreak asko duela Bergsonek aipatzen duen “nagusitasun” ikuspuntu honetatik, baina nire ustez umoreak askoz interesgarriagoak diren beste ertz batzuk ere baditu. Virginia Imazen iritziz umorea egiteko ez da beharrezkoa biktima ahulago bat aukeratu eta beste norbaitetaz barre egitea, alderantziz, askoz sanoagoa deritzo norbere arazoetaz barre egitea norbera bihurtuz barre objektu. Honetarako ordea ezinbestekoa da norbere burua entzun eta ezagutzea, bakoitzak bere arazo eta ezintasunak identifikatu eta hauetan dagoen alde erridikulua ikustea. Bakoitzak bere burua onartzen laguntzeko tresna bat izan daiteke umorea, pertsonen ongizatea hobetzeko zerbait.

Bestalde umorea hausnarketa batetik abiatuta egiten denean jendarte eredua kritikatu eta aldatzeko bitarteko eraginkor bat ere izan daiteke. Horregatik agian ukatu ohi zaio umoreari zerbait “serioa” izatea, ez da sinisten umoretik inportanteak diren gauzak esan daitezkeenik.

*“Sistema oso azkarra izan da. Umorea haurren kontua balitz bezala jokutzen du. Aldiz, umorea da gizarte kritikak duen elementurik baliotsuenetakoa: txotxongiloak, ipuinak eta pailazoak dira jendearengana errazen iristeko moduak. Eta, 'harrigarria!', hirurak ere haurretara baztertuta daude. Hiru arlo artistikoak ere, kritikarako hain baliagarriak, baztertuta, helduen mundua primeran erakusten duten arren. Indar handiko kritika bideak dira”<sup>3</sup>*

Dikotomietan oinarritutako jendarte eredu honetan “serioa/umoretsua” kontrajarritako bi kategoria dira. Eta bikote hauetan bata beti bestearen azpian egoten denez, kasu honetan argi dago askoz gehiago baloratzen dela pertsona “serioa” izatea, pertsona “umoretsua” izatea baino. Banku bateko zuzendari trajeatu serio batek askoz

---

<sup>2</sup>BERGSON, Henri. (1940) **La risa**. Madrid. Ed. Espasa Calpe: Austral.

<sup>3</sup>IMAZ Virginia (2005-01-30) **Argia astekaria**. 1977.zenb

prestigio gehiago du jendartean umeei edo eta helduei irribarreak atera eta baloreetan hezteko pailazoz janzten denak baino. Edo ingenieritza ikasketak egitea garrantzitsuagoa irizten da “clown” ikastaro bat egitea baino. Badirudi umoretsuak ez duela ezer garrantzitsurik esaten, oztopoz betetako bizitza zail hau “seriotasunez” hartzen ez duena buruarin bat dela eta denei barre egiten dionak ez duela ekarpenik egingo jendarte honetan, ez dela inora iritsiko, ez duela ezer inportanterik esango. Gai garrantzitsuak ezin dira umorez hausnartu, umorez tratatu, “Inportantea=serioa” ekuazioa oso barneratua baitugu. Ondorioz barre egitea une eta egoera konkretu batzuetan soilik baimentzen da. Erantzunkizun handiko zerbait ezin da umorez egin, eta emakumeoi guztiarekin arretatsuak eta hiper-responsableak izaten erakustearekin batera umorea pixkat gehiago ukatu edo zentsuratu zaigu. Errealitate honen aurrean risoterapia bezelako ikastaroak modan jarri dira eta hau ere aztertzeke moduko zerbait dela iruditzen zait. Nire ustez ikastaro hauek duten arrakasta neurri batean kezkatzeke ere bada, azkenean nolabait jendeak bere barrea eta umorea berreskuratu beharra sentitzen ditu eta horretarako harrimintak falta zaizkionez ezinbestean ikastaro hauetara jotzen. Umorea galdu edo ahaztuta dugun zerbait dela sentitzea kezkarria den arren jendeak barrea berreskuratzeko ahalegina egin nahi izatea zerbait positiboa ere badela esango nuke.

Lan honetan umorearen inguruko hausnarketak egin eta dituen ertz desberdinetan erreparatuz emakumeok umorearekin dugun harremana aztertzen eta ezaugarritzen saiatuko naiz.

### **1.1. Zein baldintzetan sortzen da umorea?**

Umorea modu desberdin askotan sortu daiteke. Batzutan barre eragileak modu kontziente batean bilatzen du jendeari barre eragitea, txiste bat kontatzean, historia bat asmatzean edo imitazio bat egitean. Adibidez, pertsona baten gorputzaren barruan beste baten gestoak edo ahotsa entzutea espero ez dugun zerbait izanik, barre egiten dugu.... Baina gehienetan nahigabeko umorearekin egiten dugu barre; behaketa kurioso batekin, norbaiten despistearekin edo nahigabeko erorketa batekin... Pertsona bat irristatu eta erortzean dagoen “nahigabetasunak” barrea eragiten du, espero ez dugun zerbait gertatzen delako kasu honetan ere... Umorea sortzeko bide desberdinen inguruan hausnartu izan da eta atal honetan interesgarrienak iruditu zaizkidan elementuak aipatuko ditut.

### **1.1.1. Harridura barrearen aurretik.**

Umorearen lehengai funtsezkoenetako bat “harridura” faktorean dagoela esango nuke. Bai umorea modu kontzientean egiten denean, baita modu inkontzientean egiten denean ere harridura da barrearen aurretik askotan sortzen den sententzia. Gertaerak bide logiko bati jarraitzen diotenean pertsonak gertaeraren bukaerarekin espektatiba batzuk egiten dituzte, gaur egungo jendaratean barneratua dugun logikak markatzen dituen bukaera posibleetan oinarritutako espektatibak hain zuzen ere. Guztia enbetsatu eta logika honetatik ihes egiten duen bukaera batekin topo egiteak sortzen digun harridurak eragiten digu barrea, aurreko paragrafoan aipatutako adibideak kasu. Beraz barre egiteko garrantzitsua da harritzeko gaitasuna garatuta izatea, eta hau, besteak beste, pertsonen egoera animikoarekin eta alde aurretiko jarrerarekin ere oso lotuta dagoela esango nuke.

Beraz, barneratuta dugun logikak ere zerikusia handia du zerbaitekin harritzeko gure gaitasuna handiagoa edo txikiagoa izatearekin, horregatik umorea herrialde bakoitzeko kulturak (herrialde bakoitzeko psikologia sozialean duen eraginagatik) markatzen duela esan dezakegu. Japonen, Euskal Herrian edo Saharan egiten den umorea bestelakoa da, kulturaren bidez jaso ditugun baloreak, markatu zaigun “logika” eta “harrigarria zer den edo zer ez den” barneratu duguna oso desberdinak direlako. Guatemalako indigenen herrixka batean pertsona txuri bat ikuste hutsarekin barrez lehertzen dira, eta pertsona txuri bati berriz sekulako grazia egingo dio norbait horrekin barrez lehertzeak. Azkenean indigenentzat “harrigarria” da eurak bizi diren inguru horretan pertsona txuri bat agertzea, eta han agertu den pertsona txuriarentzat “harrigarria” da norbaitentzat hori hain barregarria izatea.

Harritzeko gaitasuna egoera animikoarekin eta alde aurretiko jarrerarekin ere oso lotuta dago. Beharrezkoa da gauzak serioegi ez hartu nahi izatea eta ezinezkoa dena (logikatik ateratzen dena) posible balitz bezala irudikatze gaitasuna izatea. Oso serioa den jendea haserretu egiten da, errealitate kanpo dauden gauzak entzuten denbora galdu duela sentitzen duelako. Broma batek sortutako deserosotasunean oreka bat lortzeak halako poztasun bat eragiten du eta horren ondorioz agertzen da barrea. Logika zurruntetik ateratzen dena irudikatu eta absurdoaz barre egiteko prest egotea ezinbestekoa da horretarako.

### **1.1.2. Erreferente ezagunen distortsio edo handizkatzea.**

Umorea zerbait erreferentziala ere bada, barre eginarazten diguna askotan aurrez ezaguna zaigun erreferente baten handizkatze, distortsio edo transgresioa da. Jendarte hortako parte direnentzat ezaguna den abiapuntua da erreferente hori. Izan daiteke pertsonaia famatu bat, izan daiteke ohitura eztabaidaezin bat, ideologia bat, egunkarietan dagoen gertakari sozial bat edo gure egunerokotasunean naturalizatuta dugun jarrera bat... Beraz herrialde desberdinetan erreferentzia kultural desberdinak izatean umore desberdina sortzen da, barre egiteko kausa desberdinak agertzen baitira.<sup>4</sup> Eta horregatik kultura batean oso graziosoak izan daitekeen zerbait beste kultura batean mingarria ere izan daiteke.

Adibidez haurrek eta helduek erreferente desberdinak dituzte, bizitzako etapa desberdinetan arreta bestelako gauzetan jartzen baitugu, ondorioz haurren artean garrantzitsua den zerbait helduen artean hutsala izan liteke eta honela haurrentzat bestelako erreferentzia bat sortzen da. Erreferentzia asko bizitzako esperientzia desberdinek sortzen dituzte, horregatik, haurrek ez dituzte helduen txisteak ulertzen, oraindik erreferentzia horiek ez dituztelako bere sentitzen, euren bizitzetan hori ez dutelako esperientziatu, ez dutelako ezagutu.

Era berean, gaur egungo jendarte ereduak emakume eta gizonak modu dikotomikoan hain banatuta egoteak gure unibertso kulturean ere banaketa nabarmen bat egotea eragiten du. Ez ditugu erreferente berdinak, egunerokotasunean kezka eta lehentasun desberdinak ditugu, eta barneratuta ditugun balioak ere zentzu batzuetan desberdinak direla iruditzen zait. Ondorioz, jendarte eredu dikotomiko honek ezarri dizkigun rolen bitartez barneratu dugun guztiak emakumeon eta gizonen umorean ere eragina baduela esango nuke. Baina guzti hau aurrerago ikusiko dugu emakumeon umorea ezaugarritzeko ahaleginean sakontzen dugunean.

### **1.1.3. Umoregilearen jarrera egiten duenarekiko.**

Barrea modu konszientean eragin nahi denean ezinbestekoa da umoregileak berak egiten duenarekin gozatzea<sup>5</sup>. Eszenatoki batera atera eta jendeari eskainiko diona

---

<sup>4</sup> IMAZ Virginia.(2005) **Genero y humor la triple transgresion**. "Emakumde" aldizkaria 59 zenb.

<sup>5</sup> IMAZ Virginia.(2009-6-17) **Umorea eta generoa**. Hitzaldia, Azpeitian.

lehendabizi beretzat egiten duela sentitu behar du, beharrezkoa baita besteak gozarazteko norberak gozatzea, norberetik egiten ari dela sentitzea. Barrea eragin nahi denean “barre eginarazi behar diet” pentsatzen egoteak eta zure indarrak egiten ari zaren horretan jarri beharrean publikoan jartzeak oztopatu egiten du umorea sortzea. Adibidez bertsolari bat bertsotan ari denean publikoak bertsolaria sufritzen ari dela sumatzen badu ezinezkoa egingo zaio bere bertsoekin gozatzea. Umorea egiteko baldintza garrantzitsua da eszenatokiaren gainean egiten dena besteekin konpartitzen den “barne ospakizun” bat bezela bizitzea.

#### **1.1.4. Zertan oinarritzen da umorea. Gaiak, teknikak,...**

Guzti honetaz gain barrea eragiteko hainbat teknika ere erabiltzen dira, gorputz espresioa, aurpegiko keinuak, etab.... Bestalde gai konkretu batzuekin errazago eragiten da barrea, gure beldurrekin, emozioekin eta tabuekin lotuta dauden gaiekin adibidez. Umorea, trasgresio baten ondorioz ere sortzen da, adibidez egun normal batean norbait kaletik “superman”ez jantzita ikusten badugu grazia egiten digu, barrea ateratzen zaigu, egun normal batean mozorrotzea jendarteko arauetatik kanpo dagoelako eta nolabait ezarritako arau bat trasgreditzen duelako . Zentzu horretan kurioa iruditzen zait askotan “egia” esatea edo inozentziaz jokatzeko zeinen grazioso bihurtzen den. Adibidez paiasa batek eszenatoki gainera iritsi eta sentitzen duena esatean; urduri dagoela edo hainbeste jenderen aurrean beldur dela... mundu guztiak barre egiten du. Honek, emozioak adierazi eta egia esatea, inozentziaz edo naturaltasunez agertzea jendearen aurrean, gaur egun trasgresio bat dela adierazten du.

Barrea eragiteko beste modu bat debekatzea da. Norbaiti barrea modu esplizituan zentsuratu bazaio barregura handiagoa sartuko zaio. (irakasleak barrerik ez egiteko agintzeak barregura handiagoa ematen dio ikasleari, edo nolabait barre egitea “debekatuta” dagoen unean ohikoa da aguantatu ezineko barregurea sartzea). Barre hau errepresioari ematen zaion erantzun bat da.

Arte eszenikoetan, egoera graziosoak eragiten dituzten beste hainbat teknika ere badaude. Bergson-ek “La risa”<sup>6</sup> liburuan hauetako batzuk aztertzen ditu.

---

<sup>6</sup>BERGSON H. Opc. Ct.

**-Errepikapena:** Gertaera bat bizitzan askotan errepikatzen denean kointzidentzia horrek sortzen digun harriduragatik barregarria bihurtzen da. Antzerkietan askotan erabiltzen den teknika da, eszena bat behin ta berriz errepikatzen denean, eszena zenbat eta konplexuagoa izan eta zenbat eta modu naturalagoan egin barregarriagoa izango da. Eszena berdina baina pertsonaien papalak aldatuta gertatzen denean ere egoera barregarria bilakatuko da. Kasu hauetan, eszena bera askotan errepikatzean, eszena soil bat izatetik kategoria bat izatera pasatzen da. Modelo izaera hartzen du, berez dibertigarria den zerbaitetan bilakatzen da, sortu duten kausekiko modu independentean dibertigarria den zerbait. Ondorioz antzeko eszena bat ikusteak barrea eragingo du, aurrez barneratuta dugun modelo barregarri batekin erlazionatzen dugulako.

**-Zentzu bikoitza hartzen duten gertaeretan:** Gauza berdina bi modu oso desberdinetan interpretatzen denean ere barrea agertzen da. Ematen diren kasualitate guztiek harridura eta ondorioz barrea eragiten dute. Gaizki ulertze bat bilatzen da umoregileak egiten duenaren eta publikoak uler dezakeenaren artean. Umoregileek eman nahi dioten zentzua eta publikoak ematen diona desberdina denean, ikusleago errealitatearen eta zentzu posiblearen artean zalantzan jartzen da eta interpretazio kontrajarri hauen artean sortzen den distrakzioak dibertsioa eragiten du.

**-Hizkuntza, umorea eraikitzekeo tresna bezela:** Barre eragilea den beste elementu garrantzitsu bat hizkuntza da. Hasieran ere esan dugu hitz-jokuak barrearen kausa izan daitezkeela. Hizkuntza barrea sortzeko oinarrizko elementua den kasuetan umore mota hau beste hizkuntzetara itzultzea ezinezkoa egiten da. Hainbat hitz jokuk hizkuntza jakin batean soilik lortzen dute harridura efektua, edo kultura konkretu batean har dezake zentzu bikoitza modu dibertigarri batean. Hala dio Bergsonek ere bere liburuan “*Muchos efectos comicos son intraducibles a otro idioma cuando se refiere a costumbres y a ideas de una sociedad particular*”<sup>7</sup>. Hainbat txiste eta graziek hizkuntza batetik bestera itzultzean duten balio komikoaren zati handi bat galtzen dute. Beraz hizkuntza ere umorea egiterako orduan elementu garrantzitsua dela esan dezakegu.

---

<sup>7</sup>BERGSON H. Opc. Ct.

Bestalde zenbait hizkuntzatan gai batzuen inguruko terminologia egin gabe dago. Umore egiteko gehienetan hizkuntza da erabiltzen den tresna garrantzitsuena, eta hizkuntza bera jendarteak egindako tresna bat izanik bertan dagoen errealitatea islatu ere egiten du. Horregatik askotan entzun izan ditugu hizkuntza sexista dela eta honelako kontuak. Errelitate batzuk ez direnez izendatzen ez dira ikusarazten eta oraindik hiztegi bat egiteko dago emakumeon errealitate askoren inguruan. Jendartean ezaguna eta konpartitua izan behar luketen terminoak falta dira, eta hutsune honek eragin handia du umorea egiterako orduan.

#### **1.1.5. Barrea testuinguru desberdinetan.**

Beste hainbat baldintzek ere badute eragina jendeari barrea eragitean; hitzegiten duenaren irudi umoristikoak, mozorroak, aurpegiko espresio eta keinuek, aurrez jakin araztea “txiste bat da..” (honekin posible da harridurarako espektatiba gehiegi egitea),...

Ezagunen artean, iada hainbat kodigo edo erreferente konpartitzen direlako, konplizitate handiagoa dagoelako, barrea errazago ateratzen da. Beste zenbait egoerek berriz umorea egitea oztopatu ere egin dezakete, hilerriek, urgentzietako itxarongelek, elizek...

Arte eszenikoetan barrea errazago eragiten da antzokia jendez beteta dagoenean. Imazek dio barrea anonimoa izateko 50 lagunetik gorako publikoa izan behar dela. Anonimotasunean jendeak erreazago egiten du barre, eta horretaz gain zenbat eta jende gehiagok barre egin norbera errazago jartzen da barre egiteko alde aurretiko jarreran. Barrea batak besteari erantzen dio eta konplizeak egiten ditu.

Nerabeen artean talde mixtoetan, neska eta mutilak nahastuta daudenean, dagoen tentsio sexualaren ondorioz barre errazago egiten dute. Urduritasunak, adin hau ezaugarritzen duen egonezinak, barrerako alde aurretiko jarrera indartzen du.

Helduen artean berriz gehiengo emakumez osatuta dagoen publiko batek barre gehiago eta altuago egiten omen du, tartean gizonak daudenean baino. Publiko mistoetan emakumeek euren barrea zentsuratu egiten dutela dirudi, jendarte ereduak ezarritako rol-en artean “zuzenak”, “ixilak” eta “atentziorik deitu gabe pasatzearen” rolak oso barneratuta ditugulako. Imazek dio bakarrik eta altuan barre egiteko oso



ausarta izan behar duela emakume batek. Nik uste dut plazerra publikoan adieraztea gaur egungo jendarte eredu zurrun eta serio honetan ez dagoela ondo ikusia, ahuldadearen seinale dela, eta barrea plazerra denez modu anonimoan, oharkabean pasatzeko moduan egin behar dela sinistu dugula. Publikoaren gehiengoa emakumea denea sortzen den konplizitateak errazago apurtzen du zurruntasun horrekin eta barre egiteko libreago sentitzen gara.

Beraz atal honetan ikusi dugun bezela elementu desberdin askok baldintzatzen dute umorea sortzea errazago edo zailagoa izatea, testuinguruak, harritzeko gaitasunak, erreferenteek, gaiek, etab. Hala ere nahiz eta umorea gai batzuekin erreago atera beste batzuekin baino, hainbat umoregilek edozein gairekin eta edozein momentutan egin daitekeen zerbait dela aldarrikatzen dute. Nik ere umorea edozein gairekin egin daitekeen zerbait izan behar lukeela pentsatzen dut baina horrek ez du esan nahi umore mota guztiak zilegi direnik eta gaiekin egiten diren tratamendu umoristiko guztiak onargarriak direnik. Lehen esan bezala umorea jendarte eredu eraldatzeko tresna bat izan daiteke baina baita desberdintasuna gutxiesteko, normatik ateratzen dena zuzentzeko eta esterotipoak indartzeko tresna bat ere, beraz umorearekin zer eta nola egiten den aztertzea garrantzitsua dela uste dut. Ondorengo atalean umoreak joka ditzakeen paper desberdinak aztertuko ditugu.

## **1.2.Umoreak betetzen dituen paper desberdinak.**

Umorea beraz helburu desberdinekin erabiltzen dugun zerbait da eta gehienetan oharkabean aukeratzen dugu umorea zein helburutarako erabili. Batzutan gure gutxiagotasun sentimendua gainditzeko erasorako erabiliko dugu, beste batzutan geure tabuak azaleratzeko, gure beldurrak kanporatu eta eurretaz barre egiteko... Edonola ere umorea biziraupena xamurragoa izateko erabiltzen dugun bitarteko bat dela esango nuke eta hurrengo atalean ikusiko dugu zein diren umoreak har ditzakeen paper desberdin horiek.

### **1.2.1.Umorea eta agresibitatea**

Aristotelesek uste zuen umoreak bestea erridikulizatu eta umilatzeko boterea ematen duela. Greziako garaietan burla erasorako tresna bat zen eta kasu askotan botere

majiko bat egozten zitzaion. Adibide moduan “Arkiloko”ren leienda<sup>8</sup> aipatu dezakegu. Arkiloko bera apaiz baten eta esklabu baten semea zen, sasiko semea, ezkutukoa. Gaztaroan emakume batekin maitemindu zen eta bere maitalearen aitak alabaren eskua emango ziola agindu zion, baina aitak Arkilokoren arbasoak zein ziren jakitean atzera berriz eskua ukatu zion eta boda bertan behera gelditu zen. Orduan Arkilokok bertso ironiko eta satiriko batzuk idatzi zituen aita eta alabaren kontra eta bi hauek lotsagatik euren buruaz beste egin zuten.

Umorearen bidez indarkeria erabiltzea nondik datorren aztertzeke zenbait pentsalarik hainbat kontzeptu unibertsal jartzen dituzte mahai gainean.

Alde batetik gizakia barre egiten duen animalia bakarra izatea, frustratutako animalia bat izatean oinarritzen dute eta gutxiagotasun sentimendu horrek umorearekin erasotzera bultzatzen dituela argudiatzen dute. Askotan txanpon berdinarekin erantzun ezin dien pertsoneri erasotzeko erabiltzen da umorea. Kasu honetan boterea duenak modu ironikoan bere frustrazioa nolabait menpean duen pertsonaren bizkarrean deskargatzen du, bestea umilatuz eta bere gutxiagotasun sentimendua estaliz. Beste batzuetan berriz umorea boterea dutenen aurka egiteko erabiltzen da... baina nire ustez hau beti ere anonimotasunetik edo behintzat distantzia batetik egiten da... arriskurik suposatzen ez duen posizio batetik. (Nahiz eta kasu batzuetan arriskuan ere jarri diren, adibidez “el jueves” aldizkaria epaiketara eramane zuten espainiako erregeez barre egiteagatik,..). Umoretik egiten diren erasoak nolabaiteko inpunitatearekin egiten dira. Norbaitek ironikoki “inozo” bat zarela esan badizu badirudi ezin duzula haserretu “broma” bat izan delako. Umorea, inpunitate honetaz aprobetxatzen den indarkeria mota bat izan daiteke. Adibidez, “Mahoma”ri buruz egin zuten karikatura hura, erlijio musulmanaren kontrako eraso bat bezala ulertu zuten hainbat arabiarrek, komiki inozente baten inpunitatearen atzean ezkutatutako eraso interesatu bat.

Denborarekin guda fisikoa guda berbalera pasatu dela ere esan dezakegu. Hala dio Zim-ek bere liburuan; “ *Hemos pasado del combate fisico al combate intelectual*”<sup>9</sup>. Hainbat politikariek euren argumentuak defendatzeko egiten dituzten interbentzioetan

---

<sup>8</sup> ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. Cit.

<sup>9</sup> ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. Cit.

ironia erabiltzen dute bestea umilatzeko. Askotan ikusi dugu parlamentuan egindako eztabaida saioetan bata besteari modu ironikoan erantzuten, zertaz hitzegiten ari ziren ere ia ahaztuta.

Gure jendartean onartuta dagoen agresibitate modu bat umorea da. Areriotasunezko barne sentimendua tapatu eta inpunitatean gelditzen dena. Batzuen ustez umorea ezinezkoa da biktimarik gabe egitea, pertsonak besteak zenbaterainoko erridikuluak diren ikusi beharra sentitzen dute eta konparazio batean eurak hain imperfektuak ez direla ondorioztatzen dute. Norbere autoestimua salbatzeko besteak erasotzean oinarritzen den umorea da, batzutan oharkabean egiten dena eta beste batzutan intzentsio guztiz. Besteak beste hainbat broma ere (bonba fetida, lehertzen diren zigarroak, ura botatzen duen lorea...) umore agresibo baten erakusgarri dira. Batzutan umilazioa, min egitea eta agobiatzea ere eragin ditzake era hontako umoreak, eta ziurrenez umorea egiteko modu interesgarriagoak egon arren era hontakoa oraindik ere asko erabiltzen dela esango nuke.

### **1.2.2.Umorea, sexualitatea eta beldurrak**

Gure mendebaldeko jendarte eredu honetan sexuaren expresioa erreprimitu egiten da eta errepresio honek sortzen duen egonezina ateratzeko umorea erabiltzen da. Sexua gure bizitzetako plazer handienetakoa da eta gehienetan kulturalki tabu edo erdi tabu bat da. Sexuaren inguruan ditugun mamuak, beldurrak eta egonezinak askatzeko modu bat da umorea. Barre egitea beldurra konpartitzeko era bat ere bada. Sutiltasunez sexuaren inguruko egoera bat irudikatzean norberak bere baitan aurkitzen ditu aipatzen diren egoera horrekin antzekotasuna duten erreferentzia propioak, horrela askotan hitzez konpartitu ez duguna barrearen bidez konpartitzen dugu. Sexuarekin lotuta gertatzen diren hainbat egoera “erdi-tabu”ri buruz hitzegiteko aukera ematen du umoreak, nahiz eta egiten den umoreak gehienetan beldurrak estali eta mitoak elikatzeko baino ez duen balio izaten. Askotan ateratzen dira zakilaren tamaina, plazererako gaitasuna etab... Sexuaren inguruan egiten den umore gehiena gizonen sexualitatera mugatzen da, oraindik emakumeen sexualitatea ez baita errekonozitzen, oraindik hori “tabu” handiegia baita. Sexuarekin erlazionatuta egiten den umoreak gure beldurrak islatzen ditu, homosexualitateaz barre egiten da, emakumeak objektu sexualaren paperean jartzen dituzten txiste ugari egiten dira... Emakumeak sujetu sexual bezela edo homosexualitateak jendarteko arauak hankaz gora jartzeak eragiten dien beldurrak

sortzen du umore mota hau. Hala dio Zim-en “El sentido del humor” liburuan; “*La transformación del miedo en objeto de humor provoca la risa y reduce la tensión*”<sup>10</sup>.

Aurreko atalean esan dugun moduan umorea gu baino maila altuagoan dagoena erasotzeko balio digun tresna bat ere izan daiteke. Eta honela erlazionatzen du Zim-en liburuan sexualitatearekin lotuta egindako umorea nolabait maila altuagoan dagoena erasotzearekin:

*“Este principio fue perfectamente puesto de manifiesto por los antiguos griegos cuando presentaban a sus dioses en posturas poco divinas... dioses desnudos con enormes falos erectos les daba un cierto aire de mortales, rebajandoles a nuestra humilde condición”*<sup>11</sup>

Estatua hauetaz gain Mitologia griegoan jainkoen arteko hainbat abentura eta desbentura sexual agertzen dira nolabait gizakiaren mailara berdintzen dituztenak.

Duela urte batzuk Henry Kissinger politikaria erabat biluzik agertzen zen poster bat atera zuten, bere karrera politikoa gorantz zioan unean. Berez ez dauka zertan erridikulua izan beharrik horrek, baina sexua tabu bat izanik Kissinger pertsona sexuatu bat bezela agertzeak beste gizakiekiko berdintasunean jartzen zuen. Bill Clinton eta Monica Lewinsky-ren arteko harremanak sortu zuen eskandaluarekin ere berdin gertatu zela esango nuke. Gaur egungo jendarte eredu dela eta famatua den norbaiti bere bikoteak “adarrak jartzen” badizkio zenbat eta altuagoa izan pertsona horren maila soziala orduan eta barregarriago gelditzen da. Umore sexuala tabu, beldur eta desirekin erlazionatuta dago, hala ere sexualitatearen inguruko ideiak zabaltzen eta askatzen goazen heinean umore mota hau ere aldatzen joango da. Gaur egun aldaketa batzuk ikusten dira, bakoitzean eta ingurune zabalagoan gelditzen da “ridikulua” homosexualitatearen inguruko txiste bat egitea, eta etorkizunean sexualitatea librea den jendarte bat eraikitzea lortuko bagenu norbaiten bikotea beste batekin liatzeak ez luke umorerik eragingo, ez luke inor egoera konprometitu edo erridikulu batean ezarriko, agian ez ginateteke bikoteka ere antolatuko... Behintzat gaur egungo eredu oinarritzen diren txisteek ez lukete graziaz izango.

---

<sup>10</sup> ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. Cit.

<sup>11</sup> ibidem

### **1.2.3. Umorea eta ezarritako jendarte arauak.**

Umoreak paper sozial oso desberdinak joka ditzake. Alde batetik umorea jendarte eredu hegemonikoaren norma indartzeko eta bazterrean gelditzen den hori zuzentzeko sistemaren bitarteko oso eraginkor bat izan daiteke. Gizakiaren hainbat ekintza erridikulizatuz eta barrearen biktima bihurtuz normatik ateratzen den hori bere jarrera “zuzentzer” behartuko du. Honela azaltzen du Bergsonek nola zuzentzen dugun gure jokaera barrearen jomuga izatea ekiditeko:

*“Un ser humano ridiculo desde el momento en que advierte su ridiculez, trata de modificarse en lo extremo (...) la risa castiga las costumbres haciendo que nos esforcemos en aparecer lo que deberiamos ser, lo que indudablemente llegaremos a ser algun dia”.*<sup>12</sup>

Nire iritziz hausnarketa honek emakumeak umore objektu bezela hainbestetan zergatik agertzen diren azaltzeko klabe garrantzitsua ematen digu. Baina hori aurrerago aztertzen saiatuko naiz.

Hurrengo hitzetan berriz, atzean hausnarketarik ez duen umoreak egin dezakeen kaltea aipatzen du:

*“La risa castiga ciertas faltas, casi del mismo modo que la enfermedad castiga ciertos excesos, hiriendo inocentes y respetando culpables, mirando siempre a un resultado general en la imposibilidad de hacer a cada caso el honor de examinarlo separadamente. Asi ocurre cuando se realiza por vias naturales sin el auxilio de la reflexion consciente”*<sup>13</sup>.

Hala ere umorea hausnarketa baten ondoren sortzen denean tresna oso garrantzitsua izan daiteke ezarritako botereari aurre egiteko eta jendarte hegemonikoaren balioak ezbaian jartzeko. Konbentzionalismo sozialen kontraesanak agerian jarri eta normatik kanpo gelditzen direnen askatasuna defendatzeko bitarteko inportantea izan daiteke.

Hainbat umoregileren lanetan umorea hausnarketa batean oinarritu eta jendartean dauden injustiziak salatzer a bideratuta dagoela ikus dezakegu. Charlie Chaplin-en lanetan adibidez, “el gran dictador”, “tiempos modernos”,... Umorea jendartea hezteko

---

<sup>12</sup> BERGSON H. Opc. Ct.

<sup>13</sup>BERGSON H. Opc. Ct.

tresna pedagogiko bat izan daitekeela pentsatzen zuen, inguruan gertatzen ziren injustizien inguruko kontzientzia hartu eta eguneroko bizitzan norberak bere errealitateai aurre egiteko.

Denboran eta espazioan gerturatuta Virginia Imaz eta Oihulari Klown-ekoen lanetan erreparatu besterik ez dago, hausnarketa batetik abiatutako umoreak eraldaketan eta kontzientziazioan egin dezakeen lanaz jabetzeko. “Encantadas”, “Ezineman” edo “la modelo clowtrapublicitaria” bezelako antzezlanek oso modu ironikoan kritikatzten dute jendarte eredian emakumeoi ezarri dizkiguten rolak.

Bestalde parodia eta manifestazio ludikoak askotan izan dira aldarrikapenak egiteko bitarteko interesgarriak. Norbait kaletik mozorrotuta ikusteak sortzen duen atentzioak, harridurak, bere mezua gehiago entzutean eragingo du. 60 eta 70. hamarkadetan mugimendu feministak era honetako ekintza ugari egin zituen, baina ondoren 3. olatu feministarekin geldialdi bat egon zela esan dezakegu. Azken hamarkada hauetan Judith Butler-ek<sup>14</sup> identitateak etengabeko errepresentazio performatiboz eraikitzen doazen zerbait bezala definitzen ditu. Honela genero rola modu parodiko batean inbertituz parodian oinarrituta politika eginez, gure identitateekin jolastu eta hausnartzera bultzatzen gaitu. King tallerrak, performance-ak, etab.en bidez, irudimena, parodia, hausnarketa eta ezarritako rolen aurkako borroka uztartzen direlarik.<sup>15</sup>

Justiziaren zentzu hau duen beste umore mota bat “satira” bezala ere ezagutzen dugu. Satira idazle baten motibazio nagusia aurkitzen dituen injustiziak salatzea da, bere desadostasuna barre eginaraziz kanporatzea. Bere lanaren xedea mundua begi kritikoeekin begiratzea da. Boterea kritikatu eta gobernu ukitzerik ez dagoen jendarte autoritarioetan, umorea instituzioei zuzentzeko modu bat izan daiteke, hauen boterea gutxitzearen helburuarekin. Herrialde totalitarioetan txisteak modu sutilean mugitzen dira alde batetik bestera. Obrdli-k “Gallow humor: sociological phenomenon”, Txekoslovakian okupazio alemanaren garaian egindako ikerketarekin umoreak gobernu erridikulizatuz bere boterea gutxitzeko balio zuela frogatu zuen, eta horretaz

---

<sup>14</sup> BUTLER Judith (1980) “**Genero en disputa**” Editorial Paídos

<sup>15</sup>BERNARDEZ Asun. (2001) “**El humor y la risa**” ed: Fundacion autor

gain zapalduta zaudenen artean elkartasunezko argi izpi bat agertzeko ere oso baliagarria izan zela ondorioztatu zuen.<sup>16</sup>

Argi dago umoreak baduela eragina jendartearen egitura sozialean. Umorearen erabileraren arabera bere egitura soziala indartzeko edo hausnarketa kritiko baten bidez iraultzeko balio lezake.

#### **1.2.4. Umorea pertsonen arteko harremanetan.**

Baina umoreak eremu intimoago batean jokatzen duen papera aztertzen badugu, pertsonen arteko harremanetan ere osagarri garrantzitsua dela ikusiko dugu.

Adibidez, lanbideetan etab. dauden pertsonen artean egiten den barrea konplizitatezkoa izaten da eta batu egiten ditu. Eurek soilik ulertu dezaketen txistea izateak talde hori batzearen funtzio soziala betetzen du. Adibidez medikuen txisteeak, edo irakasleen anekdotek...

Orokorrean taldeetan integratua sentitzeko umorea erabiltzen da. Barre eginarazten duena sinpatikoagoa da, atseginagoa inguruan edukitzeko... norbaiti barre eraginez taldean integratzen laguntzen zaio. Talde baten parte izatearen sentsazioak kanpoko indar batzuen aurrean babesa suposatzen du. Talde sentimenduari dagokionez, taldeko normen zaintzaile bezala ere jokatzen du umoreak. Talde hippy batean norbait orraztuta eta takoiekin edo trajeatuta agertzen bada, barre egingo dute. Euren normara egokitzen ez delako. (Hemen lehen aipatutako paper zuzentzaile hori agertzen da berriro).

Umoreak hierarkien arteko distantziak gutxitzeko ere balio dezake, agresibitatea modu alai batean kanporatuz. Adibidez nagusiak langileari esaten dionean: “atzo zergatik etzinen etorri lanera? Eta gogoratu zure amona ia bi aldiz hil dela...” (distantzia sozialak gutxitzeko balio dezakeen umore mota da).

Susto baten ondoren barrea ateratzen denean jendearen artean batasun bat sortzen da, behin arriskua desagertu dela ziurtatuta sentitzen den segurtasuna

---

<sup>16</sup> ZIM, A; DIEM, J.M. Opc ct.

manifestatzeko modu bat da. Arriskutik kanpo egotean elkarrekin pozten gara, elkarrengana hurbilduz.

Askotan barrea batak besteari eransten diola ere esaten da. Barrea konplizitatea da. Zure txistek ulertzen ez dituen norbaitekin aurkitzen bazara une batean haserretu ere egin zaitezke. Aldiz, zure txistek apreziatzen baditu eta barre egiten badu, zuk ere berarekin barre egingo duzu eta bion arteko distantzia murriztu egingo da. Barrea da bi pertsonen arteko distantziarik motzena.<sup>17</sup>

### **1.2.5.Umorea norbere burua defendatzeko.**

Umorea askotan erabiltzen da gure beldurrei indarra kendu eta sortzen diguten angustia xamurtzeko. Batzutan beldurra sentitzea beharrezkoa zaigu. Umetan beldurrezko trenak etab. atrakzio garrantzitsuenetakoak izaten dira, beldurra sentitzea bizirik sentitzeko modu bat dela esango nuke. Helduagotan fantasia eta beldurrezko pelikula nahiz liburuek betetzen dute gugan beldurra sentitzearen behar hori... Errealitatearen deformazioaren bidez beldurra eragin nahi da gizakiarengan, umorearen bidez ere errealitatearen deformazio hori egiten da eta errealitatea deformatzean sortzen diren barreek tentsioak eta gaizki sentitzeak kanporatzen dituzte. Zenbat eta arrisku handiagoa sentitu desahogoa handiagoa izango da. Antsietatea zenbat eta handiagoa den egoera umoretsuagoa bihurtzen da. Honela zioen Charlie Chaplinek ere:

*“Es un aspecto paradójico que en la comedia sea justamente lo trágico lo que provoque lo grotesco... Estamos obligados a reirnos de nuestras debilidades y contra las fuerzas de la naturaleza si no queremos volvernos locos.”<sup>18</sup>*

Ezinbestekoa da gure beldurrengatik barre egitea, barre horren bidez askatuko baititugu beldur horrek sortzen dizkigun tentsioak eta beldurrak deformatu digun errealitate horretatik distantzia bat hartu eta lasaitzen lagunduko digu.

Umore defentsiboaren adibideetan bat umore beltza da. Gizakiak beldur gehien dion fenomeno heriotza da eta horregatik existitzen da umore beltza. Beldurra ematen diguten gaiez barre egitean, hauei beldurrik ez diegula demostratu nahi dugu. Batzutan

---

<sup>17</sup> IMAZ Virginia.(2009-6-17) **Umorea eta generoa**. Hitzaldia, Azpeitian.

<sup>18</sup>ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. cit.



umore beltzak egoera jasanezin batzuk eramaten laguntzen du. Adibidez anbulantzietako langileak etab. egunero erabiltzen dute umore beltza, ez dute beste aukerarik euren lanari modu eramangarri batean aurre egiteko. Gerra garaietan ere umore beltzak lagundu izan du bizitako egoera larriei aurre egiten.

Mark Twuain-ek zion Paradisuan ez dagoela umorerik, han dena perfektua delako. Ez dago beldurrik, ez dago tentsiorik, ez dago kritikarik, beraz ez dago lekurik umorearentzat, eta gutxiago umore beltzarentzat.

Umore beltza ez da heriotza edo gerrarekin bakarrik egiten. Gure jendartean beldurra ematen diguten milaka gauza daude. Gure mundu arrazionalen hainbat fenomeno ezin dira ulertu eta gure kontroletik kanpo gelditzen dira. Gizaki primitiboen beldurrak gizaki modernoarengan biziuraten dute, lehen erlijoak betetzen zuen papela orain zientziak eta logikak betetzen dutelarik. Umore beltzaren bidez errealitatea fantasia batean bihurtu nahi da eta fantasia hau zerbait ridikuluan.

Honela hitz egiten du Diana Raznovich komikilari argentinarrak umorearen inguruan Emakundek ateratako aldizkari batean:

*“Ha surgido humor en los momentos más trágicos de la historia de la humanidad. Con humor uno puede revelar situaciones que desde otro lugar sería muy difícil de hacer. Desde el humor te das permiso para decir cosas mucho más atrevidas que si las dices con seriedad.”<sup>19</sup>*

Umoreak askotan zorientasunarekin baino lotura handiagoa du tristurarekin. Negarretik barrerako tartea hari mehe bat izan daiteke. Zerbait buruz umorea egiteko lehendabizi zerbait horrek garrantzia hartu behar du, drama edo tragedia kutsu bat izan behar du. Nolabait drama hori gainditu dugula frogatzen du hortaz barre egiteko gai izateak, horregatik umorea tragediak gainditzeko eta norberaren ongizaterako laguntza garrantzitsua izan daiteke. Honela diote “El sentido del humor” liburuan:

*“Hable a las personas de sus preocupaciones y sus problemas. Encontraran en ello el reflejo de sus propias preocupaciones. Muestreles que usted al igual que ellos puede reirse de todo eso. Creara una autentica comunicación, una fraternidad en la comprension y el amor”<sup>20</sup>*

<sup>19</sup> RAZNOVICH Diana (2005) “El humor desde el genero” Emakunde aldizkaria 59. zenb.

<sup>20</sup>ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. cit.

Eta Arantxa Iturbek ere negarra eta barrea modu honetan erlazionatzen ditu. *“Negar ez egiteagatik ari gaitun barrez. Barrea eta negarra elkarrengandik oso gertu dauden bi sentipen dira. Barrea da salbatzen gaituena”*<sup>21</sup>

Norbere buruaz barre egitea ere defentsa mekanismo bat da. Gure jendartean norbere buruaz barre egitea ezaugarri positibo bat bezala ulertzen dela esan dezakegu. Barre egiten dugun horretatik distantzia hartzeko balio digu. “Hontaz barre egin dezaket beraz ez da hain gogorra” inportantzia kentzen diot gertatutakoari. Nahiz eta hor barregarria den zerbait egon, beste guztia oso ondo dagoenaren sentsazioa sortzen du puntu horretaz barre egin ahal izateak. Nolabait barre egiten dugun gure zati hori ezkutatu beharrean erakutsi eta gure parte bezela aldarrikatzen dugu. Geure egiten dugu, gure burua pixkat gehiago onartuz. Norbere buruaz irudi positiboago bat eta oreka emozionala mantentzen laguntzen dute.

Hala ere umore mota hau ez da ohikoena, ez da telebista eta umore programetan ikusten duguna, askoz hedatuago dago besteetaz barre egitean oinarritzen den umore mota, besteak baino gehiago garelako demostratzeko, Bergson-ek zion “nagusitasun” hori agertzeko, gure gutxiagotasun sentimendutik defendatzeko egiten den umore hori hain zuzen ere.

#### **1.2.6. Logikaren arauak apurtzen dituen umorea**

Arrakasta intelektuala irripar batez manifestatzen da. Buruketa bat ebastea edo laberinto bateko irteera aurkitzean umeak barre egiten du honek sortu dion poza adierazteko. Umeek ere euren mekanismo intelektualak martxan jartzean helduek bezala barre egiten dute. Umeek helduengandik ikasiz gertaeren “logika” barneratzen dute eta honen ondoren ikasten dute zertaz “harritu” edo ez, eta zertaz barre egin edo ez. Ume txikiek zu beraiek egiten dakiten zerbait egiteko gai ez zarela ikusten badute, trasgresio bat ikusten badute, barre egiten dute. Adibidez belarritik jaten hasten bazara edo biberotik edaten hasten bazara... beraientzat barneratu duten “logika”tik kanpo egonik harritu egiten dira eta honek barrea eragiten die. Gure kuriositatea espero ez dugun gertaera baten aurrean pizten da eta mezu umoristikoaren konprentzioa martxan jartzen

---

<sup>21</sup>ITURBE Arantxa.(2005) “El humor desde el genero” Emakunde aldizkaria 59. zenb

da. Zerbait diskordantea dagoela ikusteko aurrez logikoa eta “normala” zer den ikusi beharra dago.

Absurdoaren grazia da logikatik ateratzen diren gertaerek sortzen duten grazia. Hitzen eta gertaeren arteko diskordantziak eta erlazioak barrea eragiten dute. Zim-ek dion bezela “*Pisotear las leyes del sentido comun*”<sup>22</sup>. Arrazoiaren kateetatik askatzen gaituzten uneak dira. (Hainbat drogek sortzen dituzten sentrazio eta aluzinazioek logika honekin apurtzen dutelako besteak beste barrea eragiten dute).

Umore intelektualak gure ezagutzak zabaltzeko eta irudimenaren bidez logikarekiko gure desadostasunak kanporatzeko aukera ematen digu. Une batez absurdoan egon eta fantasiak logikak baino paper inportanteagoa zuen garaira, umetako jokuetara itzuli eta logika arrazionalaren zamatik ihes egiteko aukera bat da. Adibidez ondorengo txiste hau absurdoan oinarritzen den umore motarekin erlazionatuko genuke. “*Emakume bat autobusetik jaistera doa eta galdetzen dio gidariari: Barkatu ze ordu da? Gidariak erantzuten dio: Asteartea, eta orduan emakumeak: Bale ba hurrengo gelokian jaitsiko naiz.*”

### **1.3. Barre mota desberdinak**

Aurreko zatian umoreak bete ditzakeen paper desberdinetaz hitzegin dugu. Barre egitea gorputzarekin oso lotuta dago, askotan erabiltzen ditugun espresioak “me cago de la risa”, “partirte la caja” etab. umorearen fisiologia, gorputzean umoreak nola eragiten duen azaltzeko modu bat dira. Lehen aipatu dugu umorearen eta tristuraren artean askotan hari mehe bat dagoela. Drama batetik abiatuta egin daitekeela umorea. Hau gorputzera trasladatuta kurioa da nola negar egiten dugunean gure gorputzaren mugimendua barre egitean dugunaren antzekoa den. Batzutan kostatu egiten da antzematea norbait barrez edo negarrez dagoen. Biak gorputzaren tentsioak askatu eta desahogatzeko bide bat dira eta Virginia Imazen arabera barrearen bidez ateratako malko batek duen toxina kopurua negarraren bidez ateratzen denarena baino 20 aldiz handiagoa da. Beraz negar egitea osasuntsua bada ere barre egitea are osasuntsuagoa dela esan dezakegu.

---

<sup>22</sup> ZIM, A; DIEM, J.M. Opc. cit.

Honela ba, umore motaren arabera eta gure barreak gorputzean duen eraginaren arabera Virginia Imazek 3 barre mota bereizten ditu<sup>23</sup>.

### **1.3.1.Buruarekin egiten den barrea:**

Gehienok barre lepotik gora egiten dugula esaten du. Burua mugitzen dugu barre egitean baina gorputza ez horrenbeste. Txisteekin, hitz jokuekin, inteligentziarekin lotuta dagoen barrea da... Ironia, satira eta birtuositatea mota honetako umorea lirateke. Harrapatu egin behar da gure logikatik kanpo gelditzen den zati hori. Admirazioarekin eta inteligentziaren satisfazioarekin lotuta dagoen barre mota izango litzateke.

### **1.3.2.Tripekin egiten den barrea:**

Barrez lehertzea da, “partirte la caja”. Gorputz guztia mugitzen da barre mota honekin. Ukabilkada bat emango baligute bezala da. “Doblatsu” egiten gara barrez. “kaka, pixa puskarra” ere deitzen diote barre mota honi. Beldur eta desirekin, biziraupenarekin lotutako umorea da. Umeentzat adibidez euren biziraupenean txiza eta kaka zati inportanteak dira, orduan ikasten baidute behar fisiologiko hauek kontrolatzen. Ondorioz umeen txistek askotan kaka eta txizarekin lotuta egoten dira, euren tabuak hauek direlako, euren biziraupeneko erronka garrantzitsu bat delako une horretan. Nerabezaroan berriz sexuaren inguruan egiten da umore gehiena. Barre mota hau beldurrekin, tabuekin, desirekin eta lotsekin egiten den umorean oinarritzen da.

### **1.3.3.Bihotzarekin egiten den barrea:**

Jendea hunkitzen duen umorea da. Tragediatik distantzia bat hartu eta tragedia hortaz barre egin ahal izatean sortzen den umoreari deitzen diogu honela. Modu pertsonal batean garatutako umorea da, jendea hunkitzeko norberataz barre egiten saiatzean oinarritzen dena. Besteetaz barre egitea erreza da, baina gizenetaz barre egiten baduzu publikoan dauden gizenak baztertzen dituzu, edo etorkinetaz barre egiten baduzu publikoan dauden etorkinak baztertzen dituzu.

Umore mota honen teknika erreferentzia bezala norbere burua hartu eta beregan dagoen gizenaz barre egitea, beregan dagoen etorkinaz barre egitea, beregan dagoen

---

<sup>23</sup> IMAZ Virginia. (2009-01-23) Hitzetik Hortzera.

histerikoaz barre egitea.... da. Zuk sortzen duzun pertsonaiaren eta errealitatearen artean dagoen amildegia aurkitzea da garrantzitsua, honela publikoa zuk zure buruarekin barre nola egiten duzun ikusita, identifikatua sentitzen da eta bere baitan dagoen gizenaz, etorkinaz, edo histerikoaz barre egingo du, bere buruaz barre egingo du eta bere burua gehiago onartzen ikasiko du.

Umorea beraz gai zabala da, gure barruko emozioekin oso lotuta dagoen gai bat, azterketarako ertz ugari dituena. Nere lanaren bigarren zatian umoreak emakumeengan duen eragina eta emakumeok umorea nola erabiltzen dugun aztertuko dut, horretarako arte eszenikoetan lan egiten duten hainbat emakume umoregileren hausnarketei helduko diedalarik.

## **2. EMAKUMEAK OHOLTZA ETA UMOREA**

Emakumeak eta umorea aztertzerakoan agian hobe litzake 3 atal desberdin banatzea. Alde batetik emakumeak umore objektu bezela, bestaldetik emakumeak umore kontsumitzaile bezela eta azkenik emakumeak umore subjektu bezela, hau da umoregile bezela.

### **2.1. Emakumeak umore objektu bezela**

Emakumeak umore objektu bezala aztertzerakoan egoera desberdinekin aurkitzen gara, gauza bat izango litzateke emakumeaz barre egitea eta bestea, oso desberdina emakumeekin barre egitea. Alde batetik emakumeaz egiten diren gusto txarreko txiste eta ateraldiak ditugu, txiste matxista bezala izendatzen ditugunak. Marko teoriko honen lehen zatian ikusi dugu umoreak gure jendartean hainbat funtzio jokatzeko dituela, hauetako bat jendarte eredu standarretik kanpo gelditzen direnak nolabait dagozkien marra horretara itzularaztea da. Desberdina den hari barre eginaz, honek bere burua dagokion lekura zuzenduko du, norberak hala nahi gabe besteen barre objektu bihurtzea ez baita atsegina. Norbere izatearen kontrako eraso mota bat dela esango nuke, mingarria eta aldi berean erantzuteko aukerarik gabe uzten zaituena. Gure amonak esaten duen bezala “barrea burlea da”.

Badakigu emakumeoi jendarte eredu honek zer nolako marjen estuak eman dizkigun desberdintasunean bizitzeko, zorrotza da oharkabean pasatzeko bete beharreko patroia. “Arau” asko ditugu betetzeko, derrigorrez argalak izan behar dugu, atseginak, builarik ateratzen ez dutenak, txukunak, politak, goitik bera depilatutak, laguntzeko prest

daudenak, besteak idealizatuko dituztenak, tonta xamarrak, ahulak, dependienteak, negartiak, etab... Zerrenda amaiezin bat da... Eta arau guzti hauek helduleku ugari ematen dituzte emakumeetaz barre egiteko. Margen estu hauetatik ateratzen den guztia burlaren jomuga izan daiteke, berriro margen estu horietara egokitzea behartuko gaituen umorearen jomuga. Adibidez asko ligatzen duen gizon baten inguruan txiste bat egiten bada bere balentria aupatzeko izango da baina asko ligatzen duen emakume baten inguruan egindako txistek beste esanahi bat hartuko luke. Homosexualitatearen inguruan ere barre ugari egin da, hauek ere “dagozkien marjenetatik” kanpo dabilzako. Homosexualitatearen inguruan edo jendarteak ezarritako roletatik kanpo gelditzen diren emakumeetaz barre egitea, gaur egungo jendarte ereduak desberdintasunari dion beldurra islatzen du. Azkenean emakumeak jendarte egituraren bere lekua ez badu betetzen edo “gizonaren papera” betetzen ez duten gizonak badaude, txiste hauek eginaz gozatzen dutenak galduta sentitzen dira, eta beldur horrek eragiten du bakoitza dagokion “kasila”n geldi mantendu nahia. Barrearekin, burlarekin kasu honetan besteak gutxietsi egiten dituzte, eta gutxiespen hontatik ihes egiteko denok egiten ditugu maniobrak, ohartuta edo oharkabean berriro “dagozkigun” marjen estu horietara itzultzeko, burlaren jomuga izatea ekiditeko.

Ondorioz, emakumeon patroiak halako marjen estuak izaki, eta gutaz esan daitekeen ia edozerrek “burla” izateko aukerak dituen oso zaila da gehiegi ezagutzen ez duzun emakume batekin, berarekin, barre egitea. Bertsolariek askotan aipatzen dute oso zaila egiten zaiela bertso afarien bukaeretan “ronda” egitean eta publikoarengana hurbildu eta nolabait norbanako bakoitzarekin barre egiteko saiakeran emakume batekin umorea egitea, umoretsua den zerbait esan ahal izatea, mingarria izateko arriskurik gabe. Zailtasun horren ondorioz askotan ronda-tik kanpo gelditzen dira emakumeak, nolabait dibertsio hortatik kanpo gelditzen dira eta berriro ere protagonismo publikoa gizonak hartzen dute. “Ronda” hoietan, jendea gehiegi ezagutzen ez duzenez, itxura fisikoaz edo afarian zehar gertatutako zerbaitetaz egin dezakezu umorea. Gizon bat gizona edo burusoila izateaz egiten da barre askotan eta hortaz barre egitea ere agian ez da oso gusto onekoa baina ez da “burla” bat, gure jendarte eredu baimendu egiten baizaie burusoilak izatea edo gizenak egotea... baina emakume bati “bigotea” ez depilatzeagatik barre egiten bazaio ba ziurrenez “burla” bezala sentituko du publikoak, ez da politikoki zuzena izango, gure jendartean ez delako “baimentzen” emakume bat bigotea depilatu gabe ibiltzea.

Ondorioz emakumeekin besteek barre egitea ia ezinezkoa da, horrek sortzen duen konplizitatekan kanpo gelditzen gara, umorea modu horretan bizi eta disfrutatzea ukatzen zaigu. Beraz emakumeok umore objektuak garenean, ez bada konfiantzazko espazio batean, eremu pribatuan, gutaz barre egiteko izaten da normalean.

## **2.2. Emakumea umore kontsumitzaile bezela**

Bestalde, Virginia Imazek dioenez arte eszenikoetan ikuslegoaren %70 inguru normalean emakumezkoa izaten da, kultura kontsumitzen dutenak emakumeak dira orokorrean, bai zinema, antzerkia, etab. Bertsolaritzan agian orekatuagoa da emakume eta gizonezko kopurua publikoari dagokionez.

Bestalde emakumeok gure umorea ez dugula egin esan dezakegu, emakumeok umore kontsumitzaile bezala gizonezkoen graziei barre egiten ikasi dugu. Umorea konpartitzen diren erreferentzia batzuen exajerazio edo distortsioaren bidez egiten da eta emakumeok eremu pribatura mugatuta egonik gure eguneroko bizitzako erreferentziak ez dira interes publikokoak izan. Arte eszenikoak; antzerkia, bertsolaritza etab. eremu publikoan egiten den zerbait izanik hemen tratatzen diren gaiak interes publikoko gaiak izaten dira. Publikotasuna gizonei eta “euren” interesei loturiko eremua da eta beraz umorea ere erreferentzia horietan oinarrituta egiten da. “Gizonen” intereseko gaiak, gizartearen intereseko gaiak direnez, emakumeok ere ezagutzen ditugu erreferentzia horiek eta beraz emakumeok “gizonei” dagozkien erreferentzien inguruan egiten den umoreaz barre egiten ikasi dugu, eta barre hori nolakoa izan behar den ere irakatsi digute, barneratu digute. Emakumeoi ezarri dizkiguten roletan emakumeon plazerra zentsuratua edo ukatua den zerbait dela esango nuke. Barrea eta sexua gorputzaren plazer handienetakoak omen dira eta bai batean eta bai bestean objektu moduan betetzen dugun paperak protagonismo handiagoa du subjektu moduan betetzen dugunak baino.

Sexuaren kasuan emakumeon sexualitatea oraindik tabu handi bat da, gure gorputzarekin plazerra sentitzea, plazer hau errekonozitu eta berarekin esperimintatzeaz ez da publikoki hitz egiten. Emakumeon masturbazioaz gutxi hitz egiten da, baita bi emakumeren arteko sexu harremanaz ere (oso galdera ohikoa da jendearen artean “baina zer egiten duzue bi emakumek?”). Gizonen sexualitateaz umore ugari egin arren oraindik emakumeen sexualitateaz oso gutxi egiten da, ez bada sexu objektu bezela.

Emakumeon sexualitatea tabu handiegia da, ez da berari buruz hitz egiten eta hitz egiten ez dena “ez da existitzen”. Ondorioz emakumeoi sexualitatearen bidez sentitzen den plazerra nolabait ukatu egin zaigu. Barrearekin ere berdin gertatzen da. Alde batetik emakumeoi barrea ateratzea sexuen arteko sedukzio jokoaren barruan sartzen da, baina emakumearen papera ez da barre eragilearena izaten, baizik eta barre hartzailearena, barre egiten duenarena. Subjektua gizona da, barre zertaz eta nola egin erabakiko duena, egoera kontrolatuko duena, eta emakumeak atseginez, gizonaren graziei barre eginez honek markatutako norabidea jarraituko du. Emakumea bera denean umore subjektua, jolastia alaia eta saltsera xamarra, ez dago ongi ikusia eta hori islatzen duen esamolde galiziar bat ekartzen du gogora Virginia Imaz-ek: “Muller reideira o puta o perdeira”<sup>24</sup>.

Horretaz gain gure barrea nolakoa izan behar den definitzen zaigu; ezin da zaratsuegia izan, ahoa eskuarekin tapatuz egin behar dugu barre, diskrezioz. Barrez lehertzen ari bazara nunbaiten ezkutatu behar duzu, edo beste aldera begiratu... zure plazerra publiko modu eskandalugarrian egin gabe. Horregatik emakume askok barre zaratarik gabe egiten dute, euren barrea ixiltzen ikasi dutelako. Edo eskuarekin ahoa tapatzen dute, publikoki beren barreak sortzen dien plazerra ezkutatzeko. Bestalde emakumeok “atseginak” izan beharraz egunean hamaika irribarre egiten ditugu gogoz kontra, argazkietan gure gogoia behartzen dugu irribarre egitera, “atsegin” itxura emateko. Gure barrearen nondik norakoak ere marjenak ditu, noiz, nola eta zertaz barre egin erakusten zaigu.


Diana Raznovich argentinarrak 2000. urtean emakumeen umorearen inguruko manifestuan poesia eta mairazkiekin nahastuta gure barrea nolako izan behar duen, nolakoa izatera behartzen duten deskribatu zuen<sup>25</sup>.

---

<sup>24</sup> IMAZ Virginia.(2005) **Genero y humor la triple transgresion**. “Emakumde” aldizkaria 59 zenb.

<sup>25</sup> BERNANDEZ A. Opc cit.









LAS MUJERES POR ASÍ ADENTRAR-  
 NOS EN NUESTRO TEMA  
 DEBERÍAN REÍRSE PARA ADENTRO (1)  
 ASPIRANDO LA CARCAJADA (2)  
 O COMIÉNDOSE LA (3)



EN UN EJERCICIO DE SUMA PRUDENCIA



TAPÁNDOSE LA BOCA DEBERÍAN



PORQUE  
**NO QUEDA BIEN**  
 QUE UNA MUJER  
 SE RÍA FUERTE  
 O HAGA  
 COMENTARIOS  
 EN VOZ ALTA  
 DE UNA MESA  
 A LA OTRA CHE  
 VISTE ESE TIPO QUE  
 CULO QUE TIENE, QUEDA  
 MUY MAL  
 DE ESAS COSAS NO  
 DEBERÍAN REÍRSE LAS  
 MUJERES PORQUE  
 EL MUNDO CORRERÍA  
 EL PELIGRO DE LA  
 DESCOMPOSICIÓN MORAL

SI SOS UNA MUJER QUE SE PRECIA NO  
 DEBERÍAS REÍRTE A LO



JAJAJA  
 JEJEJE  
 Jijiji  
 JoJoJo  
 JUJUSÚ

JAJAJA  
 JEJEJE  
 Jijiji  
 JoJoJo  
 JUJUSÚ



DEBERÍAN EN LO POSIBLE

REIR LLORANDO

REIR SU FRIENDO

REIR PENANDO

¡AY!

AY! AY! AY!

AY! AY! AY!

DEBERÍAN AY!

REIR EN UN AY! AY! AY! CONSTANTE

### 2.3. Emakumeak umore subjektu bezala

Emakumeok umore subjektu izatea ez da beraz oso erraza ikusita jendartea zein baloretan oinarritzen den eta emakumeontzat zein rol edo aukera gutxi dituen. Arte eszenikoek nolabait jendartearen isla dira, han egiten dena gure jendarte eremuan sartzen den fikzio bat izaten da normalean eta ondorioz emakumeoi arte eszenikoetan egokitzen zaizkigun paperak ere jendarte eredu honetan egokitzen zaizkigunaren antzekoak dira. Baina beti zabaldu daitezke paper horiek, edo marjen horiek, jendartea ere azkenean ez da homogenea, masa handi bat dago, baino masa handi hortatik kanpo beste bizi eredu bat jarraitzen duten errealitate ugari ere badaude. Errealitate horiei ere euren lekua eskeiniz arte eszenikoak eraldaketarako tresna izan daitezke, beste balore batzuk eta beste jendarte eredu bat transmititu eta isladatzeko tresna. Azkenean publikoa hezi egiten da, eta ematen zaionetik jasotzen du, ikasi egiten du. Emakumeok gure errepresentaziorako aukera gutxi ditugula esaten dute hainbat bertsolari eta artistek. Eremu publikoan orainartean emakumeak beti “emakume” papera jokatu izan du. Ama, alaba, maitalea, etxekoandrea,... beti esterotipo horietara mugatu da euren mugikortasuna (paper desberdinak izateko aukera, rol desberdinak jokatzeko aukera). Azkenean errealitatean emakume desberdin ugari daude, oso bestelako estilotakoak eta joku asko eman dezaketenak. Kontua da eremu publikoan oraindik emakumeen erreferentzia horiek ez direla konpartitzen, emakumeen errealitate desberdin hoiek ikusezinak direla eta honek publikoarekin konektatzeko zailtasunak eragiten dituela. Horregatik garrantzitsua da emakume gehiago, elkarren artean desberdinak direnak ezagutaraztea, eta emakumeen errealitatea publiko egitea.

Virginia Imazek dio umorea tragedia batetik edo drama batetik abiatuta egiten dela, gai baten inguruan umorea egiteko lehendabizi gai hori sozialki errekonozitua egon behar da, garrantzia izan behar du, pisua gaur egungo jendarte eremuan. Emakume eta gizonak unibertso desberdinetan heziak izan gara, mundu erreferentzial desberdinak izan ditugu eta ondorioz interes desberdinak garatu ditugu. Gizonen interesekoak diren gaiak gizartearentzat inportanteak dira, emakumezkoenak ez. Horregatik gizonen gaitegiarekin egin daiteke umorea eta emakumeok gure interesetatik abstraitu eta gizonen interesekoak diren gai hoiekin barre egiten ikasi dugu. Emakumeon eguneroko bizitza inguratzen duten gertakariak, eremu pribatukoak, etxekoak, intimoak, emozioekin lotutakoak, guri “egokitu” zaizkigun interesak berriz ikusezintasunean geratu dira “emakumeen gauzak” izango balira bezala. Gizonen kontuak gizartearenak

dira baina emakumeenak emakumeen kontuak soilik dira. Ondorioz emakumeei dagozkien interesek ez dute jendartean behar bezalako pisua horri buruz umorea egin ahal izateko. Umorearen bidez azkenean gertaera “dramatiko” bati pisua kentzen zaio, nolabait “drama” horretatik distantzia bat hartu eta berataz barre eginaz hori gainditzeko ihes balbula bat bezela da. Gure jendartean euria egin duelako eskegita duzun arropa bustitzea ez da drama bat, edo tanpax-a aldatzea ahaztu izana ez da drama bat... Ginekologoari egindako bixita batek suposatzen duenaz gizon batek barre egiteko ez dauka erreferentziarik...Ondorioz emakumeok geure interesei buruz egin dezakegun umoreak muga inportanteak ditu, gure egunerokotasuna ez delako ezagutzen, gure unibertsoa erreferentziak pribatutasunean, ikusezintasunean daudelako. Horregatik esango nuke, neska kuadriletan, emakumeen artean etab. umore hori badagoela, egiten dela... erreferentzia hoiek konpartitzen dituztelako, baina eremu publikoan, eta beraz arte eszenikoetan horretarako zailtasun handiak daudela.

Umorea, gertaera desbedinak desdramatizatzeko gain, beste funtzio batzuetarako ere erabili izan dela ikusi dugu lehenago. Emakumeok ere nahiz eta zailtasunak izan gure erreferentziak konpartituz umorea egiteko eta barrea konpartitzeko, aurkitu ditugu tresnak modu umoretsu batean gurea defenditzeko. Mozorrotutako umorea erabili dute historian zehar hainbat emakumek euren sentipenak espresatzeko, aurrean zutenari kritika bat egiteko, eta kontradizioak esplizituki esan gabe agerian uzteko. Umore sutila, bizia eta intelijentea. Ironia izan da emakumeek euren umore sena eta barrea kanporatzeko erabili duten tresna. Sutiltasunez eta diskrezioz erabili dutena. Emakumeek egindako umorea aztertzerakoan iruditzen zait besteak entzutean, detaile txikietan eta sutiltasunean ere ezaugarritzen dela umore mota hau. Obserbatzailea izatea garrantzitsua da oharkabean pasatzen diren detaile esanguratsu hoi bidez grazia egiteko. Emakumeoi arretatsuak izaten erakutsi digute, gauza txikietan arreta jartzen, horregatik askotan gure umorea oharkabean pasatzen diren detaile horietatik sortzen da. Virginia Imazek dio clownklusioak egiten dituen arreta berezia jartzen duela ia ikusezinak diren detaile sutiletan eta hor aurkitzen dituen kontradikzioekin umorea egiten saiatzen dela, kontradizio horretan egon daitekeen injustizia salatuz.

Emakumeok umoregile moduan barrea eragiteko ditugun zailtasunak aztertzerakoan atzera egin eta objektu bezela emakumeekin zer gertatzen den ikusi behar dugu. Lehen aipatu bezela emakumeok barre objektu bihurtzen garenean “gutaz”

barre egiteko izan ohi da normalean. Besteek emakumeetaz barre egitea da ohikoena, lehen aipatu dugun paper zuzentzaile horrekin, esterotipoetan oinarritutako umore erre horrekin. Barneratuta ditugun sinismenak kuestionatu gabe hauetatik sortzen den umorea, inertziz ateratzen den umorea bezela definituko nuke. Beraz emakumeekin, geurekin, barre egitea oso zaila dago, inertziz sortzen den umorea egiten badugu behintzat, nolabait bere buruaren kontra dijoalako . Eta nola lortuko du emakumeok barrea eragitea geure buruarekin barre egitea ukatu zaigunean? Agian egin dezake, eta egiten du, gizonak ridikulizatuz, emakumeetaz egin den barre berdina gizonetaz eginez, eta esterotipoak birproduzituz, egitura sozialean eragin gabe, berau indartuz hain zuzen ere. Baina umore mota hau ez zait interesgarria iruditzen, ez dut uste emakumeok geuretik egindako umorea jendarte eredu hau birproduzitzera bideratu beharko litzatekeenik.

Nik ezagutu ditudan emakume umoregile eta artistengan niretzako interesgarriena emakumeek gure errealitatearen hausnarketa batetik abiatuta egiten duten umorea da. Barrearen aurretik beste sentsazio batzuk sortu dituen gertaerekin egin daiteke umorea. Gertaera latz baten aurrean apurtuta egotetik, honen gainean hausnartu, kontradizioak aurkitu, eta barrea sortzera dagoen ibilbide horrek ezaugarritzen duen umore mota iruditzen zait interesgarriena. Nolabait gertaera batean gure buruak zeinen ridikuluak izan daitezkeen deskubritzea, gure jarreretan dauden kontradizioak aurkituz minetik, sufrimendutik, drama horretatik distantzia hartuz barre egitea. Publikoari bere buruarekin barre egin eta norbera gehiago onartzen laguntzen duen umorea. Norbere buruarekin barre egitean erridikuluan gelditzeko dugun bildur ikaragarria gaintitzen dugu, Senekak zioen moduan *“bere buruaz barre egiten duenak ezin du erridikulurik egin”*<sup>26</sup>. Umore mota honi komikotasuna deitzen diote, eta honetaz barre egin ahal izateak nolabait ezintasunetatik askatzen gaituela adierazten dute *“El humor y la risa”* liburuan.

*“Reir de lo comico es un acto de libertad que hace responsable al ser humano y lo afirma como tal, pues en la medida en que se aprende a vivir con las enfermedades, las insuficiencias, o los fracasos, el ser humano se apropia de estas eventualidades lucidamente y las libera.”*<sup>27</sup>

---

<sup>26</sup> IMAZ Virginia.(2005) **Genero y humor la triple transgresion**. “Emakumde” aldizkaria 59 zenb.

<sup>27</sup> BERNANDEZ A. Op.cit

Emakumeon umorearentzat beste oztopo edo muga inportante bat hizkuntza da. Kodigoak oso maskulinoak dira, esamoldeak, gestoak, jarrerak... Umorearekin identifikatzen diren komunikazio tresnak umore maskulinoarekin lotuta daude. Erabiltzen den hizkuntza askotan emakumeen kontrako terminoz beteta dago, beharrezkoa da hizkuntza deseraiki eta berkodifikatzea, umorea egiteko tresna bat izan dadin eta ez oztopo bat.

Bestalde emakumeoi hiperserioak izatea exijitu zaigu. Arduratsuak, kezkatia, zaintzaileak, arretatsuak... Badirudi arduratsua izatea eta umorea ez direla bateragarriak. Gauza inportanteak “seriotasunez” egin behar direla, beraz ondo egiteko umorerik gabe egin behar direla barneratu dugu. Honek gure umorearen garapena mugatu duela esan dezakegu. Emakumeok arduratsuak izan beharraz gain seduzitzaileak izatea ere beharrezkoa dugu. Hortan oinarritzen da edertasunari egiten zaion kultu guzti hau, 50 urteko emakume batek 30 urteko baten itxura izatea edo zahartzeari egiten diogun ukazioa. Nola egingo dugu barre emakumeekin adina galdetzea ere gaizki ikusita dagoenean... Emakumeok graziosoak izatea, aurpegi harraroak jartzea etab. ez da “ederra” gelditzen, ez da erakargarria, eta umoreak dibergentzia fisikoarekin duen zerikusia kontuan hartuta ez da erreza emakumeentzat “seduzitzaile” paper horren kontra euren burua parregarri jartzea. Honela azaltzen du Imazek “humor y genero” izeneko bere artikulu interesgarrian.

*“La obligación permanente de seducir nos crispa porque nos induce a estarnos quietas. Cuando te mueves, ya se sabe, se rompen las medias, te despeinas, se arruga el vestido... Si te mueves vas a tener problemas, porque te desenfocas. O sea, que para ser bella es requisito indispensable estar muy quieta y ser muy manejable. Todo ello implica una cierta rigidez, un cierto estrés. Es por eso que en mi opinión, aunque no siempre, el humor proviene de las personas estéticamente divergentes, de aquéllas que nunca serían una primera actriz, un primer actor, ni la primera bailarina ni el primer tenor... Y viceversa, llegar a reírse de una misma, es el mejor de los caminos para llegar a ser estéticamente divergente, que aunque hoy en día suene a herejía, con tanto culto al cuerpo y a la imagen, con el tiempo será un objetivo humano prioritario de supervivencia”<sup>28</sup>*

Biktimaren paperarekin dugun harremanak ere eragiten du guzti honetan. Askotan modu estuegian lotzen gara biktimaren paperera. Tristura, poza, amorrua eta beldurra dira gorputza martxan jartzen duten emozioak. Hausnarketa baten ondoren beldurra,

---

<sup>28</sup> IMAZ Virginia.(2005) **Genero y humor la triple transgresion**. “Emakumde” aldizkaria 59 zenb.

amorrua edo tristura sortu digun horretaz barre egin daiteke. Kontua ez da aldiro barrez egotea, triste ere egon behar da, edo haserre, edo beldurtuta (haserre eta amorrua ere, emakumeok beti adeitsuak izan behar horrekin, ukatu zaizkigun emozioak baitira...). Guztiak bizi behar dira baina emozio hauetara betirako lotuta gelditu gabe, hausnarketaren bidez distantzia hartu eta umorera salto egiteak gure bizi kalitatea hobetu dezake. Imazen arabera bizitzan egoteko modu desberdinak daude, modu tragikoa, modu dramatikoa eta modu komikoa eta hauetatik sanoena dudarik gabe bizitza jarrerara komiko batekin hartzea da.<sup>29</sup>

Honela ba, emakumeok umorearekin dugun harreman hirukoitz honetan, umore objektu bezela, umore kontsumitzaile bezela eta umore subjektu bezela, jendarte ereduaren eta ezarritako rolen eragin zuzena ikus dezakegu. Hala ere umorea arte eszenikoetan guzti honi buelta emateko tresna baliogarria dela pentsatzen dut, aurreko atalean esan bezala umorez esaten denak inpunitatea duelako, umorez salatzen denak indar berezia duelako, eta norbaiti barrea eragin dion kritika batek bere baitan beste zerbait ere mugitu duelako. Umorea, erabiltzen den moduaren arabera jendarte eredu markatura egokitzeko edo jendarte eredu horren marka guztien kontradikzioak agerian jartzeko eta hauetatik askatzeko baliagarria izan daiteke.

### **3. EMAKUMEAK OHOLTZA GAINEAN:BERTSOLARITZA, ANTZERKIA.**

#### **3.1. sarrera**

Ikerketa lan honen mamia arte eszenikoetan egiten den umorea izanik ezinbestekoa zaigu antzerki edo bertso saioak gertatzen diren tokia, “oholtza” hain zuzen ere aipatzea. Oholtza, egiten ari garenari protagonismoa emateko erabiltzen den zerbait da. Harluxet hiztegi entziklopedikoan bere esanahiaren bila jarrita hauxe da ateratzen zaiguna:

*Oholtza: 1. Ohol-multzoa. 2. Zurezko plataforma, gehienetan higikorra eta lurretik gora pixka bat altxatuta dagoena; areto bateko zoladuraren zati bat gainerakoa baino altuago jartzeko izaten da. 3. Erretaula, aldarearen atzeko horman jartzen den pieza.*

---

<sup>29</sup> IMAZ Virginia.(2009-06-17) **Umorea eta generoa**. Hitzaldia, Azpeitian.

Baina oholtzak hori baino zerbait gehiago esan nahi duela badakigu eta horregatik oholtza baten gainera igotzeak halako beldur bat edo errespetu bat eragiten du pertsonengan. Oholtzak jendea zuri begira jartzen du, zuk esan behar duzunarentzat irekitzen ditu jendearen belarriak, ixildu egiten ditu azpian geratzen direnak eta zuri ematen dizu hitza eta boterea. Esaten edo egiten duzunari indarra ematen dio, garrantzitsuagoa egiten du, edo garrantzitsuagoa dela sinistarazten du. Horregatik oholtza batetik hitz egitea edo jendaurrera ateratzea ez da edonork beregain hartu nahi duen erantzunkizuna. Honela abestu zuen Unai Iturriagak bertso txapelketa bateko agurrean abesteko jarri zioten oholtzaren tamainari erreferentzia eginez; “...*suizidatzeko hobeto dago bertso kantatzeko baino*”.<sup>30</sup> Benetan esan behar duzunak eta egin behar duzunak oholtzak ematen dion indar hori hartzea merezi duela sinistu behar duzu, zeure buruarengana sinistu behar duzu. Baliteke ere oholtzara igo eta handik kantatzeko, hitz egiteko edo antzezteko aukera egiten duenak, oholtza herritar arrunten eskura ere egon behar dela pentsatzea eta herritarrengana gerturatzeko baliatzea. Azkenean edonork esateko edo egiteko duenak izan baitezake oholtza batera igotzeko adinako garrantzia. Andoni Egañak 2009ko Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalaren ondorengo prentsaurrekoan honela esan zuen; “*gu bertsolari onak gara, baina pertsona arruntak gara*”. Nahiz eta oholtza gainean 14.000 lagunaren ixiltasunaren gainetik abestu berak esateko duenari ematen zion garrantzia 14.000 horien artean zeudenek esateko dutenaren mailara eramanez nahi zuela ulertu nion nik. Betsotan egiteko abileziari, inprobisatzeko gaitasunari eta jendearrengana iristeko ahalmen hori gutxietsi gabe noski, baina pertsona arruntak izateari utzi gabe.

Atzera begiratzen badugu, ez ditugu hain erraz gogoratuko orain dela hamarkada batzuk atzerago oholtzara igo edo plazara ateratzen ziren emakumeak. Urte gutxi dira emakumeak oholtza zapaltzen hasi zirenetik, euren ahotsak dezibelio batzuk igo eta jendearen ixiltasunaren gainetik hitz egiten, kantuan, edo bertsoan hasi zirenetik. Ereku publikoa orain dela oso gutxi arte emakumeentzat mugatuta egon da, batzutan baita lege bidez ere eta oraindik ere muga horiek, modu sutil batean bere hortan irauten dutela esango nuke.

---

<sup>30</sup>ITURRIAGA Unai. (1993-12-5) Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko finalurrekoan Eibarren goizeko saioan hasierako agurrean.



Bestalde Jone Miren Hernandezek bere artikuluan adierazten duenez Teresa del Valle antropologoak eta bere taldekideek, “*Mujer Vasca; Imagen y realidad*” lanean euskal kulturaren “indarrak” garrantzi berezia hartzen duela ondorioztatu zuten. Hainbat herri kirol tradizional horren erakusgarri dira eta hauetan emakumeek izan duten protagonismoa ia nulua izan da orainartean. Ikuslegoa izatera mugatu dira. Bestalde indarrari loturiko bestelako nozioak ere agertzen dira, ugaltze indarra edo ahotsaren indarra besteak beste eta ahotsari dagokionez onartua dago gizonezkoen ahotsa emakumezkoena baino indartsuagoa dela. Ondorioz emakumea bigarren maila batean kokatzen da, indarraren nozi horrek duen garrantziagatik protagonismoa euskal kulturaren gizonek hartu izan baidute.

Historiari begira jartzen bagara bai bertsolaritza dagokionez eta bai antzerkigintza dagokionez emakumeek egindako ekarpen oso gutxi bildu direla esan dezakegu. Honen arrazoiak alde batetik eremu publikora ateratzeko emakumeek zituzten mugak dira eta bestetik nahiz eta eremu pribatua ahozketasunaren kulturaren egindako transmisioan zati garrantzitsu bat emakumeek egin izan, hau emakume bakoitzaren anonimotasunean gelditu izana da. Publikoan egin ez dena, gizonezko baten izen abizenaren atzean, ez da errekonozitu izan, beste arlo batzuei begiratu ezker ere Historian zehar hainbat emakume daude euren lanak, zientzia zein literatura arloan egindakoak, gizonezko baten izen abizenekin sinatzen zituztenak. Orokorrean pribatutasunean egin dena ez da errekonozitu eta ez da baloratu. Gaur egun, emakumeek egindako ekarpenak baloratu nahian norbaiti buruzko liburu bat idatzi nahi denean edo kale bati emakume baten izena jarri nahi zaionean ere Historiari erreparatu eta eremu publikoan nola edo hala euren tokia topatu zuten emakumeengana jotzen da. Horregatik askotan “ez dago emakumerik”, edo “ez dakigu zeinengana jo” bezelako esaldiak entzuten dira. Eremu publikoan egindakoa soilik baloratzen jarraitzen dugu eta horrela zaila izango da benetan historian zehar emakumeek egindakoa ekarpenak errekonozitzea. Historia beste betaurreko batzuekin begiratzen ez dugun bitartean, pribatutasunean egin den lan guztiari begiratzen ez diogun bitartean zaila izango da benetan egin diren ekarpenak biltzea.

Oholtza gaineko beste disziplina batzuei begiratzen badiegu ere bertsolaritza eta antzerkian gertatzen den antzeko errealitatearekin aurkitzen gara. Musika arloan adibidez oso emakume gutxi daude rock-a eta punk-a bezelako musika estiloak lantzen

dituztenak. Femeninotasunarekin lotutako musika estiloak lantzen dituzte gehiago, ahots fina, musika suabea eta emozioekin lotutako hitzak. Normalean rock taldeetan parte hartzen duten emakumeak “ahotsa” izaten dira, oso gutxitan perkusioa edo bajua... Eta atzera begiratzen badugu, Euskal rock radikalaren arora, aurreko bi edo hiru hamarkadetara, nekez aurkituko dugu oholtzan musika egin duen emakumerik. “Ez dok hamairu” bezelako taldeetan batzuk baino esan bezala rock edo punk estilokoetan oso gutxi.

Ipuin kontaketa ere jakina da etxe eta baserrietan, eremu pribatuan, belaunaldiz belaunaldi emakumeak izan direla ipuin kontalari eta abestien transmisore nagusiak baina eremu publikoan ezagunagoak dira gizonak, Pello Añorga etab... nahiz eta azken urteetan emakume ipuin kontalariak ugaritu egin diren.

Oholtza beraz ez da lurra baino pixkat gorago dagoen zoru zati bat bakarrik. Oholtzak hitzari boterea ematen dio, bozgorailu bat da esan edo transmititu nahi dugunarentzat. Erabili beharreko zerbait da oholtza, geure egin beharreko bitarteko bat baina oholtzarako saltoa metro batekoa baino handiagoa da eta barneratuta ditugun hainbat baliok eraginda nekeza egiten da salto hori ematea emakumeontzat.

## **3.2. Emakumeak bertsolaritzan.**

### **3.2.1. Emakume bertsolarien ibilbidea.**

Bertsolaritzari dagokionez Carmen Larrañagak “Del bersolarismo silenciado” lanean halako kritika bat egiten dio bertsolaritzaren historian hainbat emakume bertsolarik egindako lanak errekonozitu gabe geratu izanari. Honela dio: “*Una simplificación frecuente en la historia del bertsolarismo consiste en presentar su práctica limitada al mundo de la improvisación y las plazas*”<sup>31</sup>. Ondorioz gizonak egindako zerbait izan da bertsolaritza, emakume batzuen salbuespeneko presentzia minimo bat izan ezik. Bertsolaritza, plaza izeneko eremu honetara mugatzen badugu bertso jarrien arloa, bapateko bertsolaritzaren itzalean garatutako beste adar batean bihurtuko da. Plazatik kanpo egiten ziren bertsoak, nahiz eta askotan ondoren plazan kantatuak izateko jartzen ziren ez dute besteek adinako oiartzunik lortuko. Bertsolaritzaren definizioa inprobisazio eta plazetara mugatzen bada, ahazturan

---

<sup>31</sup> LARRAÑAGA Carmen. (2007) “**Del bersolarismo silenciado**” Eusko ikaskuntza, Miramar jauregian.

geldituko dira bertsoak egin eta abesten ziren beste hainbat espazio; plazetatik hurrun gelditzen direnak, intimoagoak... Ahazturan geldituko da pribatutasunean garatu eta transmititu den bertsolaritza, emakumeek egindako bertsolaritza hain zuzen ere.

Emakume bertsolariek historian zehar izan duten presentzia aztertzerakoan lehen erreferentzia moduan 1986an Bertso Txapelketa batean lehen aldiz atera zen Cristina Mardaras emakume bertsolaria agertzen zaigu maiz. Badirudi hau izan zela bertsolaritzaren historia markatu zuen hitoa zentzu horretan, eta orduan hasi zirela emakumeak bertsoan, baina honek izan zuen balioa gutxietsi gabe aurretik bertsoarako nahikoa abilezia bazuten emakumeen kasuak ere existitzen direla badakigu. Baita plazetan hainbat lehiaketa irabazteko gai izan zirenak ere.

XV. Menderaino joaten bagara, orduan Bizkaiko Foruetan “profazadora” bezela ezagutzen ziren emakume bertsolariei, koplak eta abestiak modu “iraingarri” batean abesten zituztela egotzita (Foru legearen arabera), esplizituki debekatu zitzairen jendaurrean abestea. Foru lege horretan bertan egiten den beste aipamen batek emakumeek dolu eta ospakizunetan bertsoak idatzi eta abesten zituztela ondorioztatzen garamatza. “Eresiac” moduan ezagutzen zirenak hain zuzen ere, hauek, hileta eta beilategietarako jarritako bertsoak izaten ziren. Emakume hauek euren ahotsak ixildu behar izan zituzten Bizkaiko Foru legearen aginduz:

*“Título 35, ley VI: .. de aquí en adelante cuando alguno muere en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra persona alguna de toda Vizcaya...Tierra llana, Villas y Ciudad, no sea osado de hacer llanto alguno mesándose los cabellos, ni rasgando la cara... ni haga llanto cantando”<sup>32</sup>*

Profazadorak eta Eresiac konposatzen zituzten emakumeak klase eta errekonozimendu sozial oso desberdinetako emakumeak ziren, lehengoak prostituzioarekin lotzen ziren eta bigarrenak berriz klase sozial altuko emakumeak ziren. Ezagutzen diren garai hartako konposizioak gudetan galdutako senideentzat jarritako bertsoak edo sasiko seme baten jaiotzak sortutako desgrazia kontatzen dituztenak dira. Hala agertzen du Larrañagak bere artikuluan:

*“Sancho Ochoa de Ozaeta a su marido, Martín Báñez de Artazubiada, muerto en el año 1464 en una emboscada. O los versos que tras la muerte de Milia de*

---

<sup>32</sup>LARRAÑAGA C.. opc cit.

*Lastur compuso una hermana de ésta. También cabe incluir los de Usoa de Alos, que narran la desgracia en que ha caído el honor de la familia luego del nacimiento de un hijo bastardo*".<sup>33</sup>

XIX. menderarte ez da emakume bertsolarien presentzia berreskuratuko, eta bertso paperak izango dira emakume bertsolarien berri emango digutenak. Bixenta Mogel eta De la Cruz izeneko erligioso batek jarritako bertsoak ezagutzen dira. Honetaz gain Bilintzek Joxepa izeneko emakume bati jarritako bertsoak ere ageri dira, zeinetan euren bertsotarako abilezia neurtzera desafiitzen zuen. Honek emakume bertsolariak plazatan ere abesten zutela frogatzen du. Bestalde 1895eko Ezpeletako Lore Jokuetan Maria Argainek bertso txapelketa irabazi zuela jasota dago, eta berari eta beste emakume bertsolari bati egindako erreferentziak ezagutzen dira eta hala aipatzen ditu Larrañagak.

*“... se hallan improvisadoras, la invencible Marie Argain de Cambó y Maria Echegaray de Hasparren. Estas dos mujeres son alternativamente espirituales e ironicas y tienen arranques felices y faciles”*.<sup>34</sup>

Honetaz gain emakumeek etxeetan eta baserrietan bertsolaritzaren transmisioan egindako lana dago. Bestalde emakumez soilik osatutako eremuetan bertsoak bere lekua izaten zuen. Monjek osatutako konbentuetan bertsoak jarri eta kantatzen zituzten emakumeak ezagutzen dira, erlijioarekin lotuta idatzitako bertsoak, baita josteko tallerretan emakumeen artean bertsoak kantatu eta jartzen zirela ere. Hala jasotzen du Larrañagak bere artikuluan:

*“aquí mientras aprendian a coser y sin dejar de dar puntadas sobre tejidos, mas como facilitando la labor, las chicas acostumbraban a decir versos y cantar canciones vascas”*<sup>35</sup>

Sor Justina Aldalur, monja bertsolariaren bertso paperak ezagun egin ziren bere garaian eta Zarautzen ospatutako bertso paper txapelketa batean Iraxia Etxabe eta Justina Aldalur emakumeak izan ziren lehen eta bigarren postua bereganatu zutenak. Hauetako erreferentzia eginez honela idatzi zuen Basarri bertsolariak aldizkari batean

*“Como apreciaran nuestros lectores ha sido un pleno triunfo femenino. Siempre existieron en nuestro pais mujeres bertsolaris, como tambien existe un rico*

---

<sup>33</sup> LARRAÑAGA C. opc cit.

<sup>34</sup> Ibidem.

<sup>35</sup> Ibidem.

*anecdotario de las mismas. No actúan por imperativos de sexo en los certámenes públicos de improvisadores, pero esto no quiere decir que no las haya*".<sup>36</sup>

Hau 1956an izan zela dago jasota, orain dela 60 urte eskas... Emakumeentzat eremu publikoa orain dela 60 urte oraindik itxita egonik gaur egun ere oholtzak emakumeentzat bere oztopo eta mugak modu sutilagoan izan arren mantentzen dituela pentsatzera garamatza. 60 urtetako bilakaeran hainbat pauso eman arren ezinezkoa baita hain denbora gutxi irauten duen zerbait benetan barneratuta izatea. Alegia plazetan eta oholtzetan emakume bertsolarien presentzia normaltasunez, gizonezkoaren presentzia bezainbesteko naturaltasunez hartzea.

Gaur egungo egoera aztertzerakoan bertsolaritzari dagokionez esan beharra dago bertsozale elkarteak sortu izanak eta bertso eskoletan egindako transmisio lanak arte eszeniko honen berpizkundera ekarri duela. Oholtzan dabilen bertsolari gazte gehienak bertso eskoletatik ateratako bertsolariak dira, lagun taldearen babesean oholtzara igoz bat-bateko bertsolaritzari ekin ziotenak. Eta hala errekonozitzen du Jone Miren Hernandezek emakume bertsolarien inguruan idatzitako artikuluan "*Bertso eskola eta bestelako mekanismoen bidez emakumeak bertsolaritzaren inguruan trebatzen hasi dira eta ahalegin horien uzta dugu emakume bertsolari belaunaldi gazte bat*"<sup>37</sup> Hala ere oraindik asko dago egiteko eta hainbat emakume bertsolariren lanari esker guzti hau aztertu eta hobetzeko asmoarekin Bertsozale elkartearen barruan genero taldea sortu berri da.

Orainarte oholtzan eta plazetan egin dena, gizonek egin dute, beraz bertan parte hartzera iritsi diren emakumeek gizonek sortutako moldeetara egokitu beste aukerarik ez dute izan. Bertsolaritzan adibidez orain dela oso denbora gutxi hasi dira emakumeak agertzen oholtza gainean, subjektua, plaza-gizona dugu erreferente<sup>38</sup> eta euren artean egindako topaketa batean halako hausnarketak atera ziren "*balio femeninoak dira oholtza gainera igotzean behean uzten ditugunak*" (Miren Artetxe). Plazara egokitze horrek asimilazio bat suposatu du eta Estitxu Eizagirrek dion moduan plaza bera ere egokitzea beharrezkoa izan behar luke, (kafetegiak, parkeak etab. plaza bihurtuz). Eta

---

<sup>36</sup> LARRAÑAGA C. op.cit.

<sup>37</sup> HERNANDEZ Jone Miren (2006/2007) **Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitateak**. KOBIE (Serie Antropologia Cultural). Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia N°XII pp 61-70.

<sup>38</sup> Ibidem

beste emakume bertsolari batek, Ainhoa Agirreazaldegik zioen berak nahiago izaten duela jende artean kantatu jende aurrean baino.

Oholtza eta plaza hauetan tratatzen diren gaiak ere nolabait “maskulino” izaera ezarri zaien gaiak dira, oso gutxitan aritzen dira emakumezkoen egunerokotasunarekin lotuta dauden gaiak buruz. Gai hauek ateratzean publikoa aspertu egingo denaren sentsazioa edo beldurra izaten dutela aitortzen dute. Plazan gai “inportantei” buruz aritu behar dela dirudi eta gaur egungo jedartean inportantea eremu publikoan egiten dena da, gizonek egiten dutena hain zuzen ere, politikagintza, futbola, makroekonomia,... etab.

2005ean emakume bertsolarien inguruan egindako Hitzetik Hortzera saioan Estitxu Eizagirrek zioen bezela emakumeok ez gara inoiz protagonistak izan, txikitari goman jolastean edo sokasaltoan ibiltzean ez genuen publikoa izaten guri begira, mutilak aldiz txikitatik ohitu dira jendea begira edukitzera, Carmen Diez-en futbolari buruzko artikuluan ikus dezakegu nola 8 edo 9 urterekin eskolarteko futbol txapelketetan iada “*ojeadores*” izeneko pertsona batzuk egoten diren futbol talde handietarako haurrak fitxatzen<sup>39</sup>. Mutilak jendea euren begira edukitzera ohitu dira txikitatik eta emakumeok berriz norbait “begira jarri” behar badugu “zerbait garrantzitsua” esateko izan behar duela barneratu dugu.

Publikoaren aurrera ateratzera ausartzekotan zerbait eszeptzionala egiteko izan behar duela sentitzen dugu eta bertsogintzan adibidez autoperfekzionismo handiarekin bizi dute emakume gazteek oholtza gainera igo eta kantatzea. Bertso perfektuaren bila ateratzen dira, oso gutxitan gelditzen dira gustora egindakoarekin eta bertso bat gaizki atera ezkeren askotan ez dute pentsatzen “gaizki atera zait” baizik eta “txarra naiz”. Emakumeok nolabait “geurea” ez den espazio batean protagonismoa hartzen badugu, hortan onak garelako izan ohi da. Adibidez orainarte bertsotan oholtza gainean aritu diren emakumeak oso onak izan dira bertsotan. Gure haurtzaroan ere neska bati mutilekin batera futboleko jokatzeko bazitzaion besteak adinako ona edo hobea zelako uzten zitzaion.

---

<sup>39</sup> DIEZ Carmen (1996) **Deporte y construccion de las relaciones de genero**. Gazeta Antropologia N°12

Aurreko atalean aipatu dugun bezela emakumeok rol eta esterotipoen bidez patroizehatz batean sartzeraz behartuta gaude. Jendarteak balore ugari inposatu dizkigu, eta besteen oniritziaren eta onarpenaren beharra barneratu digute, nolabait besteentzat izaten ikasi dugula esango nuke. Atseginak izan behar dugu, laguntzaileak, ulerkorrak, emankorrak... Balore positiboak direla esan dezakegun arren “besteentzat” egiten gaituzten baloreak direla pentsatzen dut. Ondorioz gure autoestimua balore hauen garapenaren arabera da, eta besteen asebetetze mailan oinarrituko da gure buruaz dugun pertzepzioa. Beraz besteek esango dutenaz edo pentsatuko dutenaz etengabe kezkatzea ere bada emakumeok barneratu dugun zerbait, eta honek publikora atera eta guretik emateko zailtasunak ezartzen dizkigu. Besteak beste edertasunari egiten zaion goarazarrea dela eta gure irudiaz kezkatuta bizi gara eta honengatik jendaurrera ateratzerakoan ere kezka berezia izaten dugu gure itxurarekin. Publikoaren begitatik hau ere epaitua izango dela sentitzen baitugu.

Bertso mundua adibidez oso dohai maskulinoengatik dominatuta egon da orainartean, altu eta indartsu kantatzea, sendotasuna, ziurtasuna, lehiakortasuna, desafioa, arrazoia... hauek izan dira orainarteko bertsolaritzaren osagai nagusiak, bukaeran arrazoi on bat botatzea galdera bat botatzeak baino balio handiagoa izan du... Ondorioz plazara atera eta beste gizonen artean ibili diren emakumeek ezaugarri hauekin jokatzera behartuak izan dira, emakumeak egokitu behar izan dira bertsokera horretara eta ez alderantziz.

Oholtza gainean dauden emakumeen ereduak behar direla aldarrikatzen dute<sup>40</sup>. Kolore desberdinetako ereduak, bestelako perfiletako emakumeak. Ez 6 bertsolari, 5 gizon perfil desberdinetakoak eta 6. emakumea. “Emakumea” izatea bera perfil bat balitz bezala, emakume guztiak sartu beharreko perfila. Azkenean hau, kantatu behar duen emakumearentzat pisu handiegia bihurtzen baita.

Hala ere bakoitzean emakume bertsolari gehiago daude eredu berriak eraiki nahian jarrera aktiboa eta eraldatzailea dutenak. Sormenari dagokionez, tradizioa behin eta berriro asmatzen den zerbait dela munduari azaltzeko gai izan beharko dute eta azkenik hitzarekin lotutako botere formen aldaketa bat ere ekarri lezakete.<sup>41</sup>Emakume

---

<sup>40</sup>LUJANBIO Maialen. (2010-3-3)“**Emakumea eta bertsolaritza**” Arrasaten.

<sup>41</sup>HERNANDEZ Jone Miren op. cit.

bertsolari hauek ekarpen interesgarriak egin ahal dituzte eta horretarako bertsolaritza egokitu beharra dauka ekarpen hauek jaso eta aberasteko. Hernandezen artikulua jasotzen duen bezela, *“Gaiak, pertsonaiak, doinuak, hitzak, estiloak, jarrerak jokabideak, pentsaerak, historiak, pasarteak, umoreak,... izen eta izan berriek panorama aldatu lezakete”*<sup>42</sup>

### **3.2.2. Emakume bertsolariak oholtza gainean**

Emakume bertsolariak ohotza gainera nahiko oharkabean igotzen dira lehendabiziko aldian, bertsoa jolas moduan bizi dute eta bertso eskoletan egindako harremanek eta bertako taldearen babesean eskailera horiek igotzea ez zaie hain zaila egiten.

*“ze etzan gauza kontziente ta erabakitako bat izan, etzan burun neukan gauza bat, etzan nere amets bat, etzan helburu bat, jolasian hasi nitzan..”* (Bertsolaria4)

*“asko lagundu zigun ere taldiak...”* (Bertsolaria2)

*“nik ustet talde babes hori izan dala netzako klabia, ezinbestekua pixkat, plazaratze hortan indarra ta babexa sentitzeko...”* (B4)

Behin oholtzara iritsitakoan ordea hango joku arauetaz ohartuta gehiago kostatzen zaie handik jaisteko gogoari eustea. Oholtza gainean egoteko halako lidertza bat izatea beharrezkoa da, inizatiba, proposamenak egiteko prestutasuna etab. Horretarako egiten dezun hori zuretik egiten den zerbait dela sentitu behar duzu. Baina oholtzan ordurarte egiten zena imitatzeak hainbat emakume bertsolari lekuz kanpo sentiarazi ditut eta ondorioz bertatik atera eta ixilik gelditu dira.

*“Artista batek ezin du sekula inkoszienteki eon oholtza gainian, ni ateatze nitunan esaterako lidertasunan kontzientzirik gabe (...) ta nik itenun ezkutatu, urrutiratzeaino eta neska askok in due ixildu eta desagertu... etzeala inkluituta sentitzen (...) ze bertsokera sententziosua segurunez ez da guri emakume bezela balio ziguna* (Bertsolaria1)

*“Ez dinat asmatu neretik kantatuta komunikazio polit bate eukitzen [elkarteetako jendeagatik] (...)oain Bartzelonatik bueltakon arrazoi bat ber ninan bueltatzeko plaza, zeoze esatia, edo zeoze esateko eukitzia edo neretik kantatzia ta nola ez dinaten sekula in benetan ba kriston akojonoa emate zian...”* (Bertsolaria3)

Oholtza gainera igota dohai konkretu batzuk dira bereziko baloratzen direnak, arrazoi potoloak botatzea, besteei barre egitea eta altu eta segurtasunez kantatzea

---

<sup>42</sup> Ibidem



besteak beste. Nolabait oholtzarako bidea egin duten emakumeak oharkabean beren janzkera edo jarreretan ezaugarri maskulinoak ageriagoan jartzen saiatu dira, azken finean hori izan baita txikitatik bertsolaritzaz jaso duten irudia.

*“beti esatezizuen.. ireki hankak, altxatu paparra ta kantatu fuerte lizaso bezela.. Esangoizu 8 urteko haur bateko edo 12ekuak zer zerikusi dakan holako ereduakin...” (B1)*

*“bertsolarik, gure generaziokok ez geala bate femeninak, nik uste ez dala kasualidadia... eske gona batekin igo ezkerro seguru haukenan lelen agurra, bigarren agurra ta hirugarren agurra horri buruz... ta asumitzeko ere ba.. joe.. igual 16 urtekin ez dakan gogoik hori asumitzen hasteko, ta igual nahio den grisez jantzi, beltzez jantzi, bakeroz jantzi... ta igual ez arropa bakarrik, izaera kontun ere bai..” (B3)*

Bertsolaritzak orainartean izan dituen ezaugarri hauek ez dira bereziki emakumeei lotzen zaizkien ezaugarriak eta agian Sarausa eta Egaña kanon hauetatik ateratzen diren bertsolariak izan direlako elkarrizketatu ditudan 4 bertsolariek Sarasua aipatu dute euren erreferente moduan.

*“Sarasua ta Egaña... ta segurasko ereduik femeninoenak izatia, suabeen kantatze zutenak, bertsokera iradokitzaileena zutenak, egia absolututik urrunenak zaudenak, galdera gehien probokatzen zituztenak... segurasko ez da kasualidadia hoiek gustatzia gehiena... Segurasko emakume gehienoi galdetu, bertso munduan gabiltzanok, ta gehientsuenok erantzungo ditugu bi bertsolari hoiek ta ez da kasualidadia...” (B1)*

Nahiz eta beste bertsokera bat egiten zuten bertsolarien erreferentziak eduki, beharrezkoa da emakumeen erreferentziak ere egotea. Orainartean Historian zehar oso emakume gutxi aritu dira bat batean plazetan kantari eta ondorioz bertso eskoletako neska gazteek ez dute ia erreferenterik eduki. Arantzazu Loidi eta Maialen Lujanbio izan dira oholtzan ikusi ditugun lehenengotako emakumeak, eta hauek hainbat emakume bertsolari gazteri ohartarazi die eurak ere igo daitezkeela oholtzara eta bertsotan egin.

*“Eta ni gogoratzen naiz lelengo mailan ikastolan, nik 6 urte neuzkanian gure andereñoa zanak nola esan zun, grabatuta dakat, Arantzazu Loidik irabazi zula eskolarteko bertso txapelketa... Ta ni ez nitzan bertso zalia, gure etxian etzeon bertso afizioik, baino nik hori goguan dakat” (B4)*

*“gu txiki txikiyak ginanian eskolarteko txapelketan Maialen ikusi kantari eta buruak klak in zigula eta esan genula “ah klaro eske neskek ere kantatu dezakete” (B2)*

Oholtza azken finean emakumeentzat itxita egon den eremua izan da orainartean, eremu publikoan protagonismoa gizonen izan dute eta ondorioz bere burua bertan esponentzeko prest dagoen emakumeak oso ziur egon behar du egiten duen horretan. Ez dagokizun espazio bat okupatzea justifikatzeko modu bakarra egiten duzun hortan oso ona edo ezin hobea izatea da. Justifikazio honen beharra oholtzara igotzen diren ia emakume gehienek sentitzen dutela esango nuke. Autoexijentzia izugarria dute, bertso onenaren bila ateratzen dira eta zerbait gaizki ateratzen bazaie ez diote euren buruari hain erraz barkatzen. Emakumeok besteek esango dutenaren inguruko kezka izugarria dugunez publikoak egingo duen epaiatz asko kezkatzen gara, kasu askotan oholtzatik jaitsi eta ixiltzeraino.

*“oso exijenteak gea, betso perfektua, ideala, exijentzi bat da... bota behar dezu onena, eozein saioekin inor ez zeon konforme” (B2)*

*“sinistu in ber dezu esateko dakazuna interesantia dala, jendiantzat interesantia izan laikela (...) ba ez dagokizun leku baten baldin bazaude hor eotia justifikatzen dun bakarra da besteak haina on edo hobia izatia” (B4)*

Bertsolaritzan ordea iraultza nahiko garrantzitsua gertatu da emakumeak sartzearekin batera. Azken finean arte eszeniko honek benetakotasun bat irabazi du gizartearen aurrean eta emakumeei ere irekia dagoen itxura ematearekin gaur egungo errealitateara egokituta dagoela dirudi. Arte eszenikoak errealitatearen isla badira bertan emakumeen parte hartzea ezinbestekoa dela ezin da zalantzan jarri. Hala ere gizartean gertatzen den bezela, joku arauak “gizonenak” dira. Eremu publikoa euren arabera antolatuta dago eta emakumeen presentzia beharrezkoa izan arren ez dute behar adinako protagonismorik hartzen, ez da euren errealitatea ezagutarazten eta “emakume” izatera mugatzen dira.

Gaur egun politikoki zuzena bertso saio bakoitzeko gutxienez emakume bat egotea da, eta normalean kupo minimo honekin antolatzen dira jaialdiak, gizon bertsolariei deituz orduan izen abizenak dituzte eta emakumeek ez hain nabarmen. Horregatik “emakume” izate hutsagatik deitu zaien sententzia izaten dute batzutan eta

beraz eurak baloratzeko orduan ere publikoak ez duela besteekin duen neurgailu berdina erabiltzen sentitzen dute.

*“Deitzen die lanku-tik ta esaten die “hi ekarri zak emakume bat” (emakume bertsolari bat), guk ez diou deitzen Maialeni ta esan, “bueno eta ekarri zazu gizon bat...”” (B1)*

*“ba gu kuriosidade bezela tope ibili gea, batez ere hasieran, gaztetxotan... ta hori azkenian badirudi diskriminazio positiboa dala baino buelta ere badauka ez? Ta hori Andoni Egañak esatezun esaldia da, emakume bertsolarik deitzeko garaian positiboki diskriminatzen dala baino baloratzeko garaian kontrakoa gertatzen dala... Baloratu izan gaituzte ere kuriosidade bezela eta ez iten genunagatik” (B4)*

Emakumeak oholtzara igotzean nahiz eta agian euren ezaugarri “maskulinoak” ageriagoan utziz igo, ez zaie berdin baimentzen gai batzuen inguruan kantatzea. Zenbait hitz gogorregiak iruditu ahal zaizkio publikoari emakume baten ahotik ateratzen direnean. Nolabait emakumeek esan dezaketenaren neurria zehaztuta dago, eta ez da gizonak esan dezaketenaren berdina. Indarkeria edo sexua aipatzerako orduan ez dira berdin entzuten emakume eta gizonak eta honek publikoak emakume eta gizonekin egiten duen desberdintasun inkosziente hori agerian uzten du.

*“Ba etzekinat final hortan zan; gaia hunan bakarkakoan, etxea sartu ta xagu bat topatu nula ta nik kantatu nun xagua akatu ingo nula ta urte guztian etzitzaiten ahaztu edukiz hain neregandik urruti zeon gauza bat kantatu izana eta gero emakume batek “akatu”, “akabatu” hain ekintza bortitza transmititu izana(...) etxekuek ere kaña eman ziten, ba fintasunetik urruti zeon zerbait kantatu nula (...) beira ze epai zorrotzak (...)Hori mutil batek kantau bazun iñok etzion ezer esango ez bere gurasuek ezta beak ere ez bere buruai segurasko... emakumiak dakan marjena askoz ereestuagoa da.” (B1)*

*“neurri jasangarritan aitu ezkeo ondo baina neurria beti beaiek jarritakua, .kasu hontan publiko masak” (B4)*

Eta emakumearen hitzetan dagoen sinisgarritasuna ere askotan jartzen da zalantzan. Badakigu gauza bera neska batek esan edo mutil batek esan oso desberdin entzuten dela, eta hau bertsolaritzan ere nabarmentzen da. Emakumeok geure hitza gutxien ikasi dugu, guk esateko duguna ez dela hain garrantzitsua pentsatzen dugu,

orainartean oso gutxi hitz egin baitugu publikoan. Entzulegoak ere guzti hau barneratuta dauka eta emakumeak epaitzerako orduan bere sinesgarritasuna zalantzan jartzen du.

*“gauza gogorrek ikusten dituzu ere bai, azkenengo txapelketan ere bai, kuestionatzen dian gauzak dia sinesgarritasuna eta hoi dena, hoi ez da berdin onartzen (...) Nei adibidez Miren Amuriza gustatu zitzaidan pila bat, joe eta gero entzun biharra bertso mundukoa dan pertsona bati esaten “joe baino, neska gazte baten ahotan esaten ditun gauzak ez dia sinisgarriak” (...) Bertsoa bota dun pertsona izan behar da gizonezko bat 30 urte dakana, [bertsoak] “poso” bat eukitzeko (...) finalea oso jende gaztea iritsi da mutilak gehien... baino hoiak badakate, hoiak eusten diote bertsoari, baino neska gazte batek ez dio eusten edo...?joe.(...) autoridadia irabazi ein biharra” (B2).*

Entzulegoaz gain geuri ere kostatu egiten zaigu esateko dugun hori garrantzitsua dela sinistea. Sexu genero sistemaren bidez barneratu dugun ezaugarri garrantzitsuenetako bat “ez nabarmentzearena” da, eta publikoan hitz egitera ausartze hutsak horrekin apurtzen duenez beldur handiarekin ematen dugu gure iritzia jendaurrean.

*“neskak ez daudela orohar nabarmentzeko hezita ta jendaurrean hitzeiteko, beren hitzaz seguru sentitzeko, gure hitzaz seguru sentitzeko hezita. Edozein mahai ingurutan ere beti ba... “nere ustez”, “ez dakit”... eta beti barkamen eske hizketan itia...” (B4)*

Eremu pribatuan hitz egitea, iritzia ematea, etab. beti erosoagoa izan da emakumeontzat eta horregatik publiko bat aukeratzeko orduan emakume bertsolariek nahiago dute nolabait euren eremu horretatik gertu dagoen jendearen artean kantatu. Euren hitza errazago ulertuko delako, gehiago baloratuko delako eta besteak beste sinesgarritasun hori irabazteko eta jendearengan eragiteko hainbesteko esfortzurik egin behar ez dutelako.

*“ta publiko bezela, zenbat eta hurbilo nire pentsamendutik hobe, nolabait ere konexio bat daona ba eskertzen dala...” (B3)*

*“Nik nahio det publikoa 8000 gauza esplikatatu ber ez dizkiozunak, ta ordun ba zein da? pixkat zuregandik gertu xamar daona...” (B2)*

Hala ere bertsolaritzaren barruan publikotasunak balio handia du, eta beraz jaialdi handiek garrantzi handiagoa hartzen dute. Berezi bertsos txapelketak dira nolabait bertsolariei prestigioa ematen dieten bertso saioak eta zentzu horretan “lehia” bertsotan

ere prestigioa lortzeko bide bat izanik eta lehiakortasuna gaur egungo jendarte eredian ezaugarri “maskulinoa” dela kontuan hartuta bertsolaritza “gizonen balioetatik” gertuago dagoela esango nuke.

*“nei konpetitibidade giroak kalte ite zian, bizin kalte..., ez naun bate konpetitiba (... )ordun etzionat jartzen bate objetiboik neure burui ta horrek ere kalte ite zian” (B3)*

*“Ta gero gu ez gea bate lehiakorrak izan, ez dakau bate garatuta lehian asunto hori.. osea ... gea... anti-lehia... Eta txapelketa guztik eta zian sufrimendu bat...” (B2)*

Bertso txapelketak duten garrantziagatik errekonozimenduarekin lotuta egon dira. Hontaz baliatu behar izan dute hainbat bertsolarik euren errekonozimendu publikoa lortzeko. Entzulegoaren parte bat ez litzateke emakume bertsolarien kalitateaz ohartuko hauek txapelketetan egin dituzten lorpenengatik ez balitz. Honen arrazoia lehen aipatu bezela emakumeei arretarik ez jartzean oinarritzen da, edo euren hitza gutxiestean. Ondorioz emakume bertsolari batzuentzat txapelketak nolabait baliagarriak izan dira euren errekonozimendu hori lortzeko.

*“txapelketa nik ere erabili izan det nere rebindikazio espazio bezela, hortako txapelketan prestigioa pixkat aprobeztatzia, eskaparateik handina dalako ez? (...) hementxe erakutsi behar da ta... bi aldiz ona izan behar badeu behin ona izateko ba hementxe (...) reto pertsonala igual errekonozimenduakin borrokan (...) nik Gipuzkoako txapelketa irabazi nunian periodikuan atea zan; “bertsolari baten konfirmaziua”... ta bale gaztia nitzala, baino urte pilo bat nemakin ia bertsotan” (B4)*

Bertso txapelketetan duten “lehiakor” izaera hori ez izan arren beste bertso jaialdietan ere hainbat elementu agertzen dira bertsolaritza nolabait “gizonen munduarekin” lotuta dagoela ziurtatzen digutenak. Kantatzeko moduak, gaiak, doinuak, oholtzatik kanpo duen jendaurrekotasunak... hainbat emakumerentzat ez da erreza mundu horretan kantari jarraitzea eta euren lekua topatzea. Zailtasunak zailtasun nolabait euren tokia egin dutela dirudi eta gaur egun hainbat aldaketa eta egokitzapen egin beharra dagoela ikusten da... bertsokeran, jaialdien izaeran, gaietan, etab.

*“Uste det pixkat impermeable eon naizela tema horrekin (...) horregatik ez nautela zenbait gertakizunek mindu gehiegi... Mindu ba, etsitzeaino mindu ez..?” (B4)*

*“Oaindik ustet espazioa oso mugatua dala ta gero espazio mugatu horren barrenen gure estrategia izan da errekonozimendu bat irabazi beren hizkuntzan edo beren joko arauekin (...) eta gero errekonozimendu bat izandakoan saiatu espazioa irabazten ta zabaltzen ta beste zerbait ere lehenago igual onartuko ez litzakeena erakusten...” (B4)*

*“zuk kantatzen dezuna benetan kantatze bazu jendiai alleatu iten zaio ta jendiak jarri iteu belarriya... baina erakutsi digute maskaretatik kantatzen, ez digute erakutsi biluzten eta hortik kantatzen...” (B1)*

*“nik Ainhoakin kantatzen detenin ia Miren naiz... beti pentsatu izan dinat netzako oso diferentia zala neska batekin kantatu edo mutil batekin kantatu, eta beti nahi izan dinat neskakin kantatu gehi, ze ez gauden ohituta, saiotan beti haiz hi neska bakarra...”(B3)*

Bertsolaritzak oraindik asko du egiteko emakumeak eroso sentitu eta eurenetik kantatzen ari direla sentitzeko. Nolabait bazter ikustezin batean ezkutatuta dagoen “emakumeen mundua” ikusazaraziko duen bertsolaritza eredu bat eraikitze dago oraindik, emakume bat baino gehiagoz osatutako bertso saioak, emakume eredu desberdinak protagonistatzat izango dituzten fikzioak, gaiak, doinuak, publikoarekin egiten den interakzioa, umorea...

*“Nik uste dut badala garaia hasteko gure artian bildu ta saio batzuk in beste era batekuak ta zure burua hortako prepatu ta entrenatu, ta beste gauza hoiek lantzen hasi...” (B2)*

Bertsolaritzan nolabait gizarte publikoaren ispilu da eta pribatutasunean, ikusezintasunean garatzen den mundu oso bat dago bertsolaritzak bere baitan barnebiltzen ez duena. Oholtzara igotzen diren emakumeak nolabait eremu publikoan “emakumeak” duen papela betetzera igotzen dira. Eta gaur egun oraindik “emakumea” izatea da gure papera, ama, alaba, emaztea... Ez daude perfil desberdinetako emakumeak irudikatuta, ondorioz oso motza gelditzen da emakume baten azaletik erakutsi diezaiokezuna publikoari.

*“zu zea bere andrea, beti dia holako gauza huts bat (...) zuk 65 urteko emakume feminista baten barrun kriston kontraesanak landu ditzakezu, baino zu zea gizona ta zu zea bere andrea... hor ze kontraesan landu behar dezu?” (B2)*

*“Nik ustet emakumen pertsonajia ere jakinak diala oaindik, oso planuak... Emakumeei planteatzen zaizkigun rola ñabardura gutxiko pertsonajiak diala. Ta gero zuk emakume rol batetik jendeakin konektatzeko, jendeako konpartitu behar du rol hori, jendeak ikusi in behar du zu ze pertsonaje zean eta ean burutan ere ikusi in ber due(...) Ba zinian pasatzen dan bezela ez? Neska da; “la chica de la película” neska... Zure pertsonajia zer da neska izatia...? Gizonen pertsonajiak askoz ñabardura gehio dituzte” (B4)*

Eta saio bakoitzeko emakume bakarra egoteak ere azken finean hauxe isladatzen du. Jendartean errekonozitua edo ezaguna den emakume perfil bakarra “emakumea” izatearena dela.

*“Silveira da punkya, Amets da intelektuala, Ion Martin da sensiblerua, beste bat da kirolaria bestea ez dakit ze ta bestea baserritarra, ta emakumeak...” (B3)*

Gaur egun oraindik badirudi jendartea ez dagoela prestatuta emakume eredu jakin batzuk ikusarazteko. Lehenago aipatu dudan moduan zenbait hitz edo txiste baliteke emakumeen ahotan onargarriak ez izatea, nolakoak ez dugun izan behar ere barneratuta baitugu eta ondorioz muga estu horietan barrena mugitzen dira emakume bertsolariak oholtza gainean daudenean ere.

*“Iker Zubeldiak dun perfila dun emakume bat ze izango litzake? nik ustet ez gaudela prest hori soportatzeko... Iker zubeldiaren bertsokera, arrazoiketa, ideak botatzen ditun emakume bat ustet ez gaudela prest normaltasunez hartzeko... sozialki oso irudi txarra izango lukela, holako emakume ausartegi, ozenegi hitzeiteuna, nabarmendu zalia... hoiek dia emakume batek izan ditzakeen ezaugarri okerrenak gizarte hontan... nabarmendu zalia izatia (...) beti esaten da ez? “ hombre publico” ta “mujer publica” ze gauza ezberdinak dian...” (B4)*

Emakume eredu edo perfil desberdinak ezagutzen ez diren bezela, emakumeon egunerokotasunetik gertu dauden hainbat gai ere publiko generalarekin ez dira konpartitzen. Beraz ez da hainbat gairen inguruan hitz egiten, eta publiko generala ez dago ohituta, hilerokoari buruz, edo ginekologoari egindako bixitari buruz edo bi emakumeren arteko sexu harremanei buruz hitz egiten. Zerbait publikoan aipatua izateko garrantzia errekonozitu behar zaio, eta oraindik gue jendartean garratzitsutzat jotzen dena eremu publikoan egiten dena da, “gizonek egiten dutena”; politikagintza, ekonomia, futbola,.... Ondorioz, zaintzaren inguruan, edo etxeko lanen inguruan, edo...

“emakumeen kontu” bezala ezarri zaizkigun egitekoen inguruan hitz egiteak ez du publikoan aipatzeko behar adinako traszendetziarik.

Honek nolabait “gizonen gaiekin” kantatzera behartzen dituzte oholtzara igotzen direnak, eta aipatu gabe, irudikatu gabe geratzen den guzti hori berriro ere existituko ez balitz bezala gelditzen da.

*“Publiko general horrentzat kantatzen da ta horrek ezaugarri batzuk ditu, sorkuntzai ere eragiten dietenak. Erreferente batzuk erabiltzerako garaian, hori kalkulatu egin behar da, jendeak ezautuko ditun edo ez, edo gehienguak ezautuko ditun edo ez, bueno... kritika bat iteko garaian edo mila gauza...” (B4)*

*“Gai batzutan iaia hago obligatuta mutilan papela hartzea “zu zea futbolari bat eta herriko ekipoan jokatzeko dezu, oain real madriderik fitxaje bat iteko eskaini dizu eta dudatan zaude...” Hor ezin den neska baten paperetik kantatu, eske hala kantatuta ere (...) hori adibidez, gizartia aldatze ez dan bitartian beti izango den gurrpil zoro bat” (B3)*

*“falta dana betikoa da, emakumeen mundua publiko egitea ere bai” (B2)*

Umorearekin ere antzeko zeozer gertatzen da, umorea komunikatzeko tresna bat da, kritikarako baliagarria izan litekeen zerbait, azken finean emozioen bidez transmititzen denak marka gehiago uzten baitu, barrea eragiten duen orok atzetik zerbait gehiago transmititu izana ziurtatzen du. Kritikak gauza inportanteen inguruan egiten dira, beraz umorea egiteko hartzen dugun gaiak garrantzia bat errekonozitua izan behar du. Umorearen beste eginkizunetako bat nolabait mina eragiten duen zerbaitengandik askatzea da, hortik distantzia hartu eta bere garrantzia erlatibizatzea. Min hori gainditzeko lagungarria izan liteke umorea. Horretarako ordea, zerbait mingarria dela errekonozitzeko, berriz ere gai hori garrantzitsutzat onartua egon behar du eremu publikoan eta lehen aipatu dugun bezela emakumeon egunerokotasunetik gertu dauden kezka, eta arazoak ez dira publikoki garrantzitsu moduan ezagutzen. Askotan ez dira ezagutu ere egiten, beraz gaitegi hau oinarritzat hartuta honen inguruan barre eginaraztea oso zaila bihurtzen da.

*“nik ustet emakume askontzako umoria itia zaila izan dala, umoria egiten dalako publikoa eta bertsolaian artian adostuta daon termino batzutan eta klaro terminologia hori oso gizonezkuana izan dalako eta Virginiak esaten dun bezela gai batekin umoria iteko lehendabizi dramatasuna aitortu behar zaio eta ez baldin bada aitortzen gai bat drama dala orduan ezin da horrekin umoria in..” (B1)*



Umorean ukendu funtzio hau kontuan hartuta, nolabait norberarentzat garrantzitsuak diren gauzen inguruan barre egiteak norberarengan hori onartzea eta min horretatik sendatzea eragin dezake. Eta publikoki egiten baduzu barre zeure min baten inguruan, orduan publikoan daudenei ere eurenaren inguruan barre egin eta hortik distantzia hartzeko aukera ematen diezu.

*“Bada pixkat holako deskonpresio balbula bat bezela, holako ukendu bat, holako terapia popular bezelako bat ez?”(B4)*

*“Nik uste det umoria beharrezkoa dala gure barruak sendatzeko. Zerbaiti parre iten dioun momentuan, ai gea onartzen baita ere zerbait hori (...) umoria hola ikustet eta horrek esan nahi du inporta zaizkigun gaien inguruan in ber deula umoria.” (B1)*

Baino emakumeok geure buruetaz eta geure errealitateaz barre egiteko zailtasun handiak ditugu. Honen arrazoietakoa bat emakumeoi ezarri zaizkigun roletan ridikulua lasai egiteko aukerarik ez ematean ere badago. Baita ere, aurretik aipatu izan dudana bezala emakumeekin barre egitea oso zaila da emakumeetaz barre egiten ari zarela sentitu gabe. Errespetuaren muga segituan agertzen da eta publikoki onargarriak ez diren kontuak ateratzen dira.

*“Norbeataz parre iteko nik ustet emakumiai gutxi baimendu zaiola”. (B1)*

*“.. ta beti aipatzen ditugun mugak hor daude ez? Ba emakumei buruz parre eitia gehio kostatzen zaigula... daukagula holako sentsazio bat, ziria sartu ta hor nun dagon muga edo...” (B2)*

*“Emakume bati buruz umoria itia ere oso gauza delikatu da oaindik, sozialki jendeaurrian ba ezaugarri fisikoak aipatzia edo adina edo holako gauzak... ba gizonezkoen kasuan oso normala dana emakumeen kasuan oso delikatu da...” (B4)*

Nolabait emakumeok publiko batekin konpartituz geure buruaz barre egin ahal izateko emakumeon pertsonaiek ezaugarri ezagun gehiago izan behar dituzte. Azken finean umorea ezaguna den ezaugarri hauetatik abiatuta egiten baita, eta horretarako ezaugarri horiek publikoarekin konpartitu egin behar dira. Emakume eredu desberdinak ezaugarritu behar dira eta bere barruan dauden kontraesanak agerian utzi jendeak

identifikatzeko moduan. Bestalde bertsolariek elkarrekin ere barre asko egiten dute eta bata besteari adarra jotzen aritzea ohikoa da bertso saioetan. Umore hau egiterakoan ere publikoak ezagutzen dituen bertsolari horren ezaugarri batzuen gainean egiten da txistea, bertsolari bakoitzak publikoaren aurrean esterotipo markatu bat du eta horren aipamen, exajerazio edo distortsioarekin egin ohi da txistea. Kasu honetan ere nola emakume bertsolarientzat orainartean “emakume” esterotipoa baino ez den egon zaila izan da nolabait bere ezaugarri jakin baten inguruan txistea egitea eta umore mota hori konpartitzea.

Hala ere gaur egun emakume gehiago oholtzara igotzeak eredu desberdinetako emakume gehiago ezagutuko direla pentsatzera gararamatza eta “emakume” esterotipo hori pixkat zabalduko dela pentsa dezakegu.

*“Kodigo konpartitu bat behar da ta referentzi konpartitu batzuk... Ta zuk, holako [betiko] emakume, emazte, familiko topiko bat nolakoa dan irudikatu dezakezu ta jendiak parre in dezake baino beste era bateko hiru umeren ama eta tipo baten emaztea nola irudikatu jendeak ulertzeko moduan eta umoria in ginea horrekin ez? Falta zaigu oinarri hori, oinarri konpartitu hori...” (B4)*

*“Atea ber diezu bi rasgo eta komentaioa jakiteko era hontako emakumetaz ai da ez? Ta parre in gure buruataz e bai ta gure kontraesanetaz.” (B2)*

Gure buruaz barre egiteko zailtasunen artean biktimaren paperera lotu eta aldarrikapenak hortik egiteko dugun ohitura ere badago. Zentzu hortan geure buruataz modu lotsagabeago batean edo puskatzaileago batean barre egitea aukera bat litzateke. Biktimaren paperetik atera eta nolabait publikoarengan harridura eraginez umorea egitea espero ez den zerbaitetaz.

*“Bueno ba negarra ingo det hain exajeratuan parre ingotela negarrataz ere bai ez? Eta ez ibiltzea permisoa eskatzen. Ez permisotik eta biktimatik eta gaixotik... ez.. Horrei buelta eman behar dioula ez..?(...) txistea itea baita hortaz ere, saioko emakume bakarra izatean txistea itia ta ez “ba ea hemendik aurrea pila bat izate gean...” (B2)*

Baina bertsolaritzan ohikoagoa izan da beti besteetaz barre egitea norberetaz baino. Bertso afarietan, jaialdietan, batak besteari egiten dizkion erreferentzietan... Normalean umore objektua besteengan jartzen da eta besteekin egiten da barre. Eta

besteekin esatean batizbat gizonekin esango nuke. Izan ere errespetuaren eta burlaren arteko marra mehe hori dela eta oso zaila egiten baitzaie emakumeekin barre egitea, horren adibidea da bertso afarien bukaeran egiten duten erronda horretan emakumeei zerbait esateko izaten duten zailtasuna. Azkenean emakumeak normalean jolas horretatik kanpo gelditzen dira. Beste kontu bat da hor egiten den umoreak benetan zertarako balio duen edo interesgarria den hala ez.

*“ta emakumiak alleatzen dia ta benetan ez dakizu ze esan...” (B4)*

*“egin behar degu ronda bat eta deskojonatu behar gea aurrean daon publikuataz (...) oain zutaz parra ingo deu. ta oain zutaz ta oain zutaz... Ze kultura da hoi? Ez zait bate gustatzen, gusto txarrekoa iruitze zait” (B2)*

Umorea ze gairen inguruan egiten den erreparatuko bagenu, bertsolaritzan ere askotan jotzen da jendartean erdi tabuak diren gaietara, beldurra edo kezka sortzen diguten gai publikoetara... Euskal herrian gauden bezala egonik politika umorea egiteko lehengai emankorra izan ohi da. Sexuaren inguruan ere umore asko egiten da, baina kasu honetan askotan erortzen dira jendartean barneratuta dauden topikotan. Azkenean publikoarekin konpartitu behar horrek, orokorra den sexualitate eremuan oinarritutako txisteak egitera daramatza eta orokorra gaur egun gizonen sexualitatearekin lotuta dagoen eredia da. Ondorioz emakumeok sexualitatea bizitzeko dugun moduarekin zerikusirik ez duen umore mota bat egiten bukatzen dute askotan. Izan ere bertsolaritzaren ezaugarri berezia bere bat-batekotasuna da eta nire ustez erreza da bertsotan, bi aldiz pentsatzeko denbora izan ezker esango ez zenituzkeen kontuak esaten bukatzea. Aurretik hainbat gairen inguruan hauskarketak eginak izan behar dituzte, zer esan nahi duten eta zer ez argi eduki behar dute, filtroak ondo kokatuta izan behar dituzte euren buruetan eta zerbaiten inguruan abesterakoan euren pentsamendua filtro horietatik pasa.

*“Sexuana, ez tabu bat dalako, erdi tabu bat dalako baizik. Tabua balitz benetan ez luke grazik ingo, baino superazio biden daon tabu bat dalako, nola adoleszentzi fasen bezela gauden [grazia egiten du]” (B3)*

*“Emakume bakarria baldin badao ta bestiak gizonak baldin badia eiten den umoria bertikala da, falozentrikoa [barreak] ordun hor sexu kontutan ateatzen dana da edo sartu edo atea edo txortan in edo ez dakit ze... ez? (...)Ta hasi behar dezu beste alde kurratzen ta ordun ba igual sexualidadeai buruz hitzeiteko beste*

*era batzuk topatzen(...) zuk ez badakazu eje hori, ordun hasten zea besteekin eta azkenian bukatzezu gau osua hizketan entre ke atera, sartu, bai, ez, ligatu..” (B2)*

Hausnarketa hauen faltak askotan bertso saio baten norabidea markatzen du eta topikotan oinarritutako bertsoak bata bestearen atzetik entzuten dira. Berezi sexua inguruko gaiekin gertatzen dela esango nuke, azkenean emakumeen sexualitatea oraindik tabu handiegia da, ez da gai hori publikoarekin konpartitu eta ondorioz ideologikoki batere erosoak ez diren egoerak sortzen dira hainbat bertso saiotan.

*“ ... ta askotan benetan ikuskizun penagarri baten parte sentitzen zea, ideologikoki... Adibidez kasu bat, “plaia nudista batea jun zeate”, ta horren bueltan saio guztia, ba gorputza ta sexua ta nudismoa... baino oso modu merkian. Ordun holako ikuskizunen parte askotan sentitzen zea ta ze in holakotan? Oso zaila da...” (B4)*

Hala ere bertsolaritzan emakumeen presentzia areagotzeak ekarri ditu aldaketak bertsokideentzat, agian ez umorean bakarrik, zenbait gauza hausnartzerakoan ere bai. Alboan emakume bat izateak nolabait frenarazi ditu bertsokide asko, azkenean lehen aipatzen genituen buru barruko galbae horiek egin gabe izan arren momentua bertan oholtzan emakume baten presentziak sortu dizkie halako galbae batzu eta esan beharrekoa bi aldiz pentsatu ondoren esan dute.

*“Nik uste det emakumeen sarrera bertsolaritzan izan dala gizon asko frenarazi dituna, pentsarazi diena.. “ostia... nik hau ezin det honen aurrian kantau”. Beren buruak berkokarazi dituela. Nik uste det hortan beraiek ere oso esker onekuak diela.. (B1)*

Emakumeek ere “gizonen” gaiak erabili behar izan dituzten umorea egiteko, hauek baitziren publikoak ezagutzen zituen erreferentziak, ondorioz emakume eta gizonen oholtza gainean orainartean egin duten umorea antzekoa izan dela esan dezakegu. Baina hainbat gai aipatzerako orduan norbere bizipenek eragina izaten dute eta ziurrenez gai batzuen inguruan emakumeek ez dute hain erraz egingo umorea, edo ez behintzat errealitate hori bere larruan bizi ez duen batek egiten duen tonu berean. Umorea generalizatua beraz betikoa da oraindik, eta oholtzara igo diren emakumeak umore mota horretara ere egokitu egin behar izan dute. Ondorioz hori erreproduzitzea eta umore unibertsal hori, gizona dena, egitea normala da. Oraindik esploratzeko

dago beste gaitegi batekin egin beharreko umorea, ez soilik emakumeen aldetik baita gizonen aldetik ere.

*“gai batzuk diferente tratatzen ditugula emakumiak, beste bizipen batzuk euki ditugulako, hori ustet hola dala.... Baino umore generalizatuena bat dala ere bai.. (...) Eta igual gizonak ere sentitu litezkeela umore mota general eta standard horrekin itzota ez...? eta beaiek ere badaukatela motiboik beste zeoze bilatzeko...” (B4)*

Askotan kanturako erabiltzen diren erreferentzi eta gaiez gain nolabait emakumeen errealitatera hurbiltzeko eta errealitate hori jendarteratu edo berarekin umorea egiteko kodigoak ere falta dira. Hizkuntza bera jendartearen isla da eta zenbait gai ezkutuan geratzen diren bezela horiei buruz hitz egiteko, umorea egiteko edo hausnartzeko kodigo edo hiztegi bat falta da. Gaur egun egiten den bertsolaritza “gizonen klabeetan” egiten da, hizkuntza hortan kantatzera ohitu dira eta ondorioz emakume bertsolariak eurek ere zailtasunak dituzte zenbait gai aipatzerako orduan. Oholtza gainean erabiltzen den hizkuntza bera gizonen klabeetan sortutako hizkuntza da. Estitxu Eizagirre bertsolariak berak aipatu izan du kodigo horren falta, “Emakumera batua” moduan definitzen duen hiztegi horren hutsunea bertsolaritzan. Entzulegoak ere kodigo hau, bertan agertzen diren erreferenteak, konpartitza beharrezkoa da, azkenean bertsolaritza publikoa eta bertsolarien arteko komunikazio bide bat baita eta beraz ulertua izateko bertsoa egingo den hizkuntza ulertzea ezinbestekoa baita.

*“ba erreferentzi konpartitu batzuk eukitzia, erreferentzik eta oinarri bat eukitzia, nolabait komuna ez? Ez bakarri bertsolarin artian, jendian burutan ere bai... Bestelako emakume pertsonaje batzuk ulertzeko garaian... bestelako tematika batzuk entzuteko garaian, ba pixkat gure espazio reala, gure bizitzan bizi ditugun espazio hoiek denak plazara ematia (...)Eta denok hitzein ahal izatia noski, ez emakumeek bakarrik baita gizonak ere, eta entzuleak hori jasotzea, hori konpartitza eta hori ulertzea” (B4)*

*“danok dauzkagu kuadrilan esaldi bat askotan errepikatzen dana ta jajajja.. ta danok dakigu ze gauza sugeritzen dun horrek ez? Gizonezkotan hoi daon bezela ba...” (B2)*

*“Kodigo ezagun baten gainian errexo sortzen da, ia badazkazu mekanismuak kodigo ezaguna baldin bada” (B1)*

Bertsolaritzak emakumeei tokia egin diela esateko oraindik urrats asko eman behar ditu. Ez soilik gaien inguruan edo kodigoen inguruan. Badirudi emakume bertsolarien kopurua handitu izanak nolabait bertsolaritzan eman beharreko aurrera pauso guztiak eman direla, baina oraindik asko dira plazetara atera gabe gelditzen diren emakume gazteak, edo bertso saiotako emakume kopurua ez da behar bestekoa, ez dira hainbat emakume eredu bertsotan ikusten, emakume helduak, haurdun daudenak... orduategiak eta plazak ez daude emakumeen errealitatera egokituta,...

*“ Ia sektore bati iruitu zitzaien iasta... in beharrekua in zala. “badia bertsolarik... ze gehio nahi due?” (B3)*

*“Oaindik 10etik 9 gizonaek dia” (B1)*

Oraindik emakumeen gune hori eraikitzeke dago, azken finean bertsolaritza gizartearen parte da, baina gizarte eragile bat ere bada eta bere eginkizuna izan behar du jendarte honen baloreetan eragitea. Publiko generalak betikoa den zerbait espero arren pixkanaka beste zerbaitetik eman ezkeru hau barneratzeko gaitasuna badu eta bertsolaritza horretarako tresna bat ere izan beharko litzateke. Ez dibertsio hutserako zerbait, baizik eta eraldaketa sozialerako tresna bat. Ez dut esan nahi beti “politika” egiten aritu behar dutenik bertsolariek baina kontuan hartu beharrekoa bada zer transmititzen duten eta publikoarengan zer eragiten duten. Publikoa ez da aldaezina den masa zurrun bat, publikoa hezi egin daiteke eta zure ibilbidea koherentea bada egiten duzun hori ulertu eta barneratu dezake.

*“Publikoak, ohituta daon umoria iten denian beti oso ondo reaktionatzen du, ohitu gabe edo diferentia dan zerbait ematen diozunean zure sinesgarritasunan arabera hartzen du... Zure ibilbidia koherentia bada, lendabizikuan borrokatu in berkozu, bigarreguan e bai, baino laugarreguan harrapatu ingoizue” (B1)*

Azken hamarkadetako ibilbideari erreparatzen badiogu, garbi dago publikoa nolabait hezi egiten dela, errealitate berrietara egokitzen dela. Lehen emakumeak bertsotan kuriositate bat baino etziren eta paternalismoz tratatzen zituzten askotan, gaur egun bertsolaritzan beste leku bat bereganatu dutela esango genuke eta bertsolariak izatea errekonozitzen zaie nahiz eta oraindik oholtza bera emakumeon errealitateetara egokitzeke dagoen. Bertsozale elkarteetan genero talde bat ere sortu da eta gai hau nahiko bizi dagoela dirudi. Ondorioz hainbat emakume bertsolariren lanari esker zenbait gizon

ere pentsatzen jarri dira aldaketa baten beharraz, ulertu nahi dute zer gertatzen den eta gai honekiko irekitasuna badagoela ematen du nahiz eta askotan ez den erreza ulertaraztea eta oraindik asko dagoen lantzeko.

*“Ondo hartu zuten [emakumeak bertsotan hastea] baino (...) gure edadeko mutilak eta gu ez ginuzen berdin tratatzen bertsolari helduek adibidez... gurekin oso paternalistak zian. Gu urtitan ibili gea curiosidade bezela” (B4)*

*“Hemen geunden [emakume eta gizonak toki desberdinean] ta oain bertsolaritzak eon ber du hemen erdiyan ta hori da landu ber dana ta ez du balio hemen [gizonen espazioan] lekua lagatzia, ta hori da klabia” (B1)*

*“eta igual guk esaten dieu edo adierazi nahi dieu ze... ez dia gauza bistakuak, ez dia gauza matematikuak... dia sentsaziuak, dia bizipenak... Eta ordun saiatze gea adierazten ta beaiek ulertu nahi dute baina ez dute entenditzen... “eske uzte”.. “eske ez dizut ondo entenditzen, ze pasatzen da? joe berdin kobratze deu, saio kopuru berdina ite deu... ze pasatzea?...” “ia baina ez da hori, da sentsazioa...” Ordun guri kosta ite zaigu esplikatzea ta beaiei kosta ite zaie ulertzia ez. Oaindik ez dakaula diskurtsua ondo eraikia esplikatzeke ta nik ustet orokorrian jarrera ona dala, ta sensible daudela, ta beaiei dagokienez ere [gizonei]badakite maniobra in behar dutela, ta aldatu in behar dutela, ta prest, baino ez dakitela nundik...” (B4)*

Bertsolaritzak eman beharreko egokitzapen horretan gaur egun erronka berriak aurreikusten dira, emakume gazteak heldutuko dira eta ikusteko dago bertsolaritzak ze toki egingo duen emakume heldu hauentzat, edo ama diren bertsolarientzat edo... guzti hori egituratzeko dago oraindik...

*““kultura ez da umeentzako”... bale ba umeentzako ez bada ama guztik fuera! Porke realidatea da umeekin amak daudela gehienetan...” (B2)*

*“ta gero etorriko da edadiak dagozkionak ere ez [egoera berriak], bai amatasunai eta bai edadiak dagozkionak... Emakume heldu bat ez deu ikusi plazan, horrek ekarrikou beste rollo bat, beste irudi bat..., gizartian nola jasoko da 50 urteko emakume bat bertsotan?ze esangou?,ze esango zaio hari? Ze umore ingo da eo nola jasoko da ama izan berri bat astebururo plazatan gauzez ez dakit ze, bakit ze kantari? nola ikusiko da hori? edo bere tripakin edo dana dalako hori? klaro ba mugarri berrik daude ta hoi dena dao esploratzeko ta aliziente handiya da.” (B4)*

Orainartean bai bertsolaritzan eta bai euskal kulturaren emakumeek egindako ekarpenak ikusezintasunean geratu dira. Maila pribatuan egiten dena eremu publikoan ezezaguna izaten jarraitzen baitu. Gutxi baloratu eta errekonozitu da emakumeek

urteetan zehar egindakoa eta hau aldatu beharreko zerbait izango da. Bertsolaritzan Maialenek egin duen ekarpena asko baloratzen dute elkarrizketatu ditudan emakumeek, ez txapela jantzi izanagatik bakarrik, bereziki bertsokerari eman dion bueltagatik, estilo aldetik... eta beste arrazoi askorengatik ere bai ziurrenez.

*“Bueno emakumian protagonismoa euskal kulturaren esango nuke nulia izan dala, bistara esan nahi det (...) igual kriston lana in dute emakumiak baino ez dia ezagunak (...) aurrekun huezi-n in genun “euskal kulturaren transmisioa” graduondoko bat euskal kulturgintzari buruz ta irakaslien artia igual 30etik bi emakume edo zauden (...). bere buruai buruz hizketan bakarra” (B4)*

*“bertsolaritzan nik usteñat maialenek in duna jesukriston aportaziua dala, bertsolaritzan eh... neutroki... ez genero ikuspegitik. Bertsolaritzan estilo aldetik...” (B3)*

Hau da beraz gaur egun emakume bertsolariek oholtza gainean aurkitzen duten errealitatearen zati bat. Aldatu beharreko elementu asko ditu eta dirudenez horretarako jarrea egokia dago nahiz eta oraindik behar besteko kontzientzia lortzeko zailtasunak dauden.

### **3.3. Emakumeak antzerkian.**

#### **3.3.1. Emakumeen ibilbidea antzerkigintzan.**

Antzerkigintzari dagokionez ere ez da denbora asko pasatu emakumeak antzerkia egiten hasi zirenetik. Gogoratu besterik ez dago Shakespeare famatuaren antzerkietan ere nola emakumeen paperak ahots fineko gizonak betetzen zituzten.

Europako lehen emakumezko antzerki idazle moduan Hrotsvitha de Gandersheim agertzen da. X. mendean Sajoniako lurretan bizi izan zen emakume bat da, bere jaiotze data 935 ingurukoa izango zela kalkulatu da. Gandersheim emakumez osatutako monastegi batetan bizi izan zen, eta horri egiten dio erreferentzia bere izenak. Etzen monja bat izan, kanonesa bat baizik. Bere klase soziala zela eta obedientzia eta kastidateko botoak eman zituen baina ez pobreziarena. 1007. urterarte Gandersheim abadia obispoen boteretik kanpo egon zen. Obispoen agindupean jarri ziren garai hartan sortu ziren Sajoniako emakumeen abadia handientzat zailtasunak. Hrotsvithak idazten zituen historiak ez zeuden moralarekin lotuta eta emakume eta gizonen arteko erlazioak erabili zituen bere istorietako argumentuak osatzeko. Morala atzean uzten



zuen umorearen bidez, hunkitzen duen umore motaren bidez idatzi zituen prostituzioari edo nekrofiliari buruzko hainbat historia. Inor mintzeko arrazoirik eta intentziorik gabe egiten zuen bere lana eta honela idatzi zuen berak bere ipuin batzuen hasieran.

*“Porque si se me objeta que ciertas cosas de esta obra estan sacadas de escritos que algunos consideran apocrifos, no hay aquí culpa de presuncion siniestra, solo una suposición ignorante: porque cuando comence a tirar del hilo de esta cadena, no sabia que ciertas cosas sobre las que habia decidido trabajar eran juzgadas dudosas. Y cuando llegue a saberlo me negue a deshacer el trabajo, porque lo que parece falso puede quiza mostrarse verdadero. Estando asi las cosas, necesito aun mas defensoras de mi obra final, puesto que al comenzarla podia confiar en demasiado pocas fuerzas propias.”<sup>43</sup>*

Euskal Herrira gerturatu ezkerre berriz 36ko gerra aurretik eta gerra ostean ezagutzen ziren aktore eta zuzendari emakumeak aipatuko ditut. Horietako batzuk dira Maria Arizmendi (Urnieta 1912), Janamari Malhardin (Donapaleu 1912) eta Miren Arrizabalaga (Ondarru 1911).1994ko abenduan argitaratu zen beraiek omentzeko liburua, bertan euren garai hartako antzezlanen eta egunerokotasunaz mintzatzen dira. Hirurek antzerkian hasteko arrazoia euskararen alde lan egiteko gogoan jartzen dute eta garai hartako emakumeek ere antzerkia egiteko zailtasun ugari zituztela aipatzen dute, lehendabizi etxeko lanak egin behar izaten baizituzten. Hiruren aburuz eurek ez dute inolako omenaldirik merezi, egiten zutena ez baitzaie hainbesterainokoa iruditzen. Miren Arizmendi Urnietan jaio zen 1912an. Bi urte zituela aita hil zitzaion eta sei anai arreba izaki aurrera egiten nahiko lan bazuten lehendik ere. Bera eta beste hiru ahizpa herriko batzokian hasi ziren antzerkia egiten, ondoren gerra etorri zen eta dena bertan behera geratu zen. Beranduago, gerraostean berriz hasi ziren baina garai hartan “Accion Catolica eta Mariaren alabak” galerazita zuten neska eta mutilak biltzea, horregatik parrokia inguruan ibiltzen ziren neskez osatutako talde bat egin behar izan zuten.

Beranduago 1965-66an Urnietako EGI BILA antzerki taldea sortu zen eta bertan eman zituen urte ugari antzerkia erakusten. Honela dio Aizpea Goenagak egindako elkarrizketa batean: *“Den denei, ordea, erakutsi behar izaten zien Mariak jende aurrean nola antzeztu, nola hitzegin eta nola azaldu”*.<sup>44</sup> Urte asko iraun zituen antzerki talde honek eta hori Mariaren lanari esker izan zela aitortzen dute bertako kide izandakoek. *“Mariagatik izan ez balitz talde hura etzen bizi izango. Emakume honek*

---

<sup>43</sup> BERNANDEZ A. Opc cit

<sup>44</sup> GOENAGA Aizpea. (1994) **Emakume egileak Euskal antzerkian** ,Donostia 1994.

*meritu handia du.*<sup>45</sup> Hala ere berak ez dio halako errekonozimendurik egiten bere lanari, egindako gustora egiten zuelako. “*Zer da ba hori egitea? Gogoz egiten nuen gainera eta batere meriturik ez dut. Gustora aritzen nintzen eta horrek ez du meriturik*”.<sup>46</sup>

Janamari Malharin berriz Donapaleun jaio zen 1912. urtean. 25 urterekin hasi zen antzerki munduan eta geroztik kasi etzela gelditu esan dezakegu izan ere 25 urtez aritu zen Mugerren eta 8 urtez Itsasun, guztira 33 urtez antzerkiaren alde lanean. Lehenengo antzerkiak irakurri behar izaten ziren, baziren euskal idazleak baina bestela euskeratu egin behar izaten zituzten, ondoren paperak banatu, buruz ikasi, dekoratua prestatu... dena jende gutxiren artean baina gogoz antolatzen zutela gogoratzen du.

Miren Nekane Arrizabalaga Ondarrun jaio zen 1911an. Arrantzale familiakoa zen eta gaztetan arrantzaleen sareak konpondu eta antxoak garbitzen aritzen zen lanean. Berak ere gogoratzen du nola galarazten zitzairen neska eta mutilei biltzea eta ondorioz emakumez soilik osatutako antzezlanak egitera behartuta egoten ziren. Berarekin batera antzerkia egiten zuten hainbat emakume ekarri ditu gogora “*Miren Aranzamendi, Rosario Zubikarai, Anita Urresti, Consuelo Bilbao, Roberta Arriola, Nati Bengoetxea, Miren Arrasate eta...*”<sup>47</sup> Beranduago “kresala” taldea sortu zen Ondarruan baina ezin izan zuen bertan parte hartu, izen berdineko ostatu batean lan ugari izaten baitzuen. Familikoen artean hartuta zuten eta berak egiten zituen sukaldari lanak.

Antzerkigintzan ere, historian zehar eta eremu publikoan ezagutzen diren emakumeen ekarpenak oso urriak izan dira. “El humor y la risa” 2007 Cadiz-en egindako arte eszenikoetako emakumeen topaketen ondoren ateratako liburuan Hrotsvitha izeneko emakume honi egiten zaio erreferentzia, eta Aizpea Goenagak ateratako liburuan hiru emakume hauek aipatzen dira. Garai haietan erlijioak izugarritzko eragina zuela ikusi dugu eta gerraostean egiten zen antzerkietan neskek eta mutilek aparte egiten zuten lan. Orduan ere emakumeek sormenaren eta kultur ekarpenak egitearen aurretik etxeko lanak edo beste betebeharrak jartzen zituztela ikusi daiteke, eta liburuaren hasieran aipatzen da ere euren etxeetan ez zutela ondo ikusten emakumeek antzerkia egitea. Hala ere beraiek egindako lana ez diote euren

---

<sup>45</sup> *Ibidem*

<sup>46</sup> *Ibidem*

<sup>47</sup> *Ibidem*

buruei errekonozitzen, eta omenaldirik ez dutela merezi pentsatzen dute, ziurrenez orainartean inoiz ez zaielako errekonozitu.

Gaur egun herrietako Amateur antzerki taldeetan emakume ugari dabilta aktore lanetan. Baina talde hauen egoera nahiko larria da, laguntza gutxi izaten dutelako eta telebista eta zinearen eraginez besteak beste, antzerkia azken urteetan gainbera datorren zerbait delako. Antzerkizaleen Elkartea (EHAZE) sortu da, Kafe Antzokian egin zuten aurkezpena 2010eko ekainaren 22an. Bere xedea antzerki amateurra bultzatu eta zerbait esaten duen antzerkiaren alde lan egitea da. Honela dio bere hasierako manifestuan:

*“Antzerkia norberaren egiak eta zalantzak konpartitzeko modua izatetik jarduera dekoratibo izatera pasatu da, denbora-pasazkoa, edo okerrago dena, merkantzia hutsa. Puska handi batean, hor legoke bai gurean eta bai munduan antzerkiak pairatzen duen krisiaren iturri nagusietariko bat: sozietatearen zereginean zeukan funtzioa eta zentralitatea galdu ondoren zentralitate eta funtzio subsidiarioetara pasatu izana..”*

Norberaren egiak eta zalantzak aztertzen eta konpartitzen dituen antzerki estilo bat Clown antzerkia da. Hontan aritzen den Virginia Imaz-ek dio clown ikastaroetara hurbiltzen diren gizon emakumeak nolabait sozializazioak izan dituen hutsune baten ondorioz hurbildutako gizon emakumeen perfilak direla.<sup>48</sup> Emakumeei dagokienez oholtza gainera igotzeko prest dauden emakumeak dira eta gizonei dagokionez berriz emozionalak eta sensibleak izateko prest dauden gizonezkoak dira. Hala ere generoaren eragina ikusi ahal izan dela nabarmentzen du. Emakundek ateratako aldizkari batean egindako galderari honela erantzun zion.

*“Oso desberdina al da gizon eta emakume clown-en jokaera eszenategi gainean? Bai, bai oso ezberdinak gara. Guk sedukzioaren jokua erabiltzen dugu, fragilitatea eta ahultasuna direla medio. Gizonezkoek berriz, bere ikuskizunetan txapeldun izatera, indartsuena izatera etab. jokutzen dute. Eta objetuekiko dugun harremana ere ezberdina da guztiz. Haiek oso objektu handiekin irteten dira taula gainera: eskilarak, instrumentu izugarriak,... guk berriz gure atrezzoak poltsa txiki batean daramagu eta horrekin nahiko dugu...”<sup>49</sup>*

Eta beste artikuluetan berriz honela dio:

*“En los talleres de clown que animo desde 1987, he tenido ocasión de ver multitud de improvisaciones y de percibir diferencias en el comportamiento de*

<sup>48</sup>IMAZ Virginia .(2005) “**El humor desde el genero**” Emakunde aldizkaria 59. zenb

<sup>49</sup> Ibidem

*mujeres y de hombres cuando salen a jugar en código “clownesco”,... puedo concluir que los hombres en general tienen una gran tendencia a apropiarse de todo el espacio escénico y acostumbran a moverse mucho, mientras que las mujeres tienden a plantarse y ocupan mucho menos espacio. Cuando experimentan un bloqueo, a menudo por autocensura emocional las mujeres se fugan hablando y los hombres moviéndose en ambos casos gratuitamente, en vacío. Los hombres tienden a trabajar con objetos grandes y las mujeres con objetos pequeños y sobretodo si es obligado. Los hombres prestan menos atención que las mujeres a su aspecto a la hora de improvisar y las mujeres invierten más tiempo y dudan más en la elección de su vestuario con el que han de mostrarse. Las mujeres tienen más facilidad para expresar, amplificar y mantener las emociones y los hombres más disponibilidad para los juegos corporales de equilibrio, acrobáticos,...*<sup>50</sup>

Antzerkian ere emakumeek oholtza gaina modu desberdinean bizi dutela islatzen du honek eta ondorengo puntuan gehiago sakonduko dugu emakumeek egindako antzerkiak eta umoreak dituen ezaugarrietan.

### **3.3.2. Emakume aktoreak oholtza gainean**

Antzerkia egiten duten emakumeentzat ere oholtzak sortzen du halako errespetu bat eta igo aurretik urduritasun eta beldurrak agertzen zaizkie. Lehenago aipatu dugun bezela eremu publikoa ez baita emakumeen eremua eta ondorioz hor egin beharrekoan benetan sinistu behar duzu bertara igo eta jendea esateko duzun hori entzuten jartzeko. Oholtzak beste guztiak ixildu eta zuri entzuten jartzen baiditu.

*“Gainera antzerkiyak hori du aberasgarriya. jendiak ixilik eon ber dula, ta bizitzan oso zaila da hori lortzia. Zu normalki hitzeitan hasten za, kontatu nahizu zerbait eta bat ez bada bestiak moztu iteizu..” (Aktorea2)*

Askotan, oholtzara igotze hutsagatik kritikatu izan dituzte emakumeak, Virginia Imazek trasgresio hirukoitza ikusten du emakumeak oholtzara igotze horretan. Alde batetik etxetik ateratzea eta beraz eremu publikoan zure presentzia ematea, bestetik, jendea, publikoa zuri begira jartzea, atenzioa zeureganatzea eta azkenik jolasten duzun papelean 3. espazio publiko bat irudikatu eta han ezartzea zure burua. Nolabait 3 aldiz sartzen zara eremu publikoan eta gaur egun oraindik emakumeok ez gaude publikotasun horretara ohituak. Ausardia handia behar da beraz “ez dagokizun leku horretan” egoteko. Askotan publikotik hainbat kritika edo burla jasotzeko arriskuak ere atzera bota izan ditu hainbat emakume aktore.

---

<sup>50</sup>Ibidem

*”Antzerkia hasi nitzanin nik eniyon inorri esan antzerkira apuntau nitzanik...”*  
(A2)

*“Baino nola euki det nik atrebentziye antzerki obra bat idazteko, hamar lagun mobida hontan inplikatzeko eta herriyen aurrien beste eozein pertsonana izango zan bezela obra bat aurkezteko...”* (Aktorea3)

*“Nei zeinek esan dit hemen sartzeko..”* (Aktorea1)

*“y mis compas las chicas, que a menudo juegan mucho mas sexys, les han dicho de todo y hay gente que entra crisis pero mogollon...”* (Aktorea4)

Arte eszenikoak jendartearen ispilu izanik antzerki edo telebistako programa konbentzionaletan agertzen diren emakumeek sexu genero sistemak ezartzen dizkien ezaugarriak betetzera behartuta daude. Edertasunaren kanonak hor daude eta gaur egun aktore izan nahi duten emakumeek euren gorputza asko zaindu behar dute mundu horretan aurrera egiteko.

*“.. ta hemen ez baldin bazea gaztia, politta, alta, begi udinakin ta rubia oso zaila zu ezer iteko... ordun karo, ordun ia nik banitun 45 urte ordun oso aukera gutxi nitun...”* (A2)

Baina beste mota bateko antzerkia, beste zerbait transmititu nahi duena egitean edertasun kanon hauekin apurtzeak barrea eragin dezake, azken finean gizarte arau batzuk transgreditzen ari baitzara, zeure burua erreferente bezela hartu eta honekin gizartean ezarritako arau bat trasgredituz kritika bat egiteaz gain, honek publikoan harridura eta grazia eragiten ditu.

*“ta gainea itxurari zenbateko garrantziya emateioun askotan ez? Ta jun naiz guztiakin puskatzea, ta ni, ni hau naz, ez naiz besteik...”* (A2)

*“naun “lo mas feo posible”, eta hor jendiai parria ateatze zaion ze ikusteizue ta esatue... “madre mia” ez? Baino ni hor oso eroso sentitzen naiz ze... “esto es lo ke soy”...”* (A1)

*“y con esas dos cosas empece a hacer mi primer espectaculo que era “modelo clowntrapublicitario” con lo que yo queria ser modelo de la tele... Claro, yo sabia, consciente de mis ciento y pico kilos, gordita, tachueta, diciendo que queria ser modelo de la tele... A la gente le daba la risa...porque la gente*

*pensaba; “pero a donde vas? como te van a coger a ti de modelo?” solo desearlo es una trasgresion de locos...” (A4)*

Oholtzarako bide horretan dauden oztopo guztiak gainditu eta aurrera egiteko nolabait beharrezkoa da aktoreak egiten duen horretan sinistea, zerbait transmititzeko gogoia izatea. Emakumeok orainartean ez dugu publikoki sentitu eta pentsatzen dugun horretaz aritzeko aukerarik izan, oholtza horretarako baliatzen ausartzen diren emakume aktore hauentzat egiten dutena besteentzat ere baliagarria dela sentitzea inportantea da. Besteek esan edo pentsa dezaketenari garrantzi handia ematen zaio, eta emakumeen kasuan gehiago. Barneratuta baitugu “besteentzat” izan behar hori.

*“Nik sinisten badut nik iten dutena ta eskerrak oaingoiz behintzat hola kritika gogorak eitut jaso... Ordun horrek emate nau indarra aurrea jarraitzeko, norbaitek zerbait zalantzan jarriko balike eo esango balike ba hau ez dijua ondo... igual....ez?” (...) eta klaro ondo sentitzenaz petsatsetelako lortzeutela zerbait transmititzia, neretzako hoi da oso potentia. Zuk esan nahizun zerbait entzutia jendiak, ta gainea txalotu iteizue ta ordaindu ere bai... kar kar” (A2)*

*“Nik uste det bidia denentzat hoixe izan ber dula...” in zuk zuria”, “netzako ta bestiai emateko, “ neretzako ez bada ez da besteentzako ere...” (A1)*

Emakumeok ez dugu ikasi geure buruan sinisten eta askotan ez gara ohartzen egiten dugun horrek duen garrantziaz, orainartean ez baitaigu behar beste errekonozitu esan eta egin izan duguna.

*“mi percepcion no era que la gente se riera conmigo... es la ostia... digo para que veamos el tema de la autoestima (...) porque la mentira interna es, “esto no es lo tuyo, no sirves” porque tu por dentro ya te estas diciendo que no. (A4)*

Hala ere naiz eta egiten duzun horretan sinistu eta zuretik eman oraindik kultura gizonen errealitatera egokituta dago. Adibidez ama izatean nolabait “sortzen” jarraitzeko aukerak gutxitzen zaizkie, sormen eredua ez dagoelako amatasunera egokituta. Hortaz gain oraindik etxeko lanek, zaintza lanek etab.ek emakumeen denboraren zati handi bat bereganatzen dute eta beste zereginei lehentasun handiagoa ematen diogu sormenari baino. Ondorioz oraindik gure sormena garatzeko zailtasun handiak ditugu.

*“bi alaba ittut eta karo, ordun zituzten 13 ta 15 urte... eta karo, orduarte emakume batek ezin du planteatu e ein ezer itia, bueno badia iten dutenak eh (... )amatasunak moztu iteizu bai” (A2)*

*“veo que las mujeres tenemos muchas dificultades para crear en general, las bailarinas, las musicas...Para encontrar una habitacion propia como decia Virginia Wolf. Es decir, un tiempo para crear, un tiempo, un espacio, una autonomia, una independencia economica... Y hay muchas que pinchan en el camino, que se ven obligadas a hacer otra cosa, cuando su vocacion era eso(...) pero hace falta mucho coraje y mucho tema de autoestima, de empoderarse a las mujeres, la creacion sigue siendo una historia pendiente” (A4)*

Bestalde oholtzara emakumeak igotzen hasi zirenetik ez da hainbeste denbora pasatu, eta bereziki umorea bezelako antzerki moldean oso emakume gutxi ikusi ditugu. Emakume umoregileen erreferentzia oso gutxi ditugu eta gizakiok imitazioz ikasten dugula kontuan hartuta ez dugu barneratu hori guk egin dezakegun zerbait denik. Telebista programetan, edo egunerokotasunean umorea eremu publikoan egin izan dutenak mutilak izan dira beti. Erreferente falta honek hainbat emakumeren buruetan “klik” bat egin eta gu ere umoregileak izan gaitezkeela ohartzea eragotzi du.

*“emakume Chaplinak euki izan bagenitu edo emakumezko Woody allen-ak eta gainera asko eta ezagunak dianak... ze agian eon dia baina ez dia ezagun egin” (A1)*

*“[emanaldi baten ondoren amona bat hurbildu zitzaion eta esan ziola]“queria felicitarte, me han obligado a venir aquí porque en toda mi vida jamas habia visto una payasa, no sabia que las mujeres podian hacer esto” (... )Esto me dio muchas claves; ella no habia visto ninguna payasa, que payasas habia visto yo? Ninguna... No tengo referentes...” (A4)*

Emakume sortzaile gutxi ezagutu izan ditugun arren, gaur egun badira eurenetik sortu eta emakumeentzat interesgarriak diren gaien inguruko erreferentziak taularatzen dituztenak. Norberetik sortzen denean bakoitzaren bizipenek eragina dute transmititu nahi duzun horretan. Horregatik emakume bezala ditugun bizipenen islada agertu behar litzateke egiten dugun horretan.

*“Yo creo que en una obra de arte se nota o deberia notarse de donde vienes, cuales son tus itinerarios, cuales son tus identidades, que deberia notarse (...) Si soy una mujer, lo raro es que haga un espectaculo que no tenga nada que ver con las mujeres...” (A4)*

Bertsolaritzan aipatu dugun bezela oholtza gainekoen eta publikoaren artean halako komunikazio bat dago eta ondorioz beharrezkoa da publikoak ezagutzen dituen gaiak oinarri hartuta sortzea. Umorea ere askotan aipatu dugun bezela erreferente ezagun baten distortsio edo exajeraziotik egiten denez antzerkian ere emakumeok egunerokotasunetik gertu dauden erreferenteetan oinarritutako umorea egiteko zailtasunak daude publiko orokorrarekin ez baitira erreferente horiek konpartitzen.

*“bigarren go hontan bola txinan presentziye zion, iten dinau tuper sex moduko bat ez? 3 emakumiek hitzeiten dine sexualidadiez normal, tabuik gabe, bola txinan presentzie zion baino bisualki... Eta honek [tekniko gizonetzko bat] hala esan zigunan... “joe hau greban gaude baino fuertioe den”..Ostra.. emakume bat imajinatzie... igual oaindik ez ditun imajinau, baino imajinatzie nola sartzen ditun bola txinak...” (A3)*

*“[En molestias cronicas] yo juego por ejemplo la visita al ginecologo. A menos que no sea ginecologo [un espectador varon] no tienen ni puta idea de lo que pasa en la visita al ginecologo. Como van a saber.. entonces claro... yo empiezo a jugar a lo que pasa y las mujeres estan pero atacadas de la risa pero...” (A4)*

Emakumeen erreferenteak ezagutzen ez dituztelako hainbat gizonen emakumeek egiten duten umorea ulertzeko zailtasunak dituzte, ez dira erreferente horiekin identifikatzen, ez dituzte ulertzen. Gizonen erreferenteak berriz “gizartearenak” direnez emakumeok horiek ezagutu eta horien inguruko umorearekin barre egiten ikasi dugu. Askotan udaletxetako kultura saileko programatzaileek “emakumeen erreferentziak” erabiltzen diren antzerkiak kontratatzeke errezeloa izaten dute, eurek agian ez dutelako ulertzen eta “emakumeen gauza” dela pentsatzen dutelako. Antzerki asko kultura arlotik kontratatu beharrean “emakumeen arlotik” kontratatzen dituzte. “Emakumeen gaiak” badirudi emakumeentzat bakarrik izan behar dutela interesgarriak, ez dutela lekurik eremu publikoan, ez direla interesgarriak “gizonentzat”.

*“Un tio que es programador me ve y ve que el publico se rie y piensa “si si, es buena...” pero no le parezco tan buena como si viene el fulanito tal (...) y no se da cuenta que su percepcion tiene que ver con el echo de que el es hombre y que yo soy una mujer...” (A4)*

*“Hay espectaculos que no se programan a nivel de cultura...” (A4)*



Beraz umore mota bat da orokortua dagoena, gai konkretu batzuen inguruan egiten dena eta publiko generalarentzat ulergarria dena. Baina antzerkiaren bidez gauza asko transmititzen dira eta horretaz baliatuz beste eredu batzuk ezagutarazi daitezke. Betikoa errepikatzearekin ez da jendarte eredu aldaturik, ez da lortuko nolabait publiko general horrek emakumeon errealitatea ere ezagutzea. Beste gai batzuk tratatu ta hoiengatik inguruko umorea egitea interesgarria litzateke. Emakumeen erreferenteetan oinarritzen den umorea egitean nolabait errealitate hau ikustarazten duzu, zaintzaren inguruko txiste bat egitean, “zaintza” zerbait garrantzitsua bezala ikusarazten da, edo lehen aipatu dugun bezala ginekologoari egindako bixita batekin barre egiten baduzu errealitate hori ikusarazten duzu.

*“si yo menciono al referente, lo visibilizo. Entonces me parece muy delicado que referentes utilizamos para visibilizar (...) El riesgo esta cuando tu eliges un referente que siendo universal no es valorado, no es publico no es conocido (...) es muy complicado pero es muy didactico, muy pedagogico (...) es recordar que hay mas realidades, recordar a la tribu que hay mas gente. Visibilizar lo invisible...” (A4)*

Gaur egun umorea tabu eta beldurren gainean egiten da, umore orokorra besteetaz barre egin eta lehenago aipatu dugun “normara egokitzeko” paper hori betetzen du. Baina posible da beste gaitegi batekin eta beste tonu batean umorea egitea... Entreenimendu hutsetik haratago doan zerbait eragitea publikoarengan... baina horretarako ereduak falta dira oraindik, nahiz eta pixkanaka antzerki mota berriak agertzen hasi diren.....

*“Ta igual badao umoria baino zuri etzaizuna interesatzen, eta pentsatzezu “joe nik hori ez det nahi in... baino ze ingoet...?” . Dakazu eredu bat, gizonezko bat umore mota bat iten non igual bestiak dian umoregai eta igual ez da hor eroso sentitzen zeana ta esatezu... ze ingoet? ez baldin badakezu beste eredurik ze in bezu?” (A1)*

*“ni konsiente naun emakume naizen partetik ze ez deten in nahi...” (A3)*

Umorearen bidez mezu batzuk helarazi ditzakezu, gauzak gogorarazi eta ikusarazi diezaizkiokezu publikoari eta askotan umorez egindako zerbait betirako geratzen da gogoan.

*“Eta jendiari ustez mezua allaraztia umore puntu horrekin baina egi berdaderuakin ez?” (A2)*

*“La funcion reveladora, que es cuando el tonto la tonta oficial en medio de un monton de tonterias y de cosas sin sentido dice algo que la gente dice.. “ostias...” y le cambia el coco (...) hay obras de teatro que te cambian la vida, que te cambian la percepcion del mundo, y la recuerdas toda tu vida..” (A4)*

Norberarentzat garrantzitsuak diren gaien inguruan egiten den umorearen bidez gertaera hori desdramatizatzea lortzen da. Pisua kentzea bueltaka dabilkizun kezka horri edo sentitu izan duzun mina onartu eta nolabait honi buelta ematea.

*“[funcion del humor] Desdramatizar, el humor introduce ligereza, deberia introducir ligereza, pero para mi no es lo mismo ligereza que frivolidad...” (A4)*

*“Herraminta kristona da umoria... porke eske bi aldiak erakusteizkizu. Ikuspuntu tragiko horri buelta ematen eta esaten... “Mundua ez da gauza hauekin bukatzen”. Beti dao buelta bat ematia” (A1)*

Umoreak barreaz gain beste emozio batzuk ere sortzen ditu. Zure bizipen batetik abiatuta sortzen denean, gertaera honek garrantzia edukitzeak bere gainean umore egiteko aukera ematen dizu. Horregatik askotan min egin dizun zerbaitetik abiatuta edo kezka eta egonezina sortu dizun zerbaitetan oinarrituta egiten da umorea. Barrea eta negarra elkarrengandik hain gertu egotearen arrazoia hori da, zerbaitek negarra eragin badizu horrek zugar hartu duen garrantziagatik da, eta garrantzia horri nolabait pisua kentzeko, desdramatizatzeko, hortan oinarrituta umorea egin dezakezu.

*“Ta orduan norbaitek parre inarazten badigu, horrek esan nahi du negarra ere ezautzen deula... ta onartu, eta ahal denian parre in ta negar(...) Eta nik behintzat umorea plasmatu nahi izan dut sufrimendu baten ondoren (...) nik hau bizitu dut baina aurreaka nijua... Ordun ateatzen dia parra iteko momentuak” (A2)*

*“Nere ustez umoria sortzeko lelengo beste gauza batzuk sortu ber dia. Ezin dezu pretendiu atea ta parre bakarrik eitea publikoak. Eske ez det uste helburua hori izan behar dunik. Azkenian parria... tristura ta parria, negarra ta parria, batea dijuazti...” (A1)*

Beraz umorea norbere bizipenetatik gertu dauden gaien inguruan egin daitekeen zerbait da. Erreferentzia moduan “besteak” hartu ditzakezu eta eurretaz barre egin, desberdintasunaz barre egin, eta antzerkiak asko izan du umore mota honetatik historian

zehir, baina agian interesgarriagoa da erreferentzia moduan norbera hartzea, guban erreparatu eta umorea gure dramak, gure mugak eta gure ezintasunak onartzeko tresna batean bihurtzea. Publikoari ere bere buruaz barre egiten laguntzea, nolabait bakoitzak dituen karga horietatik distantzia bat hartu, bere barrura begira jarri eta bere burua onartu dezan.

*“zure buruataz parre itiak ekartzeu beakin ba onartzia zure burua zer dan... ta bilatzia hor barruan, ta zure burua obserbatzia ta esatia joe... Batzutan pentsatzezu: Ze ridikulua dan hau ez..? Ta zuretzat da zerbait oso pisutsua...” (A1)*

*“Ta emakumiek ikusi iten dine hori hola dala ta bere burukin iten din parre, neretzako teatruen daken hire buruekin parre itie lasai” (A3)*

Umorea gauza ebindeetan oinarrituta egin daiteke, ohikoak diren gauzetan absurdoa aurkituz eta zeinen erridikuluak diren azaleraziz. Esterotipoak ere asko erabiltzen dira umorea egiterako orduan. Azken finean erreferente ezagun bat beharrezkoa da hortik abiatuta umorea egiteko eta publiko generalak esterotipo jakin batzuk ezagutzen ditu. Kontua da esterotipo honekin zer egiten duzun, posible duzu berau indartu eta hemendik ateratzen denaz barre egin edo posible duzu erridikulizatu eta nolabait esterotipo hori irauli.

*“Cuando el payaso o la payasa retoma el topico y cae en el esterotipo es porque necesita el trazo grosso, porque el trazo grosso es reconocible, como en una caricatura... tu haces un trazo grosso y pierdes los matices, te quedas con un detalle y lo exajeras mucho (...) una vez que coges el esterotipo, el topico es que haces con el... Esto es la disidencia, hay gente que se queda sin darle la vuelta, se queda en la cascara y hay gente que utiliza para darle la vuelta... Yo creo que hay que entrar para darle la vuelta...” (A4)*

*“Umöre klase hori enike ingo... Oin nik rekurtso hoiek momento batzuta ibili dixkinat; Esterotipuek igual.. Baino puntie atea zonabet pertsonaje batzui, dana esprimiu arte absurdoaino emanda...” (A3)*

Umöre erreza ere existitzen da beraz, esterotipo hauek indartu eta ohikoa den hori errepikatzen duena, jendarteko arauekin lotuta dagoena eta desberdintasunari barre egiten diona. Kontua da honekin benetan zer transmititzen duzun eta hori al den bakoitzak egin nahi duena. Arte eszenikoak eta antzerkia jendartearen eraldaketarako

tresna bat izan daitezke eta hau kontuan hartuta oholtzara igotzen denak sentitu behar luke erantzunkizun bat esaten ari denaren inguruan.

*“Txistek sexistak, eta bueno... oain inmigrantekin ere txiste asko eiten dia (...)errexha da kopiartzia hori eh... Hartu eozein pertsonai eta horretaz parra itia, baino etzait aberasgarriya iruitzen, iruitze zait etzeala ezer esaten ai” (A2)*

*“Formamos parte del imaginario colectivo, estamos creando imágenes para el imaginario colectivo entonces yo me siento responsable... hay gente que no... yo me siento responsable de lo que apporto” (A4)*

Jendarte eredu honek bazterrean uzten dituen kolektiboetaz barre egitean publikoaren zati bati errespetua faltatzen ari zara, agian publikoaren parte handi bat barrez lehertuko da baina kontuan hartzeko da beste zati bati egiten ari zarena. Umoreak ez du zertan baztertzailea izan behar, ez ditu zertan ezarritako ereduak indartu behar, hauen gaineratik egindako hausnarketan bidez publikoarengana iritsi eta barre egitea sanoagoa da biktima errez batzuen gainean barre egitea baino.

*“El tipo de humor que yo espero es un humor que no me agrada a mi como espectadora, y que no agrada a nadie que este viendo el espectáculo” (A4)*

*“Nik gauza bat esango dinat, umorie nik usteñat ein laikela eozarren inguruen, bai... baino (...) aurrien daonai errespetu bat zor dion” (A3)*

Umorea bazterrean gelditzen diren errealitate horietaz asko egiten dela ikusten da, lehenago aipatu izan dugu jendartean desberdina dena zuzentzeko egiten dela askotan beste norbaitengan umorea. Bufoiak, nolabait honi buelta ematen dioten pertsonaiak dira, sufritu duten bazterketa honen eraginez jasandakoari aurre egin eta kritika soziala egiteko erabiltzen dute umorea. Erreminetik hitz egiten dute eta tarteka jendarteko kontradizioak agerian jarritz egi biribilak askatzen dituzte. Interesgarria da hauen umorea, bazterketa sozialari kritika zorrotzak egiten dizkiotelako.

*“El humor con los bufones nos da miedo porque nos sacude las buenas conciencias, nos dice... “si si... politicamente correctas pero mira aqui lo que os pasa no? Jajaja!...” (A4)*

Emakumeok jasaten dugun bazterketa sozialaren aurrean umore erabili dugu geure buruak defendatzeko baino gehienetan hori eremu pribatura mugatu da eta oholtza gainean oso emakume umoregile gutxi ikusten ditugu gure errealitatetik abiatuta umorea egiten. Hau honela izateko arrazoi desberdinak daude, horietako bat eredu falta da, beste bat espazio publikoa emakumeoi ukatu izana, sexu-genero sistemaren bidez barneratu ditugun baloreak; emakumeok erantzunkizunez eta seriotasunez ardurak hartu beharra, biktimaren papelera lotu beharra, jendarte eredu honetan seduzitzaileak izatera mugatu beharra, atentziorik deitu gabe eta edertasunaren kanonak apurtu gabe ibili beharra,... ondorioz umorea egiteko eta umoreaz disfrutatzeko hainbat muga ezarri zaizkigu.

*“Emakumezkuak beti correcto izen ber diñe, beti correcto, no destacar... ez jun guapagi... baino zatarregi ez jun... Ez gehiegi hitzein ze gehiegi hitzeiteuna... ordun, ezin izan din diskurau...” (A3)*

*“Que yo era una mujer muy seria, muy responsable, bien socializada y ademas tenia la sensacion de que el humor era cosa de hombres como muchas otras cosas porque apenas habia referentes femeninos (...)Mi cruzada personal en decirles a las mujeres que haber... que eso de que les han contado que son serias porque son responsables, es todo mentira,(...) y que tenemos que encontrar referentes propias de humor y complicidades” (A4)*

*“ni adibidez beti izan naun un poco payasa, txikitatik kuadrilan eta beti izan naun “ña ña.. ña ña...” Baino alleatu hunan momentu bat. pubertaro aldian ia ne buruai esan niola... “zu ezin zea hola ibili bizitzatik”... Osea... “ez da seriua”... “heldutzen ai zea, ta ezin dezu jun txorradak esaten bitzitzatik...” (A1)*

Emakumeok gure ekarpen kulturaletan umorea egin ahal izateko honekin dugun harremana berreraiki behar dugu. Seriotasuna, denak kontrolatu beharra etab. alde batera utzi behar ditugu. Umorea ez dela emakumeen kontua barneratu dugu, ondorioz lehendabizi ikasi dugun umore ereduarekin apurtu behar dugu beste eredu berri bat sortzeko, eta umoreaz modu sanoago batean gozatzeko.

*“Yo tuve que recuperar mi propia risa porque yo tenia censurada mi risa. Yo no me reia afuera ni con sonido (...) Luego... rechazar que las mujeres seamos temas de humor de una manera determinada, osea no solamente aprender a reirme de lo que me hace gracia, sino aprender a no reirme de lo que no me hace ninguna gracia, porque las mujeres hemos sido domesticadas y hemos aprendido la risa social” (A4)*

Emakumeok ikasi egin behar dugu gu ere bagarela gai umorea sortu eta barrea eragiteko. Puublikoa ere hezi egin daiteke, eta umorea horretarako tresna garrantzitsua izan liteke. Gaur egun ez gaude ohituta jendarte ereduarekin kritikoak diren antzerkietara, beste zerbait esaten duten antzerkietara baina publikoa malgua da eta pixkanaka eredu berriak, umore mota desberdinak barneratu eta baloratzeko gai izan behar luke. Hasieran zerbait berria emateak ez ulertzeko arriskua du baina pixkanak gauza berrietara ohitu eta baloratzen ikasiko du publikoak.

*“Nik antzerkiyen bitartez gauza batzuk esan nahi dizkinat, ni ez naun juten antzerki didaktikuen bile, baina aukera baldin badakat zeatik ez dinat esango...” (A3).*

*“Creo que el humor reprograma y puede educar en todas formas de voz, y como en general cualquier cosa artistica, la novedad, o que tu hagas algo diferente corre el riesgo de no ser comprendido, no ser lo bastante valorado porque todavia no es el momento.. Pero si tu estas convencida y mantienes y mejoras ahí... normalmente hay un momento en el que el publico no solamente comprende sino que lo valora... Entonces es educar, porque la divergencia, o el valor y la creatividad en materia artistica es fundamental...” (A4)*

Askotan kultura entretenimendu hutsarekin nahasten dugu baina hori pixkanaka aldatu eta kultura jendarte eredu justuago bat eraikitzeke tresna batean bilakatzea da erronka.

*“Desde cultura no... Vienen de otro lado...joe... Siempre estamos igual... que pasa, que lo que hacemos no es cultura...? No es programable...? Yo ya no se, si es que les asusta este humor que dice algo... No lo se... Si el planteamiento es que quieren que la gente se lo pase bien pero que no piense demasiado? Tampoco se si es tan consciente no...?” (A4)*

*“Ta antzerkiya adibidez... da herraminta bat zerbait aldatzeko, probokatzeko publikoangan (...) “El humor es un arma de construccion masiva...” (A1)*

Antzerkia, bertsolaritza eta arte eszenikoak, jendarte eredu aldatzeko bitarteko bat bezela ulertuta, umoreaz baliatzeak eragin garrantzitsua izan dezake publikoarengan. Beraz umorea, barre algara bat baino zerbait gehiago da. Emakume artistek, hontaz jabetu eta erabiltzeko ezarri zaizkien zailtasunen gainetik, umore propioa eta eraldatzailea egiten badakitela erakutsi dute. Etorkizun baterako bidea egiten jarraitu beharra dago, erreferente berriak sortu eta umorea guretzat eta guretik naturaltasunez egiteko, plazan, oholtzan eta edozein lekutan.

#### 4. ONDORIOAK

Hauek dira lanaren hasieran jarri ditudan helburuen inguruan atera ditudan ondorioak:

##### **1. Alde batetik umorea nola sortzen den eta umoreak, komunikazio tresna bezela, jendartean betetzen dituen paper desberdinak aztertuko ditut.**

1. Umorea aurretik ezaguna den erreferente bat exajetatuz edo distortsionatuz logikarekin apurtu eta barre egingo duenarengan harridura bat eragiteak sortzen du. Umorea sortuko duenaren aldetik garrantzitsua da egiten duen horretan zentratuta egotea eta ez “umorea sortu behar dut” pentsatzen egotea. Beldurrak desirak eta debekuak umorearen bidez kanporatzen ditugu. Zerbaiti buruz umorea egiteko aurretik garrantzitsutzat errekonozitua izan behar du, berau erridikulizatzeak eragiten baitu barra. Garrantziarik ez duen zerbait erridikulizatzeak ez du graziarik eragiten. Hizkuntza, umorea egiteko tresna garrantzitsua da eta erabiltzen diren kodigoek egingo den umore mota definitzen dute askotan.

Zoritxarrez gaur egun umorea dibertsio hutsarekin lotzen da eta bere bidez hezi, edo transmititzen denak ez du ikerketarako behar adinako garrantzirik hartzen, ondorioz oraindik oso gutxi aztertu da umorearen inguruan. Gauza inportanteak umoretik ezin direla egin barneratuta dugu.

Batzutan beste batzuen gainetik jartzeko erabiltzen da umorea, beste norbait mesprexatzeko eta gure gutxiagotasun sentimendua arintzeko. Beldurrekin egiten da umorea askotan, eta gaur egungo jendartean desberdintasunari beldur handia diogunez askotan bihurtzen dira barre objektu gizarte arauetatik kanpo dabilzanak. Ondorioz, inork ez duenez burlaren jomuga izan nahi, desberdintasun hori zentsuratuz euren burua jendarteko arauetara egokitzea behartzen dute. Baina umorea norbere burua defendatu eta injustiziak salatzeke tresna bat ere izan daiteke. Hausnarketa baten ondoren arautua dagoen hori, ohikoa eta kuestionatu ezina den hori zeinen erridikulua den ikusarazi daiteke umorearen bidez. Norbereburuarekin barre egitea beste aukera bat da, eta honek zure minetatik distantzia hartu eta sendatzen laguntzen dizu. Zure burua onartzeko modu bat da.

Umoreak, logikarekin apurto eta errealtatea absurdu batean bilakatuz hemendik ihes egiteko aukera bat ematen digu. Barrea konpartitzeak, errealtatetik egiten den ihes bidai hau konpartitzeak, pertsonak elkarrengana hurbildu eta konplizeak egiten ditu. “Barrea da bi pertsonen arteko distantziarik motzena”.

## **2. Emakumeak umorearekin dugun harremanean, objektu bezela, umore kontsumitzaile bezela, eta subjektu bezela, (umore sortzaile bezela)betetzen dugun papera gaur egungo sexu genero sistemak nola baldintzatzen duen ikusi nahi nuke.**

Emakumeok umore objektu bezela. Lehen atera ditugun ondorioen artean umorea pertsonak jendarteko arauetara egokitzeko tresna bat izan daitekeela aipatu dugu. Emakumeok gaur egungo sexu genero sistema dela eta jendarte eredu honetan arau asko ditugu betetzeko, gure rolak oso ondo definituta daude, modu sutil batean baina jakina da erruz barneratuta ditugula guztiok, ondorioz arau guzti horiek bete eta rol horietara egokitzeko barre asko egin zaigu emakumeoi. Gure itxura fisiko eta jarreraren inguruko presio sozialaren zati handi bat gaur egun umorearen bidez egiten dela esango nuke. Gure rolak bereziki besteentzat egiten gaituztela ikusirik, erridikuluari diogun beldurra ere handiagoa da eta ondorioz are eraginkorragoa da umore mota hau arauetatik kanpo dabilzan emakumeak “zuzentzeko”.

Emakumeak umore kontsumitzaile bezela: Sexu genero rolen eraginez barneratu dugun “atseginak” izan beharrak irribarreak egitera behartu gaitu nahi ez genuen une askotan ere. Zerri buruz barre egin eta zerri buruz ez ikasi dugu. Sedukzio jokoan gure parte gizonaren grazie barre egitea izan da. Irribarre batzuk egiteko baimena eta betebeharra izan dugu baina gainontzekoan, algarari dagokionean, gure barrea kontrolatzera behartuta sentitu gara askotan. Gorputzaren eta gogoaren plazer handienetakoa da barre algarak egitea baina gure jendartean plazerra ahuldadearekin lotzen da eta publikoan egiten diren algarak kontrolatuak izan behar dute. Emakumeoi sexualitatea bezala barrea ere ukatu egin zaigu, zentsuratu, besteenera moldatu, ondorioz jendaurrean ahoa tapatuz, soinurik atera gabe edo bestaldera begira barre egiten ikasi dugu. Edo okerragoa dena, barre hori nola egiten zen ahaztu dugu eta ondorioz berau berreskuratu nahian barreterapia bezelako ikastaroek arrakasta itzela dute egun.



Emakumea umore subjektu bezela: Emakumeok egiten dugun umorea sutila dela esango nuke. Jendarte arauk ezarritako rolen artean behatzaileak, eta denari adi egoten direnak izaten ikasi dugu eta detaile txikietan aurkitzen ditugu barrea eragingo duten kontraesanak. Baina emakumeok bereziki arduratsuak izaten ikasi dugu. Besteak zaindu, hazi, hezi eta kezkatzea gure betebeharra izan da. Gainera erantzunkizuna seriotasunarekin erlazionatzen da jendarte eredu honetan, lehen esan bezela badirudi umorearekin ezin direla gauza inportanteak egin. Ondorioz etengabe kezkatuta eta arduratuta egon behar horrekin dibertsioa eta umorea gure egunerokotasunetik kanpo gelditzen zaizkigu.

Sexu genero sistemak ezarri digun beste ezaugarri bat seduzitzaileak izatearena da, ondorioz, geldi, guapa, eskandalurik atera gabe eta jendarte arauetara hertsiki egokitzen den emakume bat izan behararen presioak ez digu usten umoreaz lasai gozaten. Honetaz gain askotan ezarri zaigun biktima paperak, beldurriak eta ahulak izanik negarrez egon beharrek gure umorea garatzea oztopatu digute.

### **3. Eta azkenik arte eszenikoetan egiten diren ekarpen kulturaletan emakumeek parte hartu eta umorea egiterakoan zein errealitatekin aurkitzen diren eta emakumeek egindako umoreak ezaugarri berezirik baduen aztertuko dut.**

Arte eszenikoetan egiten dena eremu publikoan egiten den ekintza bat da. Orain dela oso gutxi arte espazio hori itxita egon da emakumeontzat, ondorioz oraindik “gizonen espazio” bezela pertzibitzen dugu oholtza. Emakumea bere eremuan ez egotea justifikatzeko modu bakarra hortan ezinhobea izatea da ondorioz oholtzara igotzeko zeure buruarengan konfidantza handia izan behar duzu eta esateko duzun horretan sinistu. Sexu genero sistemaren ondorioz eraikitako jendarte eredu honetan emakumeok “ez nabarmentzen” ikasi dugu, “besteentzat izaten” eta ondorioz besteen epaiari berebiziko garrantzia ematen. Oholtzarako saltoa beraz ez da batere erraza emakumeontzat.

Bertsolaritzari dagokionez, orainartean erabat maskulinizatutako eremua izan da eta emakume bertsolariak “gizonen, edo gizarteko” joko arauetara egokitu behar izan dute. Orainartean ia ez da emakume bertsolari eredurik egon eta bidea urratzen hasi berri direnez oraindik eremu horretan elementu “femeninoak” falta dira, bertso saioetan emakume bat baino gehiago, gai berriak, doinu berriak, egiteko modu berriak... guzti

hau egiteko dute emakume bertsolariek, baita gizon bertsolariek ere... Urteetan “kuriostate” moduan aritu dira bertsotan, eta emakumeen hitzak eremu publikoan gizonarenak baino garrantzi gutxiago duenez errekonozimendu bat irabazteko bi aldiz eta hiru aldiz onak direla demostratu behar izan dute. Hain maskulinizatua dagoen eremuan emakumeentzat ez da erraza boterea hartu eta eraldatzeko lan hori egitea. Gaur egun emakume gehiago dira, eredu gehiago egoteak aberastasuna ekarriko dio bertsolaritzari baina oraindik asko dira “joku arau” hauetara egokitzen asmatu ez eta atzean ixilik geratzen diren bertsoeskoletako emakume gazteak.

Sortzeko garaian emakume hauentzat norbere barrutik ateratako zerbait transmititzeak berebiziko garrantzia dauka. Zentzu honetan emakumeon egunerokotasunetik gertu dauden gaiak lantzea ez da erreza ez dutelako behar adinako traszendentziarik gaur egungo jendarte eremuan. Arte eszenikoak oholtzan dagoenaren eta publikoaren arteko elkarrizketa sutil bat dira. Ondorioz ezinbestekoa da biak hizkuntza berdinean hitz egitea, oholtzatik mintzo denak publikoak ulertuko dituen erreferente eta gaiak erabiltzea. Emakumeok eremu pribatura mugatuta egon garenez gure gaitegia, gure kezak, gure egunerokotasuna ere pribatutasun hortan gordeta gelditu dira. Eremu publikoan dagoena orainartean gizonen egin dutena izan da, beraz arte eszenikoetan “ulertua” izateko nolabait “gizonen hizkuntzan” hitz egin behar izan dute, gizartean interes publikokoak diren gaiak eta kezak erabiliz. Eremu publikoan emakumearen papera “emakumea” izatera mugatu da, mota desberdinetako emakumeak, errealitate eta egonezin desberdinak dituzten emakumeen ezaugarriak ez dira ezagutzen, ez dira konpartitzen publiko orokorrarekin, ondorioz askotan oso motz gelditzen da hauen inguruko historiak sortu eta transmitzeko. Beharrezkoa da emakume mota desberdinak eta euren kontraesan eta egunerokotasunak ere publikoarekin konpartitzea, emakume eredu desberdinak ezagun bilakatzea. Umorea, lehengo ondorioan ikusi dugun bezela aurrez ezaguna den erreferente baten exajerazio edo distortsioetik sortzen da eta emakumeon egunerokotasunetik gertu dauden kezka eta errealitateak, ez direnez publiko generalarentzat behar bezain garrantzitsuak eremu publikoan, arte eszenikoetan, hauekin umorea egitea oso zaila bihurtzen da

Gaitegiak gain hizkuntza ere elementu inportantea da umorea egiterako garaian. Ez dugu emakumeon gaitegiarekin lotuta dagoen umorea egiteko hiztegirik, ez ditugu

esaldi eta kodigo konpartitu batzuk horretarako. Ondorioz herra mintarik garrantzitsuena den hizkuntza bera ere egiteko dago oraindik, osatzeko eta aberasteko.

Hainbat emakumek egindako antzerkiek, lantzen dituzten gaiengatik, “emakumeen antzerkia” izena hartu dute, kultura moduan errekonozitu beharrean “emakumeen kontuak” moduan definituz. Eta honek berriz ere gure jendarte eremuan “emakumeen gauzak emakumeenak dira eta gizonenak gizartearenak dira” barneratuta dugula baieztatzen du.

Jendarte antolatuta dagoen moduak ere emakumeoi sormenerako tarte gutxi uzten digu. Amatasuna dela, enplegua eta etxeko lanak direla, “besteetaz” arduratzeko betebeharrak eta zaintza lanak direla... guretzako egin nahi duguna beti zerrendaren azkenengo tokian jartzeak (sexu genero sistemako rolen bitartez barneratu dugun bezela) sormenerako gogoia nahi bezela ez garatzea ekartzen du.

Bestalde emakumeak eremu publikoan umorea egitera ausartzea oso zaila da ezarri zaizkien rol guztien ondorioz, (eta bereziki seduzitzailearena, biktimarena, ez nabarmentzerarena,...). Horretaz gain urteetan oso emakume umoregile gutxi ikusi ditugu oholtza gainean jendeari barre eragiten eta gizakiok imitazioz ikasten dugunez hori guretzako ez dela argi izan dugu urte askotan zehar.

Hala ere hainbat emakume ari dira euren interesetan oinarritutako gaiak erabiliz sortzen eta umorea egiten. Beren eguneroko bizipenekin zuzenean lotzen diren gaiak izaten dira askotan, norberari gertatutako min eta drametan oinarrituz hauen alde erridikulua atera eta berau onartzen lagunduko dioten umorea erabiltzen dute beren antzerkietan. Publikoari euren barrua modu honetan esponitzeak bertigo izugarria ematen badie ere zerbait transmititzen dutela sentitzeak pena merezi die.

Oraindik asko dago egiteko, gaur egungo eremuan emakumetasunetik gertu dauden gaiak ezagutarazi behar dira, erabiltzen diren hizkuntza eta kodigoetan elementu “femeninoak” barneratu, eta perfil deberdinetako emakumeak ezagutarazi eta hauen barruko kontraesanekin jolasten ikasi behar dugu. Baina umore hau ez da emakumeek soilik egin beharreko zerbait, gizonek ere honekin umorea egiten ikasi behar lukete, gure errealitate abiatu eta gurekin barre egin. Guk orainarte euren eta publikoa izan den errealitate horrekin egiten ikasi dugun bezela. Askotan esaten den bezela

emakumeek gizonen mundura salto egin du eta hainbat lorpen egin ditu baina gizonek ere emakumeen mundura salto egitea eta hau ezagutzea beharrezkoa da, denontzat izango den jendarte eredu bat eraiki nahi badugu.

Horregatik badaezpada ez nuke umore hau “Emakumeen umorea” bezela definituko agian honela “emakumeen kontuak” izeneko bazter ikusezin horretan gelditzeko arriskua izango bailuke.

Bukatzeke aipatu nahi nuke emakumeok umorea gure errealitatetik garatzeko oztopo ugari baditugu ere ari direla interesgarriak diren artistak ateratzen gaitegi eta kodigo berriekin oholtza gainean umorea eginez. Zentzu hortan MIKAELA PITON abeslari iruñarraren lana motzean ikusiko dugu hurrengo atalean.

## **5. BUKATZEKO...**

Mikaela Piton artista gazte iruñarrak musika, hitzak eta umorea lotzen ditu bere emanaldietan. Bere abestietan animaliei egiten zaizkien tratu txarrak salatzen ditu, baita sexu genero sistemak egiten duen rolen banaketa eta honen ondorioz emakumeek jasaten duten zapalkuntza ere. Bere agerraldietan salaketaz gain umorea izaten da osagai nagusia oholtza gainean. Nere ikerketa lanean emakume gazte honek oholtzara ematen duen umorea aipatzekoa dela pentsatzen dut eta hona hemen berak bere buruaz egiten duen aurkezpena eta bere bi abestiren hitzak.

Bere aurkezpena Bilgune Feministak emakume artistentzat eurek egiten duten lana hedatzeko martxan jarri duen [www.emakumeokplazara.org](http://www.emakumeokplazara.org) web orriko baliabideen gidan agertzen da.

### **MIKAELA PITON**

“Orain dela hiru urte elkartu nintzen nire lehengo kitarrarekin. Nire lehengo aldia zen baina gustora hartu nuen. Eta lehenengo amodioak bezala bakarra eta bizi gutzirako izango zela pentsatu nuen... Hasieran bildurrez ukitzen nion baina gero ulertu nuen nire laztanek eta bere ahotsak bikote ona egiten zutela. Izkutuan eramaten genuen gure erlazioa, niri lotsa ematen zidan besteek gu elkarrekin ikustea, entzutea. Nire lagun

batzuek asko lagundu zidaten hori gainditzen. Beraz, nire beldurak albo batera utzita publikora atera ginen.

Lehenengo egunetan gaizki pasatzen nuen eta jendeak ez dakit zergatik txalotzen gintuen, konpasioz edo... Baina armariotik atera nahi genuen, beraz, indarrak hartu eta aurrera jarraitu genuen. Gero eta hobeto genbiltzan eta orduan ezagutu genuen gure hirugarren kidea, Ardoa. Gurekin ateratzen zen eszenatokira eta inprobisatu egiten zuen, berak esperientzia



asko zuen. Berarekin konfidantza asko irabazi genuen. Orduan gertatu zen, ezustean, beti gertatzen den bezala. Kitarrak (Julia deitzen da, goraintziak berari) istripu bat izan zuen. Txirrinduarekin izan zen. Bere gainera erori zen eta zulatuta geratu zen. Nik dena ikusi nuen, nik eragindako istripua izan baitzen... Orain pentsatzen dut eta negargura sartzen zait berriro, ez zen nahita izan baina oraindik errudun sentipenak itotzen nau. Oso gaizki zegoen eta ebakuntza egin nion. Orain prezintoz beteta dago eta pegatinek bere gorputz zulatuta ezkututzen dute. Taldea utzi zuen orduan.

Krisi bat egon zen taldean, baina indarrak hartu eta beste kitarra baten bila joan ginen. Dendan ikusi nuenean maitemindu egin nintzen berriro, bestea ere maitatzen nuen/dut baina maitasuna ez da bakarra. Ilargi deitzen da. Hor zegoen gaixoa, mostradorean bere gorpua prostituitzen. Mundu horretatik atera nuen berehala. Azal argia dauka, ahots fina, emakumearen gorputza eta beti irribarrez dago... Orduan hasi zen taldearen "bum"-a. Kontzertu asko egiten hasi ginen Euskal Herri osoan zehar, batez ere gaztetxetan eta tribu feministetan. Hauek oso naturalak dira, ileak dituzte gorputz osoan, guztiak guztiakin apareatzen dira eta bere erritualetan kuleroak buruan ipintzen dituzte. Oso gustora sentitu gara beti beraien artean. Maketa bat ere grabatu genuen, baina managerrik gabe, eta saltzaile txarra izanik dirua galtzen atera ginen. Behin Madrilera joan ginen, jotzera... eta orduan nire ametsgaiztoa bete zen. Ilargi beste batekin joan zen. Juerga batean izan zen, ni ardoarekin hizketan nengoen eta konturatu nintzenerako Ilargi ez zegoen... Ez dut pentsatu ere egin nahi zer egiten ari zen... Amorrua eman zidan. Leku guztietatik bilatu nuen baina ez zen agertu. Beste bat aurkitu nuen, hor galduta, mutil batek utzi zuen eta nik kontsolatu nuen. Beraz, kondizio berdinetan elkartzea erabaki genuen. Ez dugu asko ezagutzen elkar baina etorkizuna

ikusten diot harremanari. Esperientzia asko dauka... Gauza asko erakutsiko dizkidalakoan nago. Orain kontzertu gehiagoren zain gaude.”

Hauek dira bere maketan agertzen diren kantuetako bi:

#### DESDE PEQUEÑA

Desde pequeña empezaron a instruirte para ser mujer  
una chaquetita de punto rosa te dio tu abuela nada mas nacer  
lloreras y carreras por el pasillo  
con tu madre por detrás “ponte el vestido”  
te llega el olentzero y los anuncios  
una muñeca que se mea, ponle el pañal!  
En la ikastola los chicos al futbol las chicas sokasaltora  
“aita, ama... zenbat urtekin ezkonduko naiz?”  
Amatxo que meo rojo ahora que hago?  
Bienvenida! Ya eres mujer! estas destinada a sufrir,  
Llevaras tacones... depilate el bigote!

Si soy mujer pero no asi!

Si soy mujer pero no asi!

No me depilo, me masturbo y los tacones.. los tacones te los clavas en los cojones!

No me depilo, me masturbo y los tacones.. los tacones te los clavas en los cojones!

#### QUE LE VOY A HACER (“Piperrak”talde punk ezagunaren bertsoia)

Encerrada en mi habitacion me duele la tripa mogollon,  
Paso las horas medicandome entre pastillas e ibuprofenos  
Salgo a la calle sin rumbo fijo huelo las flores y echo a bailar  
Miro a la gente y les sonrio que alegria que felicidad  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien  
Y es que que le voy hacer si he nacido pa ser mujer!  
Pasada media hora, y me vuelve a doler  
Entre las sabanas de mi cama yo me voy a meter  
Al dia siguiente en mi habitacion no me paro de preguntar

Como coño me he desangrao que la cama he vuelto a manchar  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien  
Y es que que le voy hacer si he nacido pa ser mujer!  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien  
Y es que que le voy hacer si he nacido pa ser mujer!  
Y es que que le voy hacer si tengo la regla y me siento bien... y las nubes huelen bien!

Bere aurkezpenetik hasita oholtza ganean abesten duen azken kanturaino umoreak laguntzen dio, egiten dituen adierazpenetan, keinuetan, soinuetan... Bere hitzetan emakumeen inguruko erreferentziak sartzen ditu, baita abestien aurretik egiten dituen komentarioetan ere, sexu genero sistemak egiten duen rolen banaketa kritikatzeko du umore puntu batetik, lehengo abestian ikusten dugun bezela.

Bigarren abestian hilerokoaren inguruan egiten diren anuntzioen inguruan ironizatzen du eta nolabait errealitate horri erreferentzia egiten dio. Emakumeok oholtza gainetan hain errez aipatzen ez ditugun depilazioa, hilerokoa, masturbazioa... erabiltzen ditu umorea egin eta jendarte eredu kritikatzeko.

## 6. BIBLIOGRAFIA

BERGSON, Henri. (1940) **La risa**. Madrid. Ed. Espasa Calpe: Austral.

BERNARDEZ Asun. (2001) “**El humor y la risa**” ed: Fundacion autor

BOKUN, B. (1986). **El humor como terapia**. Barcelona. Ed. Tusquets, S. A.

BUTLER Judith (1980) “**Genero en disputa**” Editorial Paídos

CABALLERO, Juncal et all. coord. 2005: **Dossiers feministes. Humor y mujeres ¿lo pillas?** Castelló. Universitat Jaume I.

DIEZ Carmen (1996) **Deporte y construccion de las relaciones de genero**. Gazeta Antropologia N°12

ETXENIKE Luisa (1993) **Mujer y humor Ed (i. g.)**

- FERRARIO, Giani. 2006. **Reir de corazón**. Barcelona: Terapias verdes S.L.
- FUSALBA, M; MAURE, M; SANCHO, M. (Eds.). (1987). **¡Ay, que risa!**. Barcelona. Ed. Laia.
- GARANTO, J. (1983). **Psicología del humor**. Barcelona. Ed. Herder, S.A. Biblioteca de psicología.
- GARANTO, J. (1983). **El sentido del humor y las actitudes hacia si mismo indices de maduración personal para educadores**. Barcelona. Resumen Tesis Doctoral. Centre de Publicacions. Intercanvi Científic i Extensió Universitària.
- GOENAGA Aizpea. (1994) **Emakume egileak Euskal antzerkian** ,Donostia 1994.
- HERNANDEZ Jone Miren (2006/2007) **Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitateak**. KOBIE (Serie Antropologia Cultural). Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia N°XII pp 61-70.
- IMAZ Virginia (2005-01-30) **Argia astekaria**. 1977.zenb
- IMAZ Virginia.(2005) **Genero y humor la triple transgresion**. “Emakunde” aldizkaria 59 zenb.
- ITURBE Arantxa.(2005) **“El humor desde el genero”** Emakunde aldizkaria 59. zenb
- JARA, Jesús, 2008. **Desde mi payaso. Cuadernos de navegación**. Co-edición Valencia-Sevilla. PROEXDRA y escuela de payasos Los hijos de Augusto.
- KLEIN, A. (1988). **Y tú de que te ríes?**. Barcelona. Ed. B:S:A
- LARRAÑAGA Carmen. (2007) **“Del bersolarismo silenciado”** Eusko ikaskuntza, Miramar jauregian.
- MODDY, R. (1978). **El poder curativo de la risa**. Madrid. Ed. Edaf.



PAULOS, S.A. (1988). **Pienso, luego río**. Madrid. Ed. Cátedra, S.A. Colección teorema.

PINO, A. (1989). **Cómo reírse del sexo**. Madrid. Ed. Temas de Hoy. Colección El Papagayo.

RAZNOVICH Diana (2005) “**El humor desde el género**” Emakunde aldizkaria 59. zenb.

ROSALDO, M. (1979): **Mujer, cultura y sociedad: una visión teórica** Barcelona, Anagrama.

ZIM, A; DIEM, J.M. (1989). **El sentido del humor**. Bilbao. Ed. Deusto.